

Euskal lankidetza publikoaren azterketa 2008–2010

Lankidetza deszentralizatuari begirada bat



EUSKADIKO GOBERN-
KOORDINAKUNTZA
COORDINADORA
de ONGG EUSKADI

Diru-laguntzaileak:



Proiektu hau, 10-117 hitzarmenaren barnean, Nazioarteko Garapenerako Espainiako Agentziak (AECID) finantzatu du. Publikazio honen edukia euren egileen ardura da eta ez du zertan AECIDen ikuspegiarekin bat egin behar.

Laguntzailea:



Argitaratzailea:



coordinadora@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir Elkartetxea.

San Ignacio de Loyola 8, 3. 1 bulegoa

01001 Vitoria-Gasteiz

Telf.: 945 28 07 45 Fax.: 945 28 07 45

araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Urkixo Zumarkalea 30, Urkixo Galeriak, 8. bulegoa
48010 Bilbo

Telf.: 944 150 300 Fax.: 944 150 300

bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Pasai San Pedro etorbidea 13, atzealde
20017 Donostia-San Sebastián

Telf.: 943 463 526 Fax.: 943 463

gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Egilea:

Natalia Rodríguez Fernández,

Irune Martínez Beaskoetxearen laguntzarekin

Gure eskerrik beroenak emandako laguntzagaitik honakoentzat: Puri Pérez, Sonia González, Fernando Vaquerizo, Alicia Alemán, Euskadiko GGKEen talde teknikoa, Marta Ares, Juanma Balerdi, Aitor Gabilondo, Miguel Pérez, Aitziber Fernández eta Michel Sabalza. Eskerrik beroenak ere ikerketa hau egiten lagundu gaituzten erakunde publiko guztiei

Itzulpena: Arin Arin

Diseinu eta maketazioa: Feldespako Grafiko

Azken urteotan nabarmen garatu eta hazi da toki erakundeetatik gizarte zibilarekin batera egiten ari diren lankidetzaren deszentralizatua, bai Espainiako Estatuan eta bai Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE). Euskadiko erakundeek denborarekin gogoetak, jarduera irizpideak, araudiak, azpiegiturak, aurrekontu partida bereziak eta diru-laguntzetarako deialdi publikoak gauzatu dituzte, eta horrela baliabide banatzaile hutsak izatetik beste lankidetzaren eredu bateko eragile aktibo izatera pasatu dira. Horixe da hain zuzen ikerketa honen abiapuntua.

Hogei urte behar izan ditugu ikusteko nolako bilakaera izan duen, bai araudietan eta bai aurrekontuetan, garapenerako lankidetzaren politikak EAEn. Horregatik, esan genezake gaur egun helduarora eta sendotasunera iritsi dela.

Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioak (FEMP) aldiro-aldiro informazioa prozesatzen eta zabaltzen du Espainiako Estatu toki erakundeek egindako lankidetzaren deszentralizatuari buruz. Halere, datu horiek ez dira oso zehatzak eta, gainera, nola 10.000 biztanletik gorako udalerri guztien %30ari buruzko informazioa baizik ez duten jasotzen,¹ ez digute askotarako balio jakiteko zein den benetan Euskadiko erakundeek bultzatutako lankidetzaren errealitatea.

Horregatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak iruditu zaigu gaur eguneko egoerari buruzko gogoeta bat egitea eta, batez ere, etorkizunean nondik jo daitekeen ikusteko giltzarri batzuk eskaintzea urrats baliagarria izan daitekeela bai arlo horretan lan egiten duten erakundeentzat eta baita ere azterketa honen gaia izan diren erakunde publikoentzat, jardunbide egokiak erauzi ditzaten bizi ditugun krisi une gogor hauetan. Horretarako, EAEn egiten den lankidetzaren lanaren zati bat —Euskadiko erakunde publikoek bultzatutako lankidetzaren— aztertuko dugu, azterketa hori beste ekarpen bat izan dadin eztabaida bat abiarazteko toki esparru-

tik bultzatuta daitekeen elkartasun eta nazioarteko lankidetzaren politika berri baterako balizko gida-lerroei buruz.

Azterketa honen asmoa da jakitea nolako ezaugarriak dituen Euskadin Garapenerako Lankidetzaren Ofizialak, horretarako aztertuz zein paper jokatu duten erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek) 2008tik 2010era bitartean, biak barne. Hain zuzen ere, epealdi horretan islatzen da hazkundea, baina baita ere elkartasun politiketarako aurrekontu mozketak justifikatuz gero etor daitekeen gainbehera.

Azterketa honek bi zati ditu. Bata kuantitatiboa, ikusteko zein diren garapenerako lankidetzarako bereizten diren zenbatekoak, eta zein herrialde eta sektoretan erabiltzen diren zenbaterako horiek. Hasierako azterketa horren ostean gogoeta bat egingo dugu laguntza horren kalitate, koordinazio eta osagarritasunari buruz, erreferente bat izan dadin beste erakunde batzuentzat.

Gaur egungo krisi egoeran, Euskadiko GGKEen Koordinakundetik adierazi nahi dugu oraindik ere ezinbestekoa dela lankidetzaren garatzea eta Legea betetzea. Azterketa honek erakusten digu apustu sendoa egin behar dela (kasu batzuetan egin dena) lanean jarraitzeko eta ahalegin solidarioari eusteko. Hain zuzen krisi une hauetan frogatu behar da zeintzuk diren mugitzen gaituzten baloreak.

Azkenik, azterketa honekin proposamen batzuk plazaratu nahi ditugu, Euskadiko GGKEon ustez funtsezkoak direnak erakunde publikoek etorkizunean beste mota bateko lankidetzaren deszentralizatua gara dezaten, lankidetzaren hori zuzentzen duten printzipioei hobeto egokitzeko zaien. Horrela, elkartasun eta lankidetzaren arloetan erreferentziazkoa den etorkizuneko euskal gizartearen lortuko dugu. Eta baita ere giza garapenerako eredu berri bat, berdina goa eta iraunkorragoa, bai mundu osorako eta baita ere gure ingurunerako.

1 Carlos Gómez Gilek *Una visión panorámica de la cooperación descentralizada de las entidades locales. Reflexiones sobre su papel y su futuro* lanean dioen bezala, "Espainian dauden 10.000 biztanletik gorako 772 toki erakundeetatik bakarrik 228k onartu zuten betetzea PUEF/FEMPk 2006ko azken azterketan bidali zizkien datu-bilketarako fitxak".

Ana María Arriola

Euskadiko GGKEen
Koordinakundeko Lehendakaria

	1. SARRERA
11	1.1. Aurrekariak eta helburuak
12	1.2. Metodologia
	2. LANKIDETZA POLITIKAK EUSKADIKO AUTONOMI ERKIDEGOAN
17	2.1. Lankidetzaren deszentralizatuaren bilakaera eta egungo testuingurua
20	2.2. EAEko lankidetzako erakunde publikoak
	2.2.1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
	2.2.2. Foru Aldundiak
	2.2.3. Euskal Fondoak
	2.2.4. Udalak
26	2.3. Nola kudeatzen da laguntza
	2.3.1. Lankidetzaren zuzena
	2.3.2. Zeharkako lankidetzaren
31	2.4. Erakunde publikoek lankidetzara bideratzen duten zenbatekoa
	2.4.1. Nola neurtu erakundeek bideratutako garapenerako lankidetzara;
	Euskadiko GGKen Koordinakundearen proposamen bat
	2.4.2. Garapenerako lankidetzaren kopurua EAE
36	2.5. Nola banatzen da laguntza
	2.5.1. Lankidetzaren motak
	- Garapenerako lankidetzaren: proiektuak eta programak
	- Sentsibilizazioa eta garapenerako hezikuntza
	- Ekintza Humanitarioa
	2.5.2. Plangintza estrategikoa
	2.5.3. Lankidetzaren jomuga: Lehenbizi sektore geografikoak,
	sektore lehenbiziak eta biztanle onuradunak
50	2.6. Kalitate handiagoko lankidetzaren politiketarako
	- Koordinazioa
	- Koherentzia
	- Bideratzea
53	2.7. Gizartearen parte-hartzea
56	2.8. Genero ekitatearen aldeko konpromisoaren bilakaera euskal lankidetzan
57	2.9. Lankidetzaren Sailerik Giza Baliabideak
59	2.10. Garapenerako
63	3. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK
79	4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK
85	5. SIGLA
89	6. ERANSKINAK
91	I.- Erakundearen fitxak
165	II.- Koordinakundearen erakunde publikoek bidalitako gutuna
169	III.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren erakunde publikoek bidalitako gutuna
173	IV.- Erakundearen lankidetzaren arduradunek bidalitako galdetegia
183	V.- Erakundearen lankidetzaren arduradunek bidalitako posta elektronikoa
s	VI.- Garapenerako politikaren publikoaren koherentzia
s	VII.- Diru-laguntza publikoaren oinarri orokorrean irizpideak eta deialdiak

1.

SARRERA

1.1. AURREKARIAK ETA HELBURUAK

Tokiko erakundeek lankidetzaren deszentralizazioa izugarri garatu eta handitu da azken urteetan, bai Espainiako Estatuan eta bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Euskal erakundeek arauak, azpiegiturak, berariazko aurrekontu partidak eta diru-laguntzen deialdi publikoak onartu dituzte, besteak beste. Azken urte hauetan ikusi dugu aldaketa nabarmenak gertatu direla EAEko garapenerako lankidetzaren politiketan, bai araudiaren aldetik, bai aurrekontuen aldetik. Lehenago baliabideen hornitzaile huts zirenak orain garapenerako eragile bihurtu dira. Horixe da hain zuzen azterketa honen abiapuntua.

Espainiako Udalak eta Probintzien Federazioak aldian behin prozesatzen eta hedatzen ditu tokiko erakundeek Espainiako Estatuan gauzatutako lankidetzaren deszentralizatuaren datuak. Baina informazioa ez da oso zehatza eta, gainera, 10.000 biztanle baino gehiago dauzkaten tokiko erakundeek %30ak bakarrik ematen dituz datu horiek. Ondorioz, ez digute askorako balio EAEko erakundeek bultzatutako lankidetzaren errealitatea ezagutu nahi badugu.

Horregatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak uste dugu gaur eguneko egoera aztertzea eta, batez ere, ikustea zer bidetatik aurreratu daitekeen etorkizunean, oso gauza lagungarria gerta daitekeela bai arlo honetan lan egiten duten erakundeentzat, bai aztergai izan ditugun erakunde publikoentzat.

Beraz, EAEen egiten den lankidetzaren zati bat baino ez dugu aztertuko hemen, hain zuzen ere EAEko erakunde publikoek bultzatzen dutena. Azterketa horrekin eztabaida piztu nahi genuke udal mailatik bultzatutako nazioarteko lankidetzaren eta elkartasun politika berri baterako gidalerro nagusiak finkatzeari begira. Azterlan honen helburua da euskal lankidetzaren publikoaren ezaugarriak ezagutu eta erakustea, aztertuz nolako papera jokatu duten 2008tik 2010era bitartean —urte biak barne— euskal erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek).

Azterketa horrek bi zati ditu: lehena kuantitatiboa da, eta bertan jasotzen da zenbat diru bideratzen den benetan garapenerako lankidetzara eta nora doan laguntza hori. Bigarren zatian gogoeta egin nahi dugu laguntza horren kalitate, koordinazio eta osagarritasunaz.

Bestalde, azterketa honetan proposamen batzuk ere egiten ditugu, Euskadiko GGKEen ustez funtsezkoak direnak Euskadiko erakundeek etorkizunean garatzeko.

1.2. METODOLOGIA

Azterketa hau egiteko asmoa 2011ko urte hasieran sortu zen, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta Plataforma 2015 y más plataformak² une hartan elkarrekin sinatu zuten lankidetzat hitzarmenaren ondorioz, errotik sinesten baitugu jakintza sortzea funtsezkoa dela garapen arloko eragileen erabaki-hartzearen norabidea finkatzeko.

EAEko 72 erakunde publiko aztertu dira guztira:

- Lankidetzarako Euskal Agentzia;
- EAEko hiru foru aldundiak;
- 5.000 biztanle baino gehiagoko herriak;
- 5.000 biztanle baino gutxiagoko herriak, baina azkeneko hiru urteetan deialdiren bat egin dutenak.

Datuak biltzerakoan, udaletako lankidetzarako aurrekontu partiden kudeaketaz arduratzen diren langileak izan dira gure zuzeneko informazio-iturri nagusiak. Era berean, 2008., 2009. eta 2010. urteko Aldizkari Ofizialean argitaraturiko lankidetzarako diru-laguntza deialdien oinarriak aztertu dira. Azterketa hau bukatzerantz gindoazenean bagenekizkienez EAEko erakunde publiko nagusien aurrekontu aurreikuspenak 2012rako³, erabaki dugu datu hori ere sartzeari lankidetzara bideratutako diru-kopurua aztertzean.

Euskal Fondoak berak eman dizkigu erakundeari egindako ekarpenei dagozkien datuak eta udal bakoitzak eskainitako datuekin alderatu ditugu.

Hauxe izan da prozesua:

- harremanetan jarri ginen Euskal Fondoarekin (Euskadiko Tokiko Lankidetzarako Erakunde Elkarte-Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes) eta Lankidetzarako Euskal Agentziarekin ikerketa hau⁴ egin behar genuela jakinarazteko;
- ikerturiko erakunde bakoitzak galdera sorta⁵ bat jaso zuen. Bertan, ikerketarako funtsezkoak ziren datuak⁶ eskatu zitzaizkien. Horren harira, kolaborazio handiagoa espero genuen aipatu erakundeen aldetik; horietako batzuek ez dute galdera-sorta erantzun, ezta zuzenean telefonoz eskatu zaienean ere. Gainera, galdera-sorta erantzun duten erakunde publiko gehienek, ez dute eskatutako informazio guztia eman.
- ondoren, informazioa bildu eta gero, berriro bidali zitzaizkien argitaratzeko prestatutako fitxak eta aste bateko epea eman zitzaizen berrikusteko eta beharrezko balitz, datuak zuzentzeko.

2 *Plataforma 2015 y más plataformak* 17 GKE aurrerakoi biltzen ditu, denak ere Milurtekoko Garapen Helburuak betearazi beharrez elkartuak.

3 Eusko Jaurlaritza, EAEko hiru hiriburu eta udalak eta EAEko hiru foru aldundiak.

4 Vid. eskutitza III. Eranskinean.

5 Vid. galdetegia IV. Eranskinean.

6 Vid. erakundeetako lankidetzarako arduradunei bidalitako posta elektronikoa (V. eranskina).

Datu horiek eskuan, erakunde publiko bakoitzaren datu guztiak biltzen dituen fitxa bat sartu dugu, datuak azkar kontsultatu ahal izateko.

Azkenik, hona hemen ohar batzuk argitaraturiko datuak aukeratzeko irizpideei eta erabilitako metodologiari buruz:

- datuak biltzean izan ditugun arazo gehienek arrazoia izan da aztertutako herri gehienek ez diotela ematen FEMPri (Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioa) honek bere urteroko txostena egiteko eskatzen dizkien datuak eta ez dituztela publiko egiten beren deialdietako ebazpenak.
- batzuetan, inkestetan jasotako informazioetan inkoherentziak ikusi ditugu (informazio hutsuneak, zuzenean kudeatutako lankidetzaren diru-zenbatekoak ez agertzea, e.a.), eta erabaki dugu hutsune horiek beste iturri batzuekin osatu eta zuzentzea, dela ebazpen ofizialak errebisatuz (argitaratuta zeudenean), dela administrazio batzuetako teknikariei zuzenean galdetuz. Ahalegin hori gorabehera, baina, datu batzuk ezin izan ditugu lortu eta informazio hutsune bat ohartu dugun bakoitzean esaldi hau jarri dugu fitxetan: "erakundeak helarazi gabeko datua".
- erakunde bakoitzak lankidetzara bideratzen duen aurrekontu kopuruaren atalean, erreferentziatza hartu dugu erakunde horien aurrekontu oso bateratua⁷ (erakundearen aurrekontu osoa, organismo autonomoena barne hartuta); Azkenik, konparazioa egitean aurrekontu osoa hartu dugu erreferentziatza, oso erakunde gutxiak jakinarazi baitute beren aurrekontu bateratuaren zenbatekoa.
- irizpideak bateratze aldera, "lankidetzarako aurrekontuko partidaren zenbatekoa atalean" Euskal Fondoari eginiko ekarpena sartu da, bazkide-kuota kontuan hartuta.
- banaketa sektorial eta geografikoari dagokionez, nola udalek informazio hori sistematizatzeko era asko eta oso ezberdinak dituzten, erabaki dugu irizpideak bateratzea eta formula propio bat sortzea. Hegoaldeko garapen proiektuetarako partidak desglosatu ditugu oinarritzat harturik gune geografikoak, populazio onuraduna eta sektoreak.

Dena den, kontuan izan behar da esku artean dauzkagun datuak aurrekontuetatik lortu direla eta, sarritan, aurrekontuetako kopuruek ez daukatela zerikusirik onartzen denarekin edo azkenean ordaintzen denarekin.

Azterketa hau ez da mugatzen datuetara eta azterketa kuantitatibora. Saiatu gara aztertzen nola gauzatzen diren lankidetzak politikak, euren motak, koordinazioa eta koherentzia, parte-hartzea eta lankidetzaren kalitatearekin zerikusia duten beste hainbat alderdi, gure ustez lankidetzara bideratzen den diru-kopurua bezain garrantzitsuak direnak.

Horretarako, aztertu egin ditugu erakunde publikoen plan zuzendariak eta memoriak, egiten dituzten deialdien oinarriak eta, baita ere, Euskadiko GGKEen Koordinakunde bezala erakundeek bultzatutako prozesu horietan guztietan azken urte hauetan egin ditugun ekarpen guztiak. Horrez gain, elkarriketatatu egin ditugu beren ibilbidearengatik eta euskal lankidetzak deszentralizatuaren arloan pilatu duten esperientziagatik gure ustez zeresan handia duten hainbat pertsona.⁸

7 Hiru foru aldundiak dira salbuespenak, diru-laguntzari buruzko 2.4. atalean azalduko dugun bezala, erakunde zerga-biltzailea izaki, aurrekontu bateratuaren irizpidea aplikatu baitugu.

8 Juanma Balerdi (Euskal Fondo); Aitor Gabilondo (Gasteizko Udaleko Lankidetzak Zerbitzua), Miguel Pérez eta Aitziber Fenández (Bilboko Udala), Marta Ares Godoy (Lankidetzarako Euskal Agentzia) eta Michel Sabalza (Hegoa).

2.

LANKIDETZA POLITIKAK
EUSKADIKO AUTONOMI
ERKIDEGOAN

2.1. LANKIDETZA DESZENTRALIZATUAREN BILAKAERA ETA EGUNGO TESTUINGURUA

Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Antolakundearen (LGEA) arabera, Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) esaten zaie herrialde garatuek garapen bideetan daudenetara bideratzen dituzten baliabide publikoei. Dohaintza oso edo partzial bezala ematen dira eta helburutzat dute herrialde horietako hiritarren garapen ekonomikoa eta bizi-kalitatea hobetzea.

Lankidetza deszentralizatua administrazio deszentralizatuetatik bideratzen den GLO zatia da, hau da, autonomia erkidegoetako gobernuek, foru aldundiek eta udalek ematen dutena.

Lankidetza deszentralizatua sortu zen argi zegoelako garapenerako lankidetza ez dela gobernuen, gobernu erakundeen edo estatu-arteko erakundeen erantzukizun edo pribilegio eskusiboa; gizarte zibila eta erakunde autonomiko zein udal erakundeak ere Hegoaldearekiko elkartasun eragile izan daitezke eta izan behar dute, oinarritzat harturik hiritarrekin daukaten konpromisoa eta lan irizpide propioak definitzeko askatasuna⁹.

Lankidetza deszentralizatuaren ezaugarri nagusia da gizarte zibilak aldarrikatu, zehaztu eta kudeatu duela lankidetza hori, izan ere, hiritarrak hurbilago daude erakunde horietatik¹⁰ eta beren papera funtsezkoa izan da lankidetza mota hori hedatzeko.

Lankidetza deszentralizatua izan da Espainiako Estatuan egin den garapenerako lankidetzaren ezaugarri bereizgarrietako bat, gainerako herrialde emaleetako lankidetzaren aldean. Izaera hori Espainiako lankidetza sistemarekiko paraleloan garatu eta finkatu da, eta beste herrialde emaleetan ikusten ez den bezalako maila –kuantitatiboki nola kualitatiboki– iritsi du, zifrek frogatzen duten bezala. Zoritxarrez, krisi ekonomikoaren ondorioz errealitate hori une honetan ez da lehengo bera.

Autonomi erkidegoek 2008ra arte lankidetzara bideratutako diru kopurua aurreko urteetako erritmo berean hazi zen, guztira, 464,71 milioi euro erabili zutelarik helburu horretarako, hau da, Garapenerako Laguntza Ofizial osoaren %9,76. Murrizketak 2009an hasi ziren, eta 2011n laguntzarako dirua 342 milioira jaitsi zen¹¹, 2010eko kopurua baino %12 gutxiago alegia, garai horretan bertan autonomi erkidegoen aurrekontuak %4 baizik ez zirelarik murriztu¹².

Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioak bildutako datuen arabera, udalek 2008an lankidetzara bideratutako diru kopurua GLO osoaren %3,12 izan zen, hots, 2007ko laguntza baino %22,45 gehiago¹³. 2009an joera hori aldatzen hasi zen eta geroztik lankidetzara bideratutako dirua etengabe murriztuz joan da, harik eta lau urteko epean murrizketa guztiak 52 milioi eurora iritsi diren arte, %35eko murrizketa garbia beraz.

2011. urtean Espainiako lankidetza osoaren barruan autonomi erkidegoen lankidetza %8 izan zen, 2008an ia %10 izan ondoren. Guztira, autonomi erkidegoen eta toki erakundeen lankidetza GLOren %11,4 izan da.

9 Hainbat autore (2001), *Municipalismo y Solidaridad: Guía sobre la cooperación descentralizada*, Cooperación Municipal al Desarrollo Bilduma 5. zk, CONFOCOS, Bartzelona.


10 CONGDE (2006), AOD hoy. Discurso y realidad, Madril.

11 CONGDE (2012), *Análisis de la Ayuda Oficial al Desarrollo de las Comunidades Autónomas y Entes Locales para 2012*, Madril.

12 Azterten bada Autonomi Erkidegoek beren aurrekontuetatik zenbateko portzentajea bideratzen duten Garapenerako Laguntza Ofizialera, ageri da 2011n portzentaje handiena Euskadik (%0,49) eta Nafarroak (%0,43) erabili zutela. Gaztela-Mantxan jaitsiera gogor bat gertatu zen urte bukaeran (44 milioitik 15 milioira), Autonomi Erkidego konprometituenetako bat izan zena kolpez azken postuetara igaro zelarik. Gainerako erkidegoei dagokionez, 17 erkidegoetatik 10ek beren aurrekontuen %0,2 baino gutxiago bideratzen dute lankidetzara, eta beste lauk % 0,2%-%0,4 bitartean.

13 Atzerriko Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa Informe de Seguimiento del Plan Anual de Cooperación Internacional PACI 2008, http://www.maec.es/es/MenuPpal/CooperacionInternacional/Publicacionesydocumentacion/Paginas/publicaciones_cooperacion.aspx

AUTONOMI ERKIDEGOEK LANKIDETZARA BIDERATUTAKO ZENBATEKOAREN BILAKAERA



Iturria: Geuk egindakoa Espainiako GGKEen Koordinakundeak argitaratutako datuetan oinarrituta

Zenbateko horiek argi erakusten dute krisiaren aitzakiarekin gero eta gehiago ahultzen ari dela autonomia erkidegoek eta udalek 90.eko hamarkadaz geroztik aurrera daramaten elkartasuneko politika publikoa.

EAEko lankidetzaren ereduak gutxi sortutako mugimendua da. Kontuan izan behar da Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Funtsak ez zutela Espainiako Estatuak garatutzat hartu 1981. urtera arte. Hortik aurrera, laguntza-hartzaile izatetik laguntza-emaile izatera pasa zen.

Hain zuzen ere, orduan aurrera hasi ziren gobernuko zein gobernukoak ez ziren esparruetako lankidetzarako ekintzak. 1988an AECID sortu zen (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia) eta 1990ean berriz Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Funtsa (GLSF), gaztelaraz FOCAD bezala ezagutzen den Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Azken honen programak bildu zuen urte hartako laguntza autonomiko osoaren %55a. Funts hau, ordurako existitzen ziren hainbat GKEk eta Eusko Jaurlaritzak adostutako akordioaren bitartez sortu zen, eta horrela EAEtik bidalitako laguntza ofizialak formalizatu ziren.

Nabarmenezkoa da ituna sinatzearekin batera, EAEko udalek ere bat egin zutela lankidetzaren deszentralizatuarekin; Gasteiz eta Ordizia izan ziren % 0,7ko laguntza ematea onartu zuten lehenak. Konpromiso horren fruitu bezala sortu zen 1996an Euskal Fondoa.

Garapenerako lankidetzarako funtsak sortzeko bultzada instituzional hori eman zen garai bertsuan hasi ziren lanean aurreneko GGKE laikoak, lan esparrutzat zutelarik batez ere Saharako Errepublikaren Demokratikoa (SEAD-RASD), Nikaraguako iraultza, Guatemalako indigenen arazoak eta El Salvadorreko gatazka. Eliza katolikoak eta euskal misiolariak toki horietan aspalditik egiten ari ziren lanaren gehigarri bat izan zen GGKE horien ekarpena. Ekimen horiei guztiei esker garai batean euskal lankidetzaren Europako beste edozein eskualdetakoa baino indartsuagoa izan zen, lankidetzaren deszentralizatuaren erreferente bihurtzeraino.

Une honetan esan liteke lankidetzarako euskal politika heldutasunera heldu dela bi urrats mugarririk esker: Lankidetzaren Euskal Legearen onespena¹⁴ eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrera.

Bilakaera hori garapenerako lankidetzaren kontzeptuan bertan islatu da. Pobreziaren aurkako borrokan ikuspegi aldaketa bat gertatu da, 80ko hamarkada hondarrean hasi zena: ondasunen ekoizpena bezala ulertutako hazkunde ekonomikoan oinarritutako garapen kontzeptu batetik prozesuei lagun-

14 Otsailaren 22ko 1/2007 Legea, Garapenerako Lankidetzakoa, 2007ko martxoaren 8ko EHAO.

tzera eta pertsonen gaitasunetan oinarritzera igaro da (giza garapen jasangarria). Giza garapenaren ikuspegi horretatik berebiziko garrantzia ematen zaio prozesuaren funtsezko osagai diren zeharkako hiru gauzari: genero ekitatea, ingurunearen errespetua eta giza eskubideen sustapena.

2.2. EUSKAL LANKIDETZAREN ERAKUNDE PUBLIKOAK

Aurreko kapituluaz azaldu dugu euskal lankidetzaren politikak izan duen bilakaera gaur eguneko heldutasuneraino iritsi arte. Ondoko lerroetan xehekiago deskribatuko dugu EAEko erakunde publiko emaile bakoitza.

Eusko Jaurlaritzaren erakundeak

Gorago esan dugun bezala, euskal lankidetzaren politika GLSF sortu zenean hasi zen. Garai hartan euskal gizartearen eta GKEen erakunde deszentralizatuak eskatzen hasi ziren erabil zezatela beren aurrekontuen %0,7 lankidetzaren lanetan. Geroztik euskal lankidetzaren garatze eta sendotze joan da, harik eta 2010ean Lankidetzarako Euskal Agentzia sortu zen arte.

GLSF 90.eko hamarkadaren erdialdean hasi zen finkatzen, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa hartu zuenean aurrekontu operatiboaren %0,7aren helburua lortzeko, eta Kanpo Ekintzako Idazkaritzaren menpeko Lankidetzaren Zuzendaritza sortu zenean GLSFaren kudeatzeko, ordura arte zeregin horren ardura izana zuen Batzorde Kudeatzaile eta Teknikoaren ikuskaritzapean. Garai hartan izan zituen bere ezaugarriak: eztabaida gogorak egon ziren argitzeko enpresak lankidetzaren aktore bezala onartu behar ziren ala ez, euskal lankidetzaren ofiziala lotuegi egon zen euskal diasporaren hartzaile izandako herrialdeekin¹⁵, Garapenerako Lankidetzaren Aholku Kontseilua sortu zen aholkularitzaren organo kolegiatu bezala (1998), eta foru aldundiak denborarekin GLSFetik irten ziren.

1/2007 Garapenerako Lankidetzaren Legea mugari gertatu zen Eusko Jaurlaritzaren bultzatutako lankidetzaren politikan. Kalitatezko garapenerako lankidetzaren egiteko erreferentziatzeko esparru bat edukitzea errebindikazio historikoa izan zen Euskadiko GGKEen Koordinakundean bildutako GGKEen mugimendu sozialarentzat. Hona hemen lege horretan jasota dauden zenbait gauza garrantzitsuak: erakundearen arteko koordinazio-organismoak sortzeko asmoa, Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzea kudeaketaren organo zentrala izateko, eta Lankidetzarako Euskal Kontseilu berria, ordura arteko Aholku Kontseilu ez hain eraginkorraren tokia betetzeko. Lehen aldiz, gainera, 2012an konpromisoa zehatza hartu zen lankidetzaren bideratzeko aurrekontuaren %0,7. Lankidetzarako lege autonomikoa onartu zen garai berean aurrerapauso nabarmenak eman ziren Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren arloko politikan, plangintza bat onartu baitzen 2005-2008 eta 2008-2011¹⁶ Plan Estrategiko eta Zuzendariekin. Bigarren Plan Zuzendariak hobekuntza nabarmena ekarri zuen lehenbizikoaren aldean, zeharkako lerroak¹⁷ sartu baitziren eta genero ekitatearen aldeko apustua egin baitzen.

Esan dugunez, Garapenerako Lankidetzaren buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen Azken Xedapenen artetik Lehenengoaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia arduratuko da garapenerako lankidetzaren arloko politikaren plangintza egiteaz eta politika hori koordinatu, kudeatu eta egikaritzeaz. Aurreikuspen hori betetzeko, ekainaren 19ko 5/2008 Legearen bidez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen da, garapenerako politikaren plangintza prestatzeaz arduratuko den erakunde publikoa izan dadin, baita politika hori koordinatu, kudeatu eta egikaritzeaz arduratu dadin ere. Garapenerako politikaren helburua, bestalde, pobrezia aurka borrokatzea eta garatze-bidean diren herrialdeetan giza garapen iraunkorra sustatzea izango da.

15 Alberdi, Jokin eta Viadero, María (2011), *La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas*, Hegoa, Bilbo.

16 Une honetan beste Plan Estrategiko eta Zuzendari bat prestatzen ari dira.

17 Tokiko gaitasunak, parte-hartze eta antolaketa, genero ekitatea, giza eskubideak, iraunkortasun ekologikoa.

Lege horren bidez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Institutuzionalaren barruan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren izaera juridikoarekin¹⁸.

Agentzia sortzearekin berritu egin da baita ere Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren osaketa eta funtzionamendua: tresna bizkorragoa bihurtu da eta zeregin zehatzak eman zaizkio.

Foru Aldundiak

Foru aldundiek hasieratik bertatik parte hartu dute euskal lankidetzaren deszentralizatuaren politikan.

GLSF 1990an sortu zenean, dirua erdi bana jartzen zuten Eusko Jaurlaritzak alde batetik eta hiru foru aldundiek bestetik; azkenen ekarpena EAEko gastu guztiak ordaintzeko finkatutako koefizientearen arabera egiten zena.

Hori da foru lankidetzaren hastapena, eta harrezkero eta etenik gabe lankidetzarako aurrekontua eduki du. Hala ere, aldundiek lankidetzari emandako laguntzak ez du eskema berbera izan kasu guztietan. Horrela, Arabako Foru Aldundiak une batzuetan GLSFri ordaindutakoa eta garapenerako laguntzetarako bere deialdiak uztartu dituen bitartean, beste aldundi biek lankidetzarako aurrekontu osoak aipatu Funtsera bideratu zituzten handik atera ziren arte. Azken hori zenbait urtetan gertatu zen, baina 2004az geroztik, Gipuzkoako Foru Aldudia GLSFtik ateratzen denean, hiru aldundiek aldi berean bere egiten dituzte euren lankidetzaren aurrekontuak osorik euren deialdien bidez.

Ez du ematen bere hatapenetatik foru lankidetzak 2008 arte bere zereginen aldaketa kualitatibo garrantzitsurik ekarri duen mugarririk ezarri duenik, proiektuak hautatzeko aldundien euren definitutako irizpideak erabiliz egindako deialdiak izan ezik. Beraz, ondorio garrantzitsuetako bat da egun arte ez dela egon aldundietan adostutako edo zehaztutako lankidetzako politikarik egon.

2007an aldaketa garrantzitsua gertatu zen, Batzar Nagusietarako hauteskundeen ondoren, hiru aldundietan lankidetzaren zuzendaitzak eratzen direnean, lankidetzaren maila foru ekintzaren osotasunaren barruan igoz eta batez ere lurralde historikoen ezaugarriei egokitutako lankidetzako politikak diseinatzeko bitartekoak emanez.

Hortik, eta hiru aldundien lankidetzaren arteko antzekotasunengatik, elementu komunak dauzkanez lankidetzako politika abiarazteko erabakia hartu zuten, zeinek aldi berean aplikatzerakoan lurralde bakoitzaren autonomia gordetzen uzten baitu¹⁹. Plan zuzentzailea 2009. urtean onartu zen.

Euskadiko GGKen Koordinakundean ohartu ginen Planak aukera bikaina eskaintzen zigula hain beharrezkoa den plangintza egitea baita erakunde-arteko koordinazioan aurrera egiteko ere eta, batez ere, lankidetzako eragile nagusi garen GGKEok geure lana eraginkortasunez egiteko ditugun arazoak konpondu ahal izateko. Horregatik, Koordinakundea hasieratik inplikatu zen plangintza prozesuan, hainbat dokumentu aurkeztuz.

Halere, badirudi une honetan koordinazio hori berririo desagertu behar dela, aldundiek adierazi baitute ez daukatela asmorik beste plan zuzendari bateratu batean parte hartzeko.

Euskal Fondoa

80ko hamarkadatik aurrera, hainbat udal lankidetzaren esperientzia gauzatu ziren Espainian. Ekimenak aztertu eta horien inguruko gogoeta egin ondoren, tokiko erakundeek argi ikusi zuten udalez gaindiko koordinazioa bideratzeko erakundeak sortu behar zirela, egindako lana optimizatu ahal izateko.

18. Une honetan (2011. urte amaieran) ahaleginak egiten ari dira lankidetzarako Euskal Agentzia (2010. urte hondarrean ofizialki sortua) martxan jartzeko, atzerapen handiarekin badere. Organismo autonomo horrek oraindik ez ditu gainditu lana egoki egiteko behar dituen baliabideak ez izateak dakartzion arazoak.

19. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiak (2009), Garapenerako Lankidetzako gida plana 2009-2011.

Funtsak udal erakundeen arteko koordinazio gune bezala sortu ziren, bikoiztasunak eta inefizientziak saihesteko. Zentzu horretan, udalen ekimen solidarioak koordinatzeko tresna administratibo eta tekniko eraginkorra dira.

Lankidetzak funts bat irabazi asmorik gabeko organismo bat da, zeinak udalak eta bestelako erakunde publiko zein pribatuak biltzen eta koordinatzen baititu. Helburutzat dauka funts ekonomiko bat sortzea herrialde pobretuen garapenari ekarpenak egiteko eta setsibilizazio kanpainak gauzatzeko Ipar-Hegoko herrien arteko aberastasun banaketan desoreka eragiten duten zergatien inguruan. Funtsek oro har elkarte baten forma juridikoa izaten dute (partzuergo formatea ere har dezaketen arren)²⁰.

Udal batek bultzatutako lankidetzak daukan arrisku handienetako bat atomizazioa da, hots, denboran eta espazioan barreiatutako ahalegin txiki mordo bat pilatzea. Batzuetan proiektu txiki asko jartzen dira martxan, zatikakoak askotan, elkarrengandik urrun kokatutako gune geografikoetan eta iraupen laburrekoak. Lan-molde hori ez da seguruenik bide egokiena lankidetzak iraunkorra eta etengabe ebaluatu eta berbideratua egiteko. Beste arrisku bat da gehiegizko ardurak hartzea eta ez izatea ez gaitasunik ez baliabiderik ardura horiei egoki erantzuteko. Lankidetzak ona egiteko ezinbestekoa da teknikari gaituak edukitzea proiektuak baloratu eta aukeratzeko, bai eta gaitasuna izatea proiektu horien jarraipena egiteko eta etengabe hausnartzeko zer lankidetzak lan egin behar den udal mailatik. Lankidetzak funtsak hasieratik bertatik saiatu dira zailtasun eta arrisku horiek gaingiditzen.

Udal lankidetzak funtsak dira Espainiako lankidetzak deszentralizatuaren formularik orijinalena, ez baitaukate erreferenterik Europako beste herrialdeetan. Udal funtsak lankidetzak suspertu dute eta, aldi berean, lankidetzarako bide propioak eskaini dizkiete udalerri txikiagoei. Erakundeak iraun zezan beharrezko zen euskarria, berriz, udal handien eta foru aldundien arteko lankidetzatik lortu da. Hala ere, emaila handiek gehienetan lankidetzak programa propioak mantentzen dituzte, Funtsak baztertuz²¹.

Euskal Fondoa 1996an sortu zen, EAEko lankidetzak deszentralizatua koordinatzeko eta laguntzeko tresna modura. Horrela, erakundeekin, elkarte sozialetan eta Hegoaldeko komunitateekin elkartasunezko harremanak garatzeko martxan zeuden esperientziak biltzen hasi zen erakundea.

Helburu nagusitzat dauzka garapenerako nazioarteko lankidetzako ekimenak sustatzea, babestea eta koordinatzea, bereziki euskal instituzioek eta tokiko erakundeek gauzatzen dituztenak eta baita ere hiritarren parte-hartzea eta gai horien inguruko gogoeta suspertzea²². Aipatzekoa da lankidetzak koordinatzeko eta artikulatzeko egiten duen lana. Ahalegin hori islatuta geratzen da esperientzietan (Sahararen aldeko Koordinazio Unitatea), Hegoaldeko herrialdeekin gauzatutako lankidetzak proiektu mankomunatuetan, tokiko erakundeetan presentzia daukaten alderdi politiko guztiak integratzen dituen foroan, udal edo foru lankidetzak politikei buruz ematen duen aholkularitzan, beste erakunde batzuekin koordinatzeko egiten duen lanean, eta abarretan.

Koordinazio ahalegin horrek eman duen beste fruitu bat dugu EUDEL-Euskadiko Udalerrien Elkartearekin sinatu den lankidetzak hitzarmena, garapenerako lankidetzak arloan euskal toki erakundeek martxan jartzen dituzten ekintzen koordinazio eta osagarritasuna errazteko.

Guztira 96 tokiko erakunde biltzen ditu eta, beraz, EAEko biztanleen %80 baino gehiago ordezkatzeko ditu.

Iragan urte hauetan Euskal Fondoa organo politiko anitza izan da, indar politikoen korrelaziotik aparte lanean aritu dena inongo alderdi politikorekiko menpekotasunik gabe (ez baita berdin gertatu Estatuko beste lankidetzak funts batzuekin). Euskal Fondoak tinko eutsi dio koordinazio lanari eta eginahalean saihestu ditu lankidetzari eraginkortasuna kentzen dioten era guztietako barriadurak (geografikoa, sektorialak, e.a.)²³.

20 Hainbat egile (2001), *Municipalismo y Solidaridad: Guía sobre la cooperación descentralizada*, Cooperación Municipal al Desarrollo Bilduma 5. zk, CONFOCOS, Bartzelona.

21 González Parada, Jose Ramón (2005), *Corporaciones Locales y Cooperación al Desarrollo*, Fondo Extremeño Local de Cooperación al Desarrollo FELCODE, Badajoz.

22 www.euskalfondoa.org

23 Estatuko beste lankidetzak funts batzuk lankidetzak agentzia txikiak bihurtu dira, deialdi propioak egiten dituztenak.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak begi onez ikusten du Euskal Fondoak egiten duen koordinazio lana eta arestian aipatutako muga eta arriskuei erantzuteko erakutsi duen gaitasuna. Elkarrekin elkarriaz arina darabilte elkarren artean. Koordinakundeak azken urteotan hainbat proposamen aurkeztu ditu, esaterako udalen lankidetzak kalkulatzeko irizpideak finkatzea, edo udalerri ertain-txikiek egiten dituzten diru-laguntza deialdi publikoetako oinarriak bateratzea. Bestalde, lankidetzarako Euskal Kontseiluan parte hartuz, Euskal Fondoak oso ekarpen garrantzitsua egiten dio lankidetzarako eragile ordezkaritza-organismo nagusi den Euskal Kontseilu horri.

Udalak

Udala da hiritarrek beren erantzukizun demokratikoetan parte hartzeko duten bide zuzen eta hurbilekoena. Erantzukizun horietako bat da elkartasuneko politikak eskatzea eta horiekiko konpromisoa hartzea. Tokiko erakundeek, jendearengandik hurbilen dauden instituzioak diren aldetik, gizarte zibilean sortutako eskaera horiei erantzun behar diete.

Carlos Gómez Gilen esanetan, "lankidetzak deszentralizatuaren ezaugarri erakargarrienetako bat da udalerriak lankidetzak solidarioetako duen gaitasun egokia islatzen duela"²⁴. Egokiak dira, besteak beste, "GKEak eta tokiko elkarrekin ekintza sozial handietan inplikatzeko gai direlako, zeregin hauetarako baliabideak lortzea bideratzen dutelako; eta, aldi berean, eskala txikiko bere egitura sozial eta ekonomikotik abiatuta, aukera ematen dutelako udalerri bakoitzaren ezaugarri bereziak islatzen dituzten ekimenak martxan jartzeko, berehalako eraginkortasun maila handia duten proposamen eta programen bidez".

Udalerriko politikei tokiko ekimenak babestu, ahalegin horiek koordinatu eta lpar-Hego arteko berdintasun handiagoaren inguruan sentsibilizatu behar dute. Udalerria, beraz, toki egokia da aurrez aipaturiko lankidetzak deszentralizatu hori burutzeko: ez dauka loturarik presio politiko handiekin edo interes komertzialekin eta garapen iraunkorra bultzatzen du hainbat ikuspuntutatik: ekonomikoa, politikoa, gizartea, ingurumena...²⁵

Nolanahi ere, kontuan izan behar da udalerrietan biztanle kopuru desberdinak daudela eta, beraz, ezinezkoa dela talde homogeneoa balira bezala hitz egitea; udalerri handi eta txikien arteko bereizketak ere behar da²⁶. Ondorioz, udalbatzen garapenerako lankidetzak ekimenak oso heterogeneoak dira.

Erabiltzen duten baliabide kopuru handia ikusita, udalerri handiek eta aldundiek ere EAEkoaren antzeko erakunde esparrua eta lankidetzak politika eduki beharko lituzkete, baina pixka bat txikiagoak.

Udal batzuek badituzte lankidetzako Zerbitzu edo Zinegotzigoak, aurrekontuko partida bereziak, lankidetzarako udal kontseiluak, lehentasun geografiko eta sektorialak, GKEen urtebeteko nahiz urte zenbaiteko proiektuetarako diru-laguntza deialdi publikoak, eta baita ere zuzeneko lankidetzaren esparruan izandako esperientziak. Bestalde, lankidetzak gaitan espezializatutako giza baliabidez hornitu dira eta langile horiei esker gauza izan dira lankidetzak lana aurrera eramateko. EAEko hiru hiriburuetako udalek baliabide horiek guztiak badauzkate, baina bakoitzak bere bilakaera berezia izan du.

Gasteizko Udala

Udal mailako lankidetzak hitz egitean ezinbestekoa da Gasteizko Udala aipatzea, aitzindaria izan baita bai zeregin horretarako bideratutako diru kopuruetan²⁷, bai lankidetzak politikari nortasun propioa emateko.

²⁴ Gómez Gil, Carlos (2001), *La Cooperación Descentralizada en España: ¿motor de cambio o espacio de incertidumbre?*, Bakeaz Koadernoak 46 zk., Bilbo.

²⁵ Hainbat egile (2001), *Municipalismo y Solidaridad: Guía sobre la cooperación descentralizada. Cooperación Municipal al Desarrollo* Bilduma 5. zk., CONFOCOS, Bartzelona.

²⁶ Udalerri txikiak aipatzen ditugunean, 5.000 biztanle baino gutxiago dituztenek ari gara.

²⁷ Gasteiz izan zen Espainiako Estatuko lehen udala bere aurrekontuaren %0,7 garapenerako lankidetzarako bideratu zuena 1988an. Gero,

teko garaian, helburu horrekin sortu baitzuen 1992an, Udalaren organigrama barruan, arlo espezifiko bat: Lankidetzak Zerbitzua. Gasteiz erreferentea izan da, baita ere, lankidetzak tresnak garatzeko langintzan, bera izan baitzen lehen udala hainbat urtetarako lankidetzak eta sentsibilizazio proiektuak sustatzen hasi zena. Aipagarria da, baita ere, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa bere politikaren oinarrian jartzeko Gasteizko Udalak agertu duen borondate irmoa. Aitzindari izan da, halaber, lankidetzak arloan genero ikuspegia txertatzen, azken hamarkadan hainbat ekimen bultzatu dituelarik gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lankidetzaren bidez sustatzeko. EAEko hiru hiriburuetatik Gasteiz izan zen lehena Lankidetzako Udal Kontseilua sortu zuena 1998an. Halere, 2010. urtera arte itxaron behar izan du Gasteizek Lankidetzako Plan Zuzendari bat izateko. Urte horretan bertan Pobreziaren Aurkako Ituna sinatu zuen Euskadiko GGKEen Koordinakundearen proposamenez.

Zoritxarrez, txosten hau egiten ari garen unean Gasteizko egoera zeharo aldatu da, udalbatza berria deliberatua baitago lankidetzako partidak osorik ezabatzerako, urte hauetan guztietan egindako lanaren kaltetan..

Donostiako Udala

Donostiako Udalaren lankidetzak arloko lehenbiziko ekimenak 80. hamarkada hondarrean abiatu ziren herri sahararrekiko elkartzasunez, Bojadorko dairarekiko senidetzea izan zelarik bide horretan eman zen lehen urratsa. 1997an Lankidetzak Akordio bat sinatu zen Bosniako Gorazde hiriarekin. 1994an formalki sortu zen Lankidetzak eta Tolerantziako Negoziatua, geroago Lankidetzakoa deituko zena. Udalaren lankidetzak arloko lehentasunezko lan-lerroak modu bateratuan finkatze aldera, Nondik Nora izeneko prozesu parte-hartzailea (2003-2005) jarri zen martxan erakunde guztiekin lankidetzan. Prozesu horren ondorioz lehentasuna eman zitzaion Lankidetzako Aholku Kontseilua eratzeari eta 2008-2011 Plan Zuzendariaren bidez udal politikaren lerro estrategikoak finkatzeari. Une honetan (2011. urte amaieran) Donostiako Udala buru-belarri ari da ebaluatzen eta prestatzen Lankidetzak eta Garapenerako Hezkuntzako II. Plan Zuzendaria. Aipagarria da, baita ere, Donostiako Udalak Pobreziaren Aurkako Ituna sinatu zuela 2010ean, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen proposamenez.

Bilboko Udala

Bilboko Udalak 1995ean sortu zuen lankidetzarako partidak bere aurrekontuan. 2001ean garapenerako lankidetzak arloko diru-laguntzen araudia onartu zen, eta urte horretan bertan hasi ziren emendatzen Bilboko Udalean lankidetzarako funtsak. Halere, Bilboko Udalaren lankidetzak politikaren inflexio-puntua 2003an etorri zen, Emakume eta Garapenerako Lankidetzak Arloa sortu zenean. 2004an Lankidetzarako Udal Kontseilua sortu zen eta 2006an onartu zen EAEko udal mailako lehen lankidetzarako Plan Zuzendaria, konpromisoa hartuz 2007tik aurrera lankidetzara bideratzeko gastu korronteen %0,7²⁸. 2010ean II. Plan Zuzendaria onartu zen eta langile gehiago esleitu zitzaizkion Lankidetzak Sailari. Nahiz eta zenbaki absolutuetan Bilbo izan Estatuko udal guztien arteko emaila handienetakoa bat²⁹, bera da Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bultzatutako Pobreziaren Aurkako Ituna sinatu gabe daukan EAEko hiriburu bakarra.

Beste udalerriak

Badira bestalde EAEko hiriburu ez diren gainerako udalerriak. Aztertu ditugun udaletan (5.000 biztanletik gorako guztietan) ikusi dugu ia guztiek daukatela, gutxi-asko, lankidetzarako partidak bana. 2010.

90eko hamarkadan, ehuneko hori %1era igo zuen.

28 Gastu korrontea: aurrekontuko 1-5. kapituluak.

29 PACIren Jarraipen Txostenaren arabera, Bartzelona, Zaragoza eta Bilbo izan ziren 2010ean Espainiako Estatuko udal emaila handienak zenbaki absolutuetan.

urtean denen artean 6.671.124,11 euro bideratu zuten lankidetzara, hau da, urte horretako garapenerako euskal laguntza ofizial osoaren %8,05.

Udal horietako asko Euskal Fondoko kide dira eta beren aurrekontuen zati bat funts horretara bideratzen dute. Udalerrri txikiek Euskal Fondoan parte hartzeaz gain diru-laguntza txikiak ematen dituzte, bakoitzak bere ahalmenaren arabera. Batzuetan deialdi publikoak egiten dituzte proiektuak onartzeko eta funtsak banatzeko. Aldiz, beste batzuetan, lankidetzarako partidako diruak banatzerakoan udalerrri batzuek ez dute egiten deialdi publikorik eta ez dituzte betetzen legeak agintzen dituen publizitate eta konkurrentzia libreko betekizunak. Eskura dauden baliabideak hain urriak direnez eta baliabide horiek zatikatzeko joera dagoenez, proiektuak oso txikiak eta puntualak izaten dira. Oro har, horrelako ekimenek nekez irauten dute luzaro eta oso eragin mugatua izaten dute. Horregatik hain zuzen udalerrri txiki asko udalaz gaundiko egituretan elkartzen dira (Euskal Fundoa). Udalerrri txikiek, edo kudeaketa ahalmen gutxiago dutenek, lankidetzara funtsetan parte hartzen duten heinean aukera gehiago egoten da gauzatzen den lankidetzara hain zatikatua ez izateko.

Bestalde, bada euskal udaletan behin eta berriro gertatzen den gauza bat (xehekiago aztertuko dugu aurrerago): lankidetzara politikak mota guztietako departamentuetan urtzen dira, batzuetan –kasu gehienetan– Gizarte Zerbitzueta departamenduen barruan³⁰. Ondorioz, udalerrri batzuk lankidetzara politika egituratuagoa landu duten bitartean, beste batzuek baliabideak hornitu besterik ez dute egin, modu gutxi-asko antolatuan.

Txosten hau prestatzen ari garen unean (2011) oraindik ez daukagu datu zehatzik jakiteko nolako eragina izaten ari den krisi ekonomikoak euskal udalerrietan, baina jadanik ikusi dugu lankidetzarako partida sakrifikatu egin dela udal batzuetako aurrekontuak prestatzerakoan. Horrek erakusten du politika publiko bat egiteko ez dela nahikoa izaten baliabideak hirugarren bati hornitzea (kasu honetan GGKE bati), hirugarren horrek egin dezan lankidetzara lana. Baita ere frogatzen du batzuetan elkartasuna plus bat bezala ulertu izan dela, onargarria bakarrik udalaren kutxan superabita dagoenean. Halere, aipagarria da nola, krisialdiaren ondorioz udalek dituzten estatusunak gorabehera, badiren oraindik elkartasuneko konpromisoan tinko dirautenak.

30 Aipagarria da Getxoko Udalak Lankidetzara Zerbitzu propio bat duela, Presidentzia Sailaren mende.

2.3. NOLA KUDEATZEN DA LAGUNTZA: LANKIDETZA ZUZENA ETA ZEHARKAKO LANKIDETZA

Lankidetzarako erabiltzen diren tresnen ugaritasuna eta lankidetzaren egiten edo bideratzen duten aktoreen aniztasuna da lankidetzaren deszentralizatuaren ezaugarrietako bat. Jarraian lankidetzaren kudeaketaz bertan dugu, bi multzo nagusi bereizita: zuzeneko lankidetzaren eta zeharkako lankidetzaren, Espainiako Udalak eta Probintzien Federazioak egiten duen definizioari jarraituz³¹.

Zuzeneko lankidetzaren

Herri Administrazioek lankidetzaren egiteko garatu duten modu bat da zuzeneko lankidetzaren deitzen dena; halere, zeharkako lankidetzaren esanahia buruz nola-halako adostasuna badago ere, zuzeneko lankidetzaren kontzeptuaren esanahia ez dago hain argi.

Zuzeneko lankidetzaren esaten denean ulertzen da lankidetzaren mota bat dela, zeinetan Iparraldeko tokiko erakundeek lankidetzaren-erakunde bat mantentzen duten herrialde bazkideetako tokiko gobernu edo erakunde publikoekin, erakunde horien bidez parte hartzen dutelarik nazioarteko lankidetzaren ekimen bat identifikatzeko edota gauzatzeko prozesuan. Zuzeneko lankidetzaren baliabideak transferitzen dira (ekonomikoak, ekipoak, jakintza edo aholkularitza) eta gehienetan lankidetzaren-ekimen horiek tokiko gobernuak garatutako politika publikoen esparruan kokatzen dira.

Garapenerako eta sentsibilizaziorako zuzeneko hezkuntza esaten denean ulertu behar da Iparraldeko tokiko erakundeek egiten edo ko-egiten duten zuzeneko garapen edota sentsibilizazio ekimena. Ekintza horiek beste garapen-eragile batzuekin koordinaturik egin daitezke, edo bestela tokiko gobernuak sartua dagoen sare baten bidez, baldin tokiko gobernuak modu aktiboan parte hartzen badu ekimenak identifikatu eta gauzatzeko lanean.

Zuzeneko lankidetzaren tresnak:

- **Senidetzeak:** 80.eko hamarkadan eta 90. hamarkadaren lehen urteetan asko zabaldu zen udalerrien arteko senidetzearen bidezko lankidetzaren. Senidetzeetan tokiko erakundeek (normalean udalerriek, baina baita ere eskualdeek, mankomunitateek, barrutiek eta abar) elkarren arteko erlazioak sortzen dituzte baloreak eta baliabideak partekatzeko asmoz. Senidetze horiek udalerri sinatutako protokolo batzuk izaten dira, eta protokolo horietan finkatzen dira lankidetzaren esparrua, printzipio inspiratzaileak, helburuak eta elkarlanerako arloak. Formatu hori erabilita udalerri batzuek nazioarteko lankidetzaren programak abiatu zituzten hurbil sentitzen zituzten zenbait herrialderekin, esaterako, herri saharararekin.

Hegoaldeko herriekin egiten diren senidetzeak lotura sinboliko bat baino zerbait gehiago izan behar dira, eduki ekonomiko bat izan behar dute, baliabideak transferitzeko tresna izan behar dira, esparru bat eskaintzen baitute lankidetzaren konpromiso iraunkorrak burutzeko.

Azken urteotan mantendu egin da, eta kasu batzuetan sendotu ere, kudeaketaren portzentaje bat tokiko edo lurraldeko administrazioaren zuzeneko ekintzarako bideratzeko joera. Hala, udalerri askotan hasierako senidetzeak oraindik ere eragina izaten jarraitzen dute, formatu ezberdinetan: erakundearen zuzeneko senidetzea Hegoaldeko udalerriekin, udalerri horietan lan egi-

³¹ Espainiako Udalak eta Probintzien Federazioa (2011), *Manual de Gestión de la Cooperación para el Desarrollo de los Gobiernos Locales*, Espainiako Udalak eta Probintzien Federazioa-Federación Española de Municipios y Provincias, Madril.

ten duten GGKEekin sinatutako hitzarmenak, batez ere aspalditik harreman estuak izan diren herri eta eskualdeetakoekin (herri sahararra edo Erdialdeko Amerikako herrialdeak, adibidez).

- *Lankidetzaren teknika*: Transferentzia ekonomikoaz gain, tokiko administrazioek beren esperientzia helarazi diezaiekete garapen bidean dauden herrialdeei oso arlo garrantzitsuetan, nola baitira deszentralizazio prozesuak, tokiko gobernantza, hirigintza, saneamendua edo ingurumenak, besteak beste. Lankidetzaren teknika horietan zuzenean parte hartzen dute tokiko administrazioen teknika-erakundeak, toki kudeaketako esparru horietan guztietan duten esperientzia baliatuz. Erakundeen arteko zuzeneko trukaketa bat izaten denez, aukera gehiago izaten da Hegoaldeko errealitateak udalaren ikuspegitik hobeto ezagutzeko, indarra ematen zaio sektore publikoari eta oso lagungarria gerta daiteke erakundeak sendotzeko.
- *Lankidetzaren funtsetarako ekarpenak*: Lankidetzarako toki funtsak aukera interesgarria dira, oso tresna eraginkorra –administratiboa nola teknika–, eta oso lagungarriak pobrezia-erakundearen aurkako ekimenen koordinazio eta osagarritasun maila handitzeko.

Zeharkako lankidetzaren:

Erakunde publiko baten zeharkako laguntza esaten dugunean, legeak onartzen dituen beste bi lankidetzaren-eragileek diru publikoarekin burututako laguntza esan nahi dugu: garapenerako gobernuaren kanpoko erakundeak eta irabazi asmorik gabeko bestelako elkarteak (unibertsitateak, sindikatuak eta gainerako erakunde sozialak) hain zuzen. Horrek esan nahi du erakunde publikoak finantzatzen dituela beste batzuk gauzatzen dituzten proiektuak.

Zeharkako garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa esaten denean ulertu behar da lankidetzaren mota bat dela, non tokiko erakunde batek finantzatu egiten duen garapenerako hezkuntzarako edota sentsibilizaziorako ekimen bat, herrialde emaleko erakunde batek aurkeztua (normalean GGKE batek edo garapenean espezializatutako erakunde batek).

Diru-laguntzen deialdi publikoak izan ohi dira zeharkako lankidetzaren mota hau gauzatzeko bide erabiliena. Batzuetan erakunde publikoek erabakitzen dute diru-laguntzarako deialdi publikorik ez egitea eta hitzarmenak sinatzea GGKEekin, azken hauek kudea ditzaten haiek abiatu nahi dituzten lankidetzaren ekintzak.

Azterketa honetan bereizi egin nahi izan ditugu, EAEko lankidetzaren deszentralizatuaren kudeaketari dagokionez, zuzeneko lankidetzaren eta zeharkako lankidetzaren. Bereizketa hori gorabehera, zuzeneko lankidetzaren barruan sartu ditugu diru-laguntzarako deialdi publikorik egin gabe GGKEekin sinatutako hitzarmenak. Horren arrazoiak datu biltzailearen prozesuan erakunde gehienek diru-laguntzen deialdi publikoaren zenbatekoa baino ez dutela agertzen, eta gainerako mota guztien zenbatekoa batera ematen dutela, argitu gabe hitzarmenak diren ala ez. Horregatik ezin ditugu gehiago xehatu datuak.

Zuzeneko lankidetzatzat jotzen ditugun ekimenen artean tokiko erakundeek badute esparru bat abantaila konparatibo handiagorekin aritzeko: Hegoaldeko deszentralizazio prozesuei laguntza emateko esparrua. Alde horretatik, bereziki interesgarria izan daiteke autonomi erkidegoetako eta tokiko erakundeetako eskuduntzen kudeaketari buruzko jakintza-transferentzia, esaterako oinarritzeko giza zerbitzuak. Halere, deszentralizazio prozesuak ez dira neutroak; aitzitik, helburu erabat kontrajarrak lortzeko erabili daitezke: zerbitzu publikoen pribatizazioa bultzatzeko zein tokiko demokrazia parte-hartzailea sendotzeko. Horregatik, edozein izanik ere diru-laguntzaren helburua eta zuzeneko emakidaren formatua erabiltzeko arrazoiak, gomendagarria da horrelako laguntzak lankidetzaren hitzarmen marko batekin arautzea, argi zehazteko zein den ekintzaren helburua eta zeintzuk sinatzaileen betebeharrak. Dokumentu horretan proiektuaren formulazioa jasoko da eta proiektuaren jarraipen eta ebaluazioaren oinarriak finkatuko dira.


Bestalde, zuzeneko lankidetzaren arrisku nagusietako bat da modu diskrezionalen erabiltzea erakunde asmo politiko jakin batzuekin laguntzeko, beste gauza batzuei jaramonik egin gabe. Kontuan izan

behar da baita ere Hegoaldeko aldaketa politikoak batzuetan azkarrak eta erabatekoak izaten direla, zaila izaten dela ekintzei jarraipena ematea eta, azkenik, herrialde batzuetan erakunde publikoak errotu gabe daudela.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen iritziz, horrelako esperientzien irakurketa positiboa izan liteke, baldin eta metatutako ezagutza, batetik, eta kudeaketa esparru zehatzetan zein udal estrategietan sortutako ahalmenak, bestetik, behar bezala aprobetxatuko balira, lankidetzazuzen bidez tokiko eremuarekin harremanetan jarri eta udaleko sail gehiagok proiektuetan parte hartuz³².

GGKEk egiten duten lankidetzazorrozk kontrolatu ohi da prozesu osoan. Halere, zuzeneko lankidetzazko ekimenetan batzuetan uzkuratzen bat ikusten da abiatzen diren ekintzei buruzko kontuak ematerakoan. Horregatik, uste dugu GGKEek kudeatutako lankidetzarekin gertatzen den bezala, zuzeneko lankidetzaz ere ahalik eta modu gardenenean kudeatu behar dela, diskrezionalitate guztiak baztertuta.

Grafikoan ikusten denez, EAEko GLO gehiena –%80 baino gehiago– GGKEen bitartez kudeatzen da



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

diru-laguntzen deialdi publikoen medioz. Aldiz, Espainiako Estatuan GGKEek kudeatutako GLOren portzentajea %67koa izan zen 2010. urtean³³.


Erakunde publikoek badakite nolako arriskuak izan ditzaketen zuzenean kudeatzen dituzten ekimen zenbaitek, baina baita ere badakite zuzeneko kudeaketak abantaila handiak dituela. Ondoko grafikoan ikusten da nola azken urteotan EAEko zazpi emale nagusien artean joera hori aldatzen hasita dagoen eta nola gero eta diru gutxiago erabiltzen ari den GGKEek kudeatutako lankidetzazko partidetarako, diru-laguntza publikoen deialdien bidez.

Bestalde, azpimarragarria da Lankidetzazko Euskal Legearen 9.3. artikuluan %10era mugatzen dela Eusko Jaurlaritzaz zuzenean kudea dezakeen lankidetzazko aurrekontuaren zenbatekoa. Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ustez portzentaje hori oso egokia da administrazio guztiek betetzeko, ez bakarrik Eusko Jaurlaritzak. Besterik uste dute, baina, gainerako erakunde publikoek, portzentaje hori

32 Rodríguez Fernández Natalia (2008), *Vitoria-Gasteizko Udaleko garapenerako lankidetzaz politikaren analisia 1996-2006*, Euskadiko GGKE Koordinakundea, Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia.

33 Iturria: Nazioarteko Lankidetzazko Urteko Planaren (2010) Jarraipena.

GARAPENERAKO DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA HIRIBURUETAN, FORU ALDUNDIETAN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAN



Iturria: Geuk prestaturak erakunde publikoek emandako datuekin.

betetzeko beharrik sentitzen ez dutenek. Oro har, beren heldutasuna aipatzen dute, beren hurbiltasun eta interlokuzio ahalmen handiagoa Hegoaldeko tokiko erakundeekin, abiatzen dituzten ekimen batzuk modalitate horretan garatzeko.

80ko hamarkadaz geroztik, GGKEek funtsezko funtzioa dute Espainiako garapenerako lankidetzaren sisteman. Neurri handi batean, garapen proiektuak kudeatu eta sustatu zituzten GGKEek, eta horrela lankidetzaren sistema publikoaren gabezia instituzionalak, teknikoak eta giza baliabideen arlokoak bete. GGKEek funtsezko elementu bilakatu dira, bereziki jomugan proiektuak garatzeko, baina baita ere lehenetsuneko esku-hartze eremuak identifikatzeko. Eragile sozialek egindako ekarpena ere oso garrantzitsua izan da, horri esker sendotu baita erakundearen eta gizarte zibilaren arteko trukea. Salbuespenak salbuespen, tokiko udalbatzek diru kopuru txikiak bideratzen dituzte zuzenean, GGKEek kudeatzen baitituzte lankidetzarako kopuru handienak. Horrela, bat egiten dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legeak dioenarekin, zeinak GGKEek hartzen baititu "garapenerako lankidetzaren eragile nagusitzat".

GGKEen bitartezko lankidetzak berezkoak dituen ezaugarri batzuek balio erantsi bat ematen diote. Ezaugarri horietako garrantzitsuenak da Hegoaldeko gizarte zibil antolatuenarekiko zuzeneko interlokuzioan oinarritzen dela. Euskadiko erakunde publikoek ere aitortzen dute balio erantsi hori. Hala, lankidetzaren mota horrek berezko balioa du gizarte zibila indartzeko –hala Iparraldean nola Hegoaldean–, eta baita ere Hegoaldeko errealitate horiek ezagutzen laguntzeko eta pobrezia eragiten duten arrazoiak gaineko ikuspegi kritiko bat sustatzeko.

2.4. ERAKUNDE PUBLIKOEK LANKIDETZARA BIDERATZEN DUTEN ZENBATEKOA

2.4.1. Nola neurtu erakundeek bideratutako garapenerako lankidetzara; Euskadiko GGKen Koordinakundearen proposamen bat

Nazio-produktu gordinaren (NPG) %0,7 GLOari emateko konpromisoa, 1970ean antolatutako eta Estatu kideek berretsitako Nazio Batuen XXV. Batzar Orokorreko ebazpenetik dator.

Nazio Batuen Batzar horretan ezarri zen ekonomikoki aurreratua zen herrialde orok progresiboki areagotuko zuela bere GLO, beranduen ere 1975ean NPGaren %0,7 lortzeraino merkatu prezioetan.

Horixe izan zen 0,7 mugimenduaren jatorria, zeina famatu egin baitzen Espainian 1994an, Aintzira Handietako krisiaren eta 0,7 Kanpainaren ondoren, aurrekaririk gabeko herri-mobilizazioa ekarri zuelarik. Orduan hasi ziren gobernu autonomikoak eta tokiko gobernuak aurrekontu partidak bideratzen garapenerako lankidetzara, lankidetzaren deszentralizaturaren sortuz.

Euskal erakundeak data hori baino lehen hasi ziren lankidetzarako aurrekontu partida ekonomikoak bideratzen; Eusko Jaurlaritzak, zehazki, 1985ean hasi zen.

Hasiera-hasieratik, euskal erakunde publikoak erreferentzia izan dira Estatu osoan GLOren bideratutako aurrekontuei dagokienean. Baina zoritxarrez bilakaera hori aldatu egin da.

Gaur egun hainbat erakunde bideratzen dute euren aurrekontuen %0,7 GLO laguntzara, baina erreferentzia desberdinen gainean kalkulaturik egoten da (gastu aurrekontuak, diru-sarreraren proportzioen aurrekontua, aurrekontu partida desberdinen konbinazioa, etab.); kasu batzuetan kudeaketa autonomian oinarritzen dira kontabilitateko bikoiztasunak saihesteko (adb. udalek %0,7 kalkulatzeko bere aurrekontu propioa erabiltzen dute, izan ere funtsen zati bat beste administrazio publikoetatik jasotzen baitute). Datu horri gainera zera gehitu behar zaio, askotan zaila dela erakunde publikoek erabiltzen dituzten zifrak eskuratzea, datu horiek arin eta zehazki eskaini beharko lituzketen arren.

Ez dugu ahaztu behar errenta dela nazioarteko konpromisoaren erreferentzia neurria, izan ere aurrekontu publikoek guztira nazioko errentaren herena baino apur bat gehiago ordezkatzen baitute³⁴ eta %0,7a ekarpen publikoari dagokiola, edozein dela ere kudeatzen duen maila administratiboa (Estatukoa, autonomikoa, probintziala edo lokala). Beraz, administrazioko maila desberdinen arteko erantzukizun partekatua bilatu beharko litzateke, Barne Produktu Gordinaren (BPG) %0,7a iristeko konpromisoa banatzeko irizpide bat ezarriz guztien artean.

Bien bitartean, EAEko erakundeek GLO kalkulatzeko sistema homogeneoa erabiltzen hasi behar dute. Euskadiko GGKEn Koordinakundeak proposatzen du aurrekontu oso bateratuak³⁵ erreferentziazat erabiltzea, BPGaren %0,7a iristeko lehen urrats gisa. Gure datuei erreparaturik gero, aurrekontu publikoak nazioko errentaren %35 inguru izan ohi dira eta, beraz, GLOk aurrekontu bateratuen %2 ingurukoa izan behar luke BPGaren %0,7aren baliokidea izateko³⁶.

Foru aldundien kasuan, horien berezitasuna argitu behar dugu. Euskal finantzaketa ereduaren araberak, Euskadiko Ogasuna hiru mailatan antolatuta dago: Euskadiko Ogasun Orokorra, hiru foru ogasunak eta tokiko ogasunak. Foru ogasunek egiten dute bilketa jarduerarik indartsuena, beraiek baitira

34 De la Fuente Pereda, Noemí eta González Martín, Miguel (2007), *Zenbakiez Haratago: Garapenerako euskal lankidetzaren eztabaidagai*, ALBOAN.

35 Finkatutako aurrekontu totala: Erakundearen aurrekontu totala, organismo autonomoak barne.

36 Laborra, Julia eta Rodríguez, Natalia (2010), *Gipuzkoako lankidetzaren publikoaren azterketa 2008*. Lankidetzaren deszentralizaturari begirada bat, Euskadiko GGKen Koordinakundeak, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Kontzertu Ekonomikotik³⁷ lortutako diru-sarrerak kudeatzen dituztenak. Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketatik lortutako diru-sarrerak, Estatua asetzeko kupoa deskontatu ondoren, banatu egiten dira Euskadiko Ogasun Orokorraren eta Lurralde Historikoetako Foru Ogasunen artean. Hor biltzen da Euskadiko diru-sarrera orokorren %90 inguru. Gainera, beraiek dira udalerrietako diru-sarreraren zati bat (ia erdia) finantzatzeko arduradunak, bere udalerrien gainean dauzkaten finantzaketa tutoretza eskumenen arabera.

Ogasunen gainerako diru-sarrerak, xedapen askekotzat hartzen dira, aipatu erakundeen zerbitzu eta eskumenak finantzatzeko.

Foru aldundien bilketa eta banaketa jarduera honen ondorioz, neurriz kanpoko litzateke ezarritako aurrekontu osoaren gainean %0,7a aplikatzea eta, beraz, hasiera batean erreferentziazat erabil liteke bateratutako aurrekontu propioa.


37 Azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremani buruzkoa.

2.4.2. Garapenerako lankidetzaren kopurua EAEn

Ikertutako erakundeek garapenerako lankidetzara bideratzen duten kopurua jakin nahi izan dugunean, ikusi dugu haietako bakoitzak irizpide desberdinen arabera kalkulatzeko duela, eta horrela ezin da benetako konparaketarik egin. Horri zera gehitu behar zaio, erakunde askotan lankidetzarako aurrekontua ez dagoela sail bakar batean zentralizatuta; zinegotzi, sail eta gastu kontrajarrietan lausotzen da eta oso zaila da kontabilizatzeko³⁸.

Erakunde bakoitzak lankidetzara bideratzen duen diru-kopurua zenbatzeko dauden sistemak hain ezberdinak direnez, erabaki dugu erreferentzia bakar bat erabiltzea ekarpen horiek kalkulatzeko, konparazioa egia izan dadin. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak proposatzen du tokiko erakundeen GLO ekarpena guztizko aurrekontu bateratuaren gainean kalkulatu beharko litzatekeela, guztien artean BPGaren %0,7ra iristeko. Gure hasierako asmoa zen erreferentzia hori erabiltzea (aurrekontu finko osoa), baina ikerketarako datuak biltzean ezin izan ditugu eskuratu erakunde publiko guztietako aurrekontu finko osoak eta, hortaz, kalkulua egiteko aurrekontu osoak hartu behar izan ditugu oinarritzat, erakunde autonomoak sartu gabe.

Argitu behar dugu, baita ere, ondoko lerroetan aipatuko ditugun zenbatekoak beti izango direla aurrekontuetan agertzen diren zenbatekoak, ez urtaldi bakoitzean benetan exekutatzen direnak.




Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Datu horien arabera, azterlan honek ukitzen duen hiru urteko epealdian EAEko erakunde publikoetatik lankidetzara bideratzen den diru-kopurua egonkor mantendu da, aldaketa txiki batzuekin. Eus-

kadiko erakunde publikoek 2010ean lankidetzarako bideratu duten dirua beren aurrekontu osoaren %0,53 inguru izan da batez beste. Kontuan izan bedi 2008an krisialdiak muturra agertu gabe zeukala artean eta erakunde publikoen 2009ko aurrekontuetan ez zela ageri murrizketa nabarmenik.

Ateratzen dugun ondorioa da susperraldi ekonomikoko garaietan euskal erakundeek ez dutela aprobetxatu ekonomiaren egoera ona bultzada bat emateko lankidetzara politikari eta %0,7 sinbolikoa bera ere ez dutela iritsi, oso kasu gutxi batzuetan salbu³⁹. Ez dugu azpimarratu gabe utzi nahi 2010. urtean herri askok beren aurrekontu osoaren %0,20 baino gutxiago bideratu dutela garapenerako lankidetzara⁴⁰.

Datu horien arabera, eta zenbaki absolutuetan, garapenerako lankidetzara EAEtik bideratu den diru kopurua handituz joan da, harik eta 2010. urtean ia 83 milioi eurora iritsi arte.



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Kontuan izanik 2010eko BPG⁴¹, EAEk lankidetzara bideratutako kopurua ozta-ozta iristen da %0,13ra. Beraz, bide luzea dago egiteko oraindik. Aberastasunaren %0,7 lankidetzara bideratzeko nazioarteko konpromisoak indarrean dirauen arren, ez da betetzen, ez EAEn, ezta Espainiako Estatuan ere. Lankidetzara deszentralizatuaren markoan, %0,7aren horizontea baliozkoa da oraindik, baina maila administratiboetan ez dago erantzukizunak banatzeko irizpiderik.

Begiratzen badugu EAEko administrazio maila bakoitzak 2010. urtean lankidetzarako bereizitako dirua, ohartuko gara zenbateko horren erdia baino gehiago (%61) Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak direla.


39 2010. urtean beren aurrekontu osoaren %0,7 edo gehiago lankidetzara bideratu duten EAEko erakunde publikoak: San Millan/Donemiliaga, Gasteiz, Basauri, Balmaseda, Aretxabaleta, Beasain, Deba, Eibar, Hondarribia, Irun, Lazkao, Oñati, Ordizia, Usurbil, Zarautz, Zumaia, Zumarraga, Hernani, Urretxu (azken bi hauek %1 baino gehiago erabili dute lankidetzarako).

40 2010. urtean beren aurrekontu osoaren %0,20 baino gutxiago lankidetzara bideratu duten EAEko erakunde publikoak: Pasaia, Orio, Lezo, Azkoitia, Arrigorriaga, Erandio, Lekeitio, Ondarroa.

2010. urtean lankidetzara %0,1 baino gutxiago bideratu duten erakunde publikoak: Barakaldo, Elgoibar, Gueñes, Zalla.

41 Iturria: Eustat www.eustat.es.


MAILA INSTITUZIONAL BAKOITZAK 2010.EAN LANKIDETZARAKO BIDERATUTAKO KOPURUA



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Azterketa hau egitean eskura izan ditugu EAEko erakunde publiko nagusiek 2012. urterako eginiko aurrekontu aurreikuspenak. Ondoko grafikoan ikusten da zein izan den 2012. urtera arte euskal dohaintza-emaile nagusien (Lankidetzarako Euskal Agentziaren, foru aldundien eta hiriburu eta hiru udalen) aurrekontuen bilakaera.

EAEKO ERAKUNDE NAGUSIEK GARAPENERAKO LANKIDETZARA ZUZENDUTAKO KANTITATEA



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Datuek argi erakusten dute nolako eragina izaten ari duen krisi ekonomikoak lankidetzako aurrekontuetan, murrizketak 2009. urtean hasi baitziren eta sei milioi eta erdi euro gutxiago baitago zeregin horretarako 2012. urtean. Gainerako erakunde publikoen urte horretako daturik ez daukagu. Halere, konparatuz gero Estatuko gainerako lurraldeetan gertatzen ari denarekin⁴², esan daiteke euskal lankidetzaren osasuntsu dagoela oraindik. Horri dagokionez, aitortu beharrekoa da euskal erakundeak —salbu

⁴² Espainiako GGKEen Koordinakundeak helarazitako datuen arabera, 2009tik hona Espainiako Autonomi Erkidego guztien lankidetzarako aurrekontuak ia erdiraino jaitsi dira, 2009ko 446 milioi euroetatik 2012ko 266 milioi euroetara.

Araban— egiten ari diren ahalegina beren elkartasun kuotari eusteko krisi garaian ere. Horregatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak beti esan du %0,7 sinboliko horretara iritea borondate politikoko kontu bat dela. Eta iritzi horri eusten diogu.

2.5. NOLA BANATZEN DA LAGUNTZA

2.5.1. Lankidetza motak

Tokiko erakundeak hiru motatako proiektuez baliatzen dira lankidetzarako aurrekontuak kudeatzeko: garapenerako lankidetza programa eta proiektuak; sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza; eta laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa. Dena den, maiz tokiko GLO guztia bildu nahi izaten dute garapenerako lankidetza proiektu izenarekin.

Garapenerako lankidetza

Garapenerako lankidetza da bizi baldintzak hobetzeko eta bizitza duin eta autonomia lortzeko beharrezko diren gaitasunak garatzeko laguntza behar duten pertsona, herri, eskualde edo herrialdeentzako politika, jarduera, proiektu eta programen multzoa⁴³.

EAEko lankidetza Espainiakoa bezala, garapenerako proiektuetan oinarritzen da bestelako laguntza moten gainetik. Esku-hartze programa horiek prozedura zorrotzak igaro behar dituzte arazoa identifikatzeko, helburuak zehazteko, inbertsioak planifikatzeko, eta ekimenaren jarraipena zein ebaluazioa egiteko. Proiektuaren zikloa⁴⁴ esaten zaio horri. Garapenerako lankidetza proiektuak dira nagusi beste mota guztien gainetik eta ondorioz, GGKEek ere garrantzi handiagoa daukate esku-hartzeen kudeaketan. Erakundeetako lankidetza politikak, neurri handi batean, GGKEek beraiek proposatutako ekimenen -aldi bereko- finantzaketa programa modura garatzen dira.

Lankidetzarako partidak ez dira berdin kudeatzen erakunde guztietan. Administrazio publikoek deialdiak egiten dituzte edota aurrekontu partidak bideratzen dituzte, urtebeteko proiektu mugatu eta helburu zehatzekoetara. Jarraitutasun falta hori dela eta, ezin da epe ertain edo luzerako garapen ekintzarik gauzatu. Aurrekoari gehitu behar zaio, gainera, proiektuek garapen ekintzetan oinarritu behar dutela, urtebeteko denborara egokitu behar baitute. Horrek guztiak zaildu egiten du benetako eragina neurtzea eta baloratzea.

Udal mailan Gasteiz eta Bilbo dira salbuespenak, bi udal horietan bi urteko proiektuei laguntzeko deialdiak antolatu baitira. Gauza bera egiten dute Araba eta Bizkaiko Aldundiek. Bestalde, Lankidetzarako Euskal Agentziak 2007an lankidetza programetarako tresna berri bat sortu zuen epe luzerako prozesu integralak bultzatzeko. Programen norainokoa zabaltzeko egin nahi da denborari eta finantza-alorrari dagokienez, programaren bizitza-ziklo osoa barne hartuz, identifikaziotik ebaluaziora bitarte. Horri guztiari esker, prozesu estrategikoagoak eta koherenteagoak jarri nahi dira abian, epe luzera begira bestelako lankidetza-tresnek baino eragin handiagoa izan dezaten.

Koordinakundearen ustez tresna hori oso baliagarria da, baina deialdian zehazten den hiru urteko epea baino gehiago iraun beharko luke benetako emaitza estrukturalak lortzeko. Tresna horren konplexutasun burokratiko gehiegizkoa eta inposatzen dituen betekizun zorrotzak direla medio, oso GKE gutxi aukeratu dute bide hori⁴⁵.

43 Celorio, Gema eta López de Munain, Alicia (2007), Diccionario de Educación para el Desarrollo, Hegoa.

44 FEMP (2007), *La cooperación al desarrollo de los entes locales. Informe 2005*, FEMP/Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritza, Garapenerako Lankidetza Saila, Nazioarte eta Lankidetza Zuzendaritza, Madril.

45 2011. urte amaieran 12 GKE daude deialdi horretan parte hartzeko akreditatuak.

Urtebeteko nahiz urte anitzeko proiektuen zikloari lotutako zama burokratiko gero eta handiagoaren ondorioz GKEak behartuta aurkitu dira beren burua indartzera. Giza baliabide gehiago lortu behar izan dituzte eta trukean kalitatezko laguntza emateko garrantzitsuak diren arloetako (esku-hartzeen diseinu, jarraipen eta ebaluazioarekin loturikoak) baliabideak erabili behar izan dituzte.

Lankidetzara eta garapenerako hezkuntzara bideratutako funtsen bolumenak bide ematen badu, administrazioek finantzaketa egonkorra lortzeko mekanismoak garatu beharko dituzte. Horretarako, kontuan hartuko da garapen prozesuak eta tokiko eragileekiko zein onuradunekiko harremanak epe luzera planteatu behar direla. Ondorioz, urteroko epemuga gainditu behar da, proiektu horien identifikazio, plangintza eta formulazio zuzena bermatuz. Beharrezkoa da, gainera, tokiko eragileek ere parte hartzea.

Beherago xehetasun gehiagorekin aztertuko dugu nolako lehentasunak ezartzen dituzten EAEko erakunde publikoek lankidetzara proiektuak onartzeko eta zein den laguntzaren egiazko jomuga.

Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza

Gaindituta dago garapena sustatzeko baliabideak transferitzearekin aski dela dioen teoria. Hegoaldeko herrialdeak eta geure gizartea ere aldatu egin behar dira; horrexek izan behar luke lankidetzara deszentralizatuaren ezaugarri eta ikur, arazoaren zergatiari aurre egin behar zaie eta lankidetzara tresna eraldatzailea dela adierazi.

Gure ustez, euskal lankidetzara deszentralizatuaren balio erantsia da gizarte zibil antolatuarekin duen lotura, hau da, nola indartzen duen gizarte zibil hori eragile humanitario bezala, giza eskubideak, justizia eta ekitatea lortzeko bidean. Horrenbestez, aipamen berezia egin nahiko genuke sentsibilizazioak eta garapenerako hezkuntzak EAEko lankidetzara politikan jokatzen duten paperari buruz. Hiritarrekiko hurbiltasunak apustu estrategikoa eragin behar du tokiko erakundeetan.

Garapenerako hezkuntza munduko errealitateari buruzko kontzientzia kritikoa sortzera bideratutako prozesu hezitzailea da, justizia eta elkartasuna helburutzat hartuz, parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko tresnak eskaintzen dituen. Garapenerako hezkuntzaren bidez lortu nahi dena da hiritargo global bat, kritikoa, politikoki aktiboa eta sozialki engaiatua komunitate guztientzako giza garapen justu eta ekitatiboaren alde. Filosofia horrekin arituz eta genero eta kulturartekotasun ikuspegia txertatuz diskurtso eta jarduera berriak gauzatu behar dira beste mundu posible batzuetarako eredu alternatiboak imajinatzeko⁴⁶.

Aurreko definizioaren ildotik, Euskadiko GKEen Koordinakundearen ustez garapenerako hezkuntza aldaketarako tresna bat da. Hiritar globalak erakitzea du xede, pobrezia eta bazterkeriaren aurkako borrokarekin eta giza garapen iraunkorra sustatzearekin konprometitutako elkartasun kultura sortzeko gai diren ezagutzak, jarrerak eta baloreak landuz⁴⁷.

Hala, Euskadiko GKEen Koordinakundearentzat hauek izango lirateke garapenerako hezkuntzaren bidez landu beharreko esparruak: sentsibilizazioa, ikerketa, hezkuntza = prestakuntza eta presio politikoa/gizarte mobilizazioa, eta alderdi afektiboa. Era berean, hauek izan beharko lirateke erakundeek garapenerako hezkuntzaren arloan bultzatu beharko lituzketen estrategiak: hezkuntza/prestaketa⁴⁸, ikerketa, eragin politikoa eta gizarte mobilizazioa, trukaketak eta ikasketak.

Sentsibilizazioa garapenerako hezkuntzaren alorretako bat da, baina zentzu zabala emanez gero, erakunde sozialek antolatutako jarduera multzoa dela esan genezake, zeinaren helburua baita Iparraldeko herrialdeetako biztanleen laguntza sustatzea pobreziaaren aurkako borrokan. Espainiako GKEen Koordinakundearen Portaera Kodean (1998) honela definitzen da sentsibilizazioa: *"Justizia eta elkartasun baloreak bultzatuz gizarteko jarrerak eta portaerak aldatzera bideratutako prozesu sortzailea"*. Ho-

46 Celorio, Gema eta López de Munain, Alicia (koord.) (2007), *Diccionario de Educación para el Desarrollo*, Hegoa, Vitoria-Gasteiz.

47 Bosgarren belaunaldiko garapenerako hezkuntza deitzen dena da Euskadiko GKEen Koordinakundearen erreferentzia.

48 Hezkuntza formal, ez formal eta informala.

rrela ulertuta, sentsibilizazioa ezin izan daiteke autopublizitaterako tresna, edo funtsak eta dohaintza emaileak biltzekoa, ezta ere gure antolakuntzaren egitura sendotzeko baliabidea.

Administrazio publikoek egin ohi duten lana da garapenerako lankidetzarako funtsak hornitu eta, horrekin batera, zeregin horretara bideratutako aurrekontuak banatzeko oinarriak eta irizpideak finkatzeko lege eta arauak onartu. Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza, lankidetzaren *ahizpa po-break* dira. Administrazio publikoek oso gutxitan jokatu dute paper handia sentsibilizazio kanpainetan; gainera, deialdi publikoetan sentsibilizazio kanpainetara bideratutako diru kopuruaren portzentajea sinbolikoa izan da, argi utziz horrela zeinen garrantzi gutxi ematen zaion hezkuntzari lankidetzaren esparruan. Sentsibilizazio ekintzetako inplikazioaren ikuspegitik oso aipagarria da udalek egin dezaketen lana, gune pribilegiatuak izan baitaitezke, hainbat arrazoiengatik, herritarrak sentsibilizatzeko, batez ere erakundeak eta herritarrak elkarrengandik hurbilago daudelako eta hurbiltasun horri esker jendeak hobeto baloratzen duelako erakundeen eta Ipar-Hegoko komunitateen arteko elkarlanaren duintasuna⁴⁹.

GGKEen iritziz, Hegoaldeko garapen proiektuak bezain garrantzitsuak dira Iparraldeko sentsibilizazio eta kontzientziazio proiektuak. Dena dela, gaur egun proiektuetarako finantza baliabideak lortzen egiten da ahaleginik handiena. Lankidetzaren deszentralizatuan, oinarritzkoa da tokiko GGKEek Hegoaldeko proiektuetara baliabideak bideratzeko prozesuan parte hartzea, bere helburuen artean baitago Iparraldeko herrialdeetako hiritarrak kontzientziaztea eta mobilizatzea horrela elkartasuna handiagotzeko eta nazioarteko harreman bidezkoagoak sortzeko balioko duten aldaketei laguntzeko.

Horregatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak uste du garrantzitsua dela erakundeek apustua egitea gure udalerrietan aktiboak diren erakundeen alde, lankidetzaren programa eta proiektuen helburu bikoitzari lotuz: alde batetik, garapen ekimenak bultzatzea eta, bestetik, gure ingurunean kontzientzia kritikoa sortzea. Erakunde publikoek askoz ere gehiago sustatu behar dituzte garapenerako hezkuntza jarduerak eta sentsibilizazioa. Horretarako, komenigarria litzateke hasieratik bereiztea lankidetzaren proiektuak eta sentsibilizazio edo garapenerako hezkuntza proiektuak, berariazko kopurua gordez azken horientzat. Dena den, garapenerako hezkuntzara bideratutako funtsak handitzeak ez du esan nahi beste laguntza batzuk (garapenerako lankidetzakoak edo laguntza humanitariokoak) murriztu behar direnik. Aipatu hazkundeak erakundeek GLOaren %10era iritsi behar luke gutxienez (batuketa zuzena eta zeharkakoa) eta diru kopuru honen gehiengoa GGKEek kudeatu beharko lukete.

Gure ustez erakundeek (nagusiki funts bolumen handienak kontrolatzen dituztenek) deialdi espezifikokoak egin behar lituzkete sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza jardueretarako. Gainera, prozesuak ere babestu beharko lituzkete, helburutzat izanik kolektibo espezifikoengan edota biztanle guztiengan Hegoaldeko herrialdeekiko elkartasuna eta justizia bultzatzea. Horretarako, informazio, sentsibilizazio, mobilizazio eta boluntarioen prestakuntza ekimenak finantzatu beharko lituzkete. Prozesu horiek, garapenerako lankidetzaren proiektuekin gertatzen den modura, egonkortasuna izan behar dute funtsen hornidurari dagokionean eta baita ere plangintza edo estrategia definitua.


Halere, eta GKEen ahotik horrelako iritziak entzuten badira ere, erakunde publiko batzuk deitoratu egiten dute herritarren inplikazio eskasa eta esaten dute jakinekotzat ematen den oinarri sozial hori ez dagoela inon. Orobat, uzkurtasuna egozten diete GKEei sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza arloko ekintzak egiterakoan.

Atal honetan Gasteizko udalaren kasua azpimarratu nahi dugu, modu eredugarrian erakutsi baitu nola bultzatzen dezakeen udal batek garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa. Gasteizko udalaren bilakaera esperimentazioaren ondorioa izan da, bere ekintzak ahalik eta hobekien optimizatzeko etengabeko berrikuntza-saioen emaitza. Horrelako proiektuak subentzionatzeko lehen deialdiak 1995ean egin ziren. Halere, 1997an urrats bat eman zen eta diru-laguntza lerro berezi bat ireki zen garapenerako hezkuntzarako, sentsibilizaziorako ohiko deialdia mantenduz haatik. Partaidetza tresnak elkarrengandik bereizteko saio bat izan zen, tresna horiek hobeto egokitu zitezen izaera bana zuten bi lerro kontzep-

49 Celorio Diaz, Gema. 2001. *Nuevos retos para la sensibilización sobre el desarrollo*. Cuadernos Bakeaz, 45. zk. Políticas de cooperación. Bakeaz argitaletxea, Bilbo.

tuali eta ekintza mota ezberdinei. Lerro bat (sentsibilizazioa) epe laburreko ekintzetan espezializatua zegoen eta ekintza informatiboak egiten zituen gehienbat; bestea, aldiz, jakintza pedagogikoak eskatzen dituzten epe ertain-luzeko hezkuntza prozesuetara bideratua zegoen (garapenerako hezkuntza)⁵⁰. Bizkitartean, deialdi horrek oso gutxi iraun zuen, ozta-ozta hiru urte. Gero, 2005ean, sentsibilizazio ekintzetara puntualki bideratutako funtsak bi deialdi berri finantzatzeko erabili ziren: identifikazioa eta urte anitzeko proiektuak, lan-esparru horretan Gasteizko Udala aitzindari izan zelarik.

Bestalde, deigarria da nola EAEko dohaintza emaila handienak —Lankidetzarako Euskal Agentziak— ez duen diseinatu orain arte garapenerako hezkuntzarako estrategiarik. Azterketa hau egiten ari garen unean bere Plan Zuzendari berriaren zirriborroa eztabaidatzen ari dira, eta espero dugu estrategia hori Plan horretantxe gauzatuko dela.



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Grafiko horretan ageri diren datuek argi erakusten dute funts gehien jaso dituen jarduera garapenerako lankidetza proiektuen saila izan dela, eta sentsibilizazio, garapenerako hezkuntza edo ekintza humanitarioko esparruek, berriz, askoz ere kopuru txikiagoak jaso dituztela. Zorritzarrez, bizi dugun krisialdi honetan arriskua dago sentsibilizazioa izateko jarduera kaltetuen.

Ekintza Humanitarioa

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen iritziz, ekintza humanitarioaren baitan sartzen dira babes eta laguntza. Izenburu horren pean biltzen ditugu krisi humanitarioei eman beharreko berehalako erantzunak, prebentzio proiektuak, arriskua zein kalteberatasuna murrizteko prestakuntza eta arintze ekintzak eta eragin politikoa izateko ekimenak (tokian zein eskualdean eta nazioartean ere bai). Ekintza humanitarioa ezinbestekoa da eta laguntza horrek denboran iraun behar du; krisi larrieneko unean emandako laguntzaz haratago (larrialdietarako laguntza), laguntza bermatu behar du operazio luzeetarako, birgaitze zein berreraikuntza ekimenetarako eta kalteberatasuna murrizteko programa guztietarako.

⁵⁰ Argibay, Miguel, *Veinte años de cooperación al desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz 1987-2007. Debate abierto sobre la práctica de la Sensibilización y de la Educación al Desarrollo*. Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzendaria 2010-2013. Gasteizko Udala. 2010.

Halaber, komunikazio, lekukotza eta sentsibilizazio programak barne hartu behar ditu, iritzi publikoak hondamendien jatorria eta ondorioak ezagutu ditzan, eta aintzat izan behar ditu emakume eta gizonen beharrian humanitario zehatzak. Era berean, laguntza eskaini behar du hondamendi naturaletarako (bat-batekoak edo sortze motelekoak), krisi kronikoetarako, gatazka eszenatokitarako eta krisi konplexuetarako.

Funtsezkoa da Administrazioek garapeneranzko suspertzearen inguruan planteatutako logikaren garrantzia ulertzea eta lanerako markoa, estrategia, aurrekontu esleipenak eta mekanismo zehatzak barneratzea garapenerako osagai egokiak lortzen direla bermatzeko. Horretarako, arriskua murrizteko, birgaitzeko eta berreraikuntzarako esku-hartzeak garatu beharko lituzkete.

Finantzaketa mekanismo askoz ere azkarrago eta malguagoak behar ditugu esku-hartze desberdinek biltzen dituzten ekintza humanitarioa ekintzentzat, dela testuinguruagatik edo dela uneagatik. Finantzaketa marko horrek errespetatu egin beharko ditu laguntzaren proportzionaltasun irizpideak eta beharrianek markatu beharko dute, ez irizpide mediatikoei, taktikoei, interes geografikoei edo beste mota batekoak (ahal dela, ez da larrialdi mediatikorik erabili behar erakundeen publizitatea egiteko, izan ere, askotan gehiegizko funtsak biltzen dira, batez ere kontuan hartuta zeintzuk diren EAEko GGKEek tokian bertan aplikatzeko dauzkaten benetako aukerak).

EAEko administrazio batzuek beren lankidetzak aurrekontuetako zati bat bideratzen dute gai horren inguruko ekintzaren bat laguntzeko. Proiektua gauzatzeko ez dator beti bat proiektuaren zikloko metodologiarekin eta tarteka, laguntza hori emaitza bezala hartu ohi da. Hain zuzen, toki administrazio gehienak oihartzun mediatiko handiko larrialdi humanitarioak gertatzen direnean mobilizatzen dira, baina ez dute berdin erantzuten gutxiago iragarri arren arinagoak ez diren larrialdietan.

Aztertu dugun epealdian EAEko oso erakunde gutxi egin dituzte lehia-konkurrentziaren erregimen espezifiko deialdiak ekintza humanitarioko proiektuetarako⁵¹. Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Bilboko Udalak lehiaketa gabeko konkurrentzia bidez banatzen dituzte beren funtsak: arazoak berehala eta egoki konpontzeko gaitasuna frogatzen duten erakundeen artean banatzen dute beren laguntza, proposamenak heltzen zaizkien hurrenkerari jarraituz. Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak ekintza humanitariorako bereizten dituzten funtsak banatzeko, 2005ean sortutako Arabako Larrialdi Funtse baliatzen dute⁵². Donostiako Udalak ez du batere dirurik bereizten ekintza humanitariorako.

Gainerako udaletan, ekintza humanitariora bideratzen diren funts gehienak GKEei ematen zaizkie zuzenean, dohaintza gisa, ez behar humanitarioak gertatzen direnean, baina ez dago ekintza humanitariorako edo larrialdietarako inolako deialdi egonkor berezirik.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ustez, ekintza humanitarioen helburua honako hau da: "bizitza salbatzea, sufrimendua arintzea, giza duintasuna babestea, eta hondamendien eraginpeko pertsonen eskubideak babestea, etorkizuneko garapenerako oinarriak ezarri, giza eskubideak sustatuz, eta bakearen eraikuntza sustatuz, kalteberatasuna murriztuta eta biztanleriaren gaitasunak handituz"⁵³.


Ekintza humanitarioko politikak honako bi tresnak ditu bere esku: alde batetik etengabeko finantzia-zio-linea. Urtean gertatzen diren krisialdi humanitarioei aurre egiteko deialdia da, eta mota guztietako erakundeetara zuzentzen da. Bestetik, esparru-estrategien finantzia-zio-linea, arlo humanitarioan espezializazio-maila handiena duten erakundeentzat pentsatu da. Era horretan, krisialdi humanitarioen kasuetan erantzuteko aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzeko; izan ere, estaldura mediatikorik ez izatearen ondorioz, eragin txikiagoa dute irritaren artena eta baliabide gutziago mobilizatzen dituzte.

51 Lankidetzarako Euskal Agentziak eta Bilbo, Barakaldo, Getxo eta Beasaingo udalek.

52 Larrialdietarako Arabako Fonda: Mekanismo hori bereziki sortu zen larrialdi humanitarioetan ekintza arinak babesteko eta horretarako, larrialdian esku-hartzeko gaitasun egiaztatua daukaten erakundeei ematen zaie laguntza ekonomikoa. Beraz, lehenagotik jakin beharra dago zein antolakundek eta non esku hartu dezakeen eta funtsak berehala lor ote daitezkeen. Hitzarmen bat sinatu zen Arabako Foru Aldundiaren, Caja Vital Fundazioaren eta Gasteizko Udalaren artean funts hori eratu eta martxan jartzeko, eta irekita utzi zuten bestelako ekarpen publiko edo pribatuentzat.

53 2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

2010EKO EKINTZA HUMANITARIORAKO EKARPENEN BANAKETA



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Aipagarriena da, zalantzarik gabe, zenbat herrialdek jasotzen duten laguntza puntuala urte bakar batean. Kasu horietako askotan laguntza ez dator udal beretik eta ez du GKE berak kudeatzen. Horren arrazoi nagusia da askotan udalek ez daukatela bide-orririk laguntza humanitarioko ekintzetarako, eta herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak direnez askoz ekarriagoak direla hondamendi natural batek eragin dezakeen presio mediatikoari erantzutera. Ohargarria da interbentzio humanitarioak normalean oso garestiak izaten direla eta laguntza mota horretarako erabiltzen den diru kopurua proportzioz oso txikia izaten dela (%9,03 inguru, aztertu dugun hirurtekoan). Bestalde, 2010ean ekintza humanitariora bideratutako funtsen ia %70 Eusko Jaurlaritzak jarri zuen, hor ikusten baita zeinen atomizatuta dauden mota horretako laguntzak gainerako euskal udaletan.

Zentzuzkoa litzateke tokiko erakundeek larrialdi ekimen edo ekintza humanitario zehatzak bultzatzea. Batez ere, lankidetzaren proiektuen bidez lehenagotik harremanetan izandako eremu edo biztanleei eragiten badiete edota udalerriko talde eta erakundeak horietan inplikaturik badaude. Hala ere, tokiko administrazioek lankidetzara bideratzen dituzten kopuruak hain txikiak direnez, ez dago horien bidez larrialdi egoerei edo ekintza humanitarioei erantzuterik. Ekarpenera txiki horiek askotan luzatu egiten dira denboran eta, beraz, larrialdi izaera galtzen dute, izan ere sarritan ekintza, erabakia eta ordainketa aukeratzeko protokolo guztiak igaro behar baitituzte.

Arazo horri aurre egiteko, erakundeek halako ekintzak babesteari utzi gabe, EAEn Funts bat sortzea proposatzen dugu, laguntza horiek modu bizkor, eraginkor eta koordinatuan artikulatzeko. Larrialdietarako funtsak inola ere ez dituzte murriztu behar lankidetzaren eta garapenerako hezkuntza ekimenetara bideratutako funtsak. Ekintza humanitarioetarako gorde eta gero burutu gabe utzitako kopuruak berriro inbertitutako diru hurrengo ekitaldietan, xede berarekin edo lankidetzaren eta ekintza humanitarioa bideratutako beste ekimen batzuetan.

2.5.2. Plangintza estrategikoa

Tokiko erakundeak lankidetzaren deszentralizatuaren sartu ziren, baina ez zuten aurrez hausnarketa estrategikorik egin Hegoaldeko herrialdeetan jorratu beharreko espazioei edota tresnarik egokienei buruz eta ez zuten zehaztasunez identifikatu Estatuko lankidetzarekin izan dezaketen osagarritasun harremana⁵⁴.

Kalitatezko lankidetzaren lortzeko, ezinbestekoa da epe luzerako estrategia, helburu zehatzekoa, eta dau-den baliabide urriekin ahalik eta eragin handiena lortzea. Lankidetzaren formatu egonkorragoak lortu behar dira, erakundeei epe ertaineko estrategiekin lan egiteko aukera emango dieten deialdiak sortzeko.

Plangintza estrategikoko dokumentu bat prestatzeak aukera ederra ematen du lankidetzaren politika propio bat marrazteko eta koherentzia emateko udal batek lankidetzaren arloan egiten duen lanari. Egokiera ona da baita ere diagnostiko zehatz bat egiteko eta, diagnostiko horren ondorioetan oinarriturik, jarduera-lerro bat finkatzeko helburu zehatzekin eta emaitza ebaluagarriekin. Inflexio puntu bat da, erakunde batek bere lankidetzaren politika molda edo birmolda dezan prozesu parte-hartzaile baten argitan⁵⁵. Helburua ez da Estatuaren lankidetzaren politiken logika errepikatzea eskala txikiago batean, baizik eta lankidetzaren deszentralizatuaren oinarritzko ezaugarrietara egokitzea:

- lokarri afektiboei erantzutea eta hobeto ezagutzea errealitatea hala herrialde batzuekin nola gure gizarteko zenbait jenderekin partekatutako historiaren bidez, estuki lotuz lankidetzaren eta elkartasuna;
- protagonismoa ematea gizarte zibilari, herritarren lankidetzaren eragile bezala aritzen diren GKEen eta irabaz asmorik gabeko beste erakunde batzuen bitartez;
- Hegoaldeko ekimen sozialak indartzea, kontuan izanik proposamen berriak sortzeko prozesu parte-hartzaileak, horrela, herrialde horietako gizarte zibila sendotzeko;
- Euskal herritarrek gure gizartearekin bezala gizarte pobretuekin ere baduten konpromiso politiko eta soziala indartzea, oinarritik sendotzeko gure herrialdeko gizarte zibila;
- garapenerako hezkuntzaren aldeko apustua egitea, barruko eta kanpoko desberdintasun-etena txikitzea helburu duen eta lparaldean garatu beharko den gizarte aldaketa bultzatzeko tresna bezala;
- gaitasun sorrera sustatu Hegoaldeko udal administrazioetan;
- lankidetzaren horrekin ezberdintasunen arrazoi estrukturalen aurka abiatzen diren ekintzak indartzea, eredu nagusiaren ondorioak bakarrik borrokatu beharrean, beti ere genero ikuspegi txertatuz lortutako aurrerapenak mantenduz, eskubide indibidual eta kolektiboak pertsona guztiei aplikatuz eta iraunkortasun ekologikoa errespetatuz.

Ikuspegi horretatik, EAEko erakunde publikoek bilakaera ezberdinak izan dituzte. Eusko Jaurlaritzaren izan zen Plan Zuzendari bat onartu zuen lehenbiziko erakundea, 2005. urtean. Euskadiko GKEen Koordinakundeak aukera izan zuen Plan horri ekarpen batzuk egiteko, baina ezin esan daiteke hargatik —erakundeek esaten duten bezala— Plan Zuzendariak edo dekretuak prestatzeko prozesu hori —ez hori ez besteak ere—, “parte-hartzailea” denik, “aholku-emailea”⁵⁶ baino. Eusko Jaurlaritzaren 2005-2008ko Lankidetzaren Plan Zuzendaria aurrerapen handia izan zen, gai berriak sartu zituelako hala teoriaren nola tresnen ikuspegitik:

54 Gómez Gil, Carlos (2008), *Una visión panorámica de la cooperación descentralizada de las entidades locales. Reflexiones sobre su papel y su futuro*, Gasteizko Udala, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua, Gasteiz.

55 FEMP (2011), *Manual de Gestión de la Cooperación para el Desarrollo de los Gobiernos Locales*, Udala eta Probintzien Espainiako Federazioa, Madril.

56 GKEen Koordinakundeak uste du prozesuak aholku-emaileak direla, zeren GKEek proposatzen dituzten ekarpenak inoiz ez baitira izaten lotesleak: erakunde publikoak erabakitzen du zein ekarpen onartu eta zein ez.

- oinarritzat hartzen zuen lankidetzaren eraldatzailearen kontzeptua, epe luzerako ikuspegi estruktural batekin;
- tresnak berrikusi eta eguneratu zituen, lankidetzaren programaren deialdiak izan zirelarik berrikuntza nagusia;
- lehentasun geografikoak eta sektorialak ezarri zituen;
- herrialdekako estrategiak garatzeko plangintza finkatu zuen;
- zeharkako lerroak jaso zituen⁵⁷.

Ekarri zuen aurrerakuntza gorabehera, lehenbiziko Plan Zuzendari horrek bazituen bere gabeziak, hala nola: garapenerako hezkuntza estrategiarik ez izatea, Eusko Jaurlaritzak zuzenean burututako ekintzen plangintza, ebaluaziorik eza eta Eusko Jaurlaritzako beste organo batzuekiko koordinaziorik eza. Gabezia horietako batzuk bigarren Plan Zuzendarian ere errepikatuko dira.

Eusko Jaurlaritzaren bigarren Plan Zuzendaria (2008-2011) hiritartasun unibertsalaren kontzeptuan oinarritzen zen eta aurrerapen batzuk ekarri zituen aurrekoaren aldean; adibidez, genero politikaren trataera, bai ikuspegi sektorialetik, bai zeharkakotik. Beste hobekuntza garrantzitsu bat izan zen Plan Zuzendaria ebaluatzeko prozesua, lankidetzarako Euskal Kontseiluaren barruan egin zena. 2011. urte amaieran hirugarren Plan Zuzendaria prestatzen hasi da, Kontseilu barruan gauzatzen ari den prozesu parte-hartzaile baten bidez.

Bilbo izan zen Plan Estrategiko bat onartu zuen EAEko aurreneko udala⁵⁸, 2006. urtean. Ondoren Donostiak onartu zuen 2008an⁵⁹, eta azkenik Gasteizek 2010ean. Aurreko kapituluaz azaldu dugun bezala, 2009an foru aldundiek Plan Zuzendari bateratu bat prestatu zuten, baina zoritxarrez koordinazio hori ez da errepikatuko, oraingoz behintzat⁶⁰.

Aipatu ditugun plan estrategiko guztiek antzeko egitura daukate eta, aldez edo moldez, atal hauek dituzte:

- marko teorikoa
- helburuak
- gidalerroak
- eragileak
- tresnak
- lehentasun geografiko-sektorialak⁶¹
- zeharkako lerroak

Euskadiko GKEen Koordinakundeak ekarpenak proposatu ditu Plan Estrategiko horientzat guztientzat. Esanguratsua da ekarpen batzuk dokumentu guztietan errepikatzen direla. Hona hemen sarrien agertzen direnak:

- prozesu aholku-emaileak dira, ez parte-hartzaileak;
- zuzeneko lankidetzaren ez dago ez plangintzarik ez kontu ematerik;
- GKEak gehiago ikusten dira inoren politiken gauzatzaile bezala ezen ez bultzatu nahi den garapenaren subjektu diren gizarteetako eragile bezala;

57 Toki gaitasunak, parte-hartze eta antolaketa komunitarioa; genero ekitatea, garapena eta giza eskubideak; jasangarritasun ekologikoa.

58 Bilboko Udala izan zen Estatu osoan Plan Zuzendaria onartu zuen hirugarren udala, Madril eta Bartzelonaren ostean.

59 Donostiako Udala bere Plan Zuzendari berria prestatzen hasi da 2012aren hasieran.

60 2012aren hasieran Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bakarrik adierazi dute Plan Zuzendari berri bat egiteko asmoa, baina ez elkarrekin koordinatuta. Arabako Foru Aldundiarentzat lankidetzaren politika planifikatzea ez da legegaldi honetako lehentasuna eta ez du prestatuko Plan Zuzentzailearik.

61 Aldundien Plan Zuzendarian ez zen agertzen inolako lehentasun geografikorik edo sektorialik.

- askotan, indartze tresnak diseinatzerakoan pentsatzen da, abiapuntu bezala, GKEak Hegoalderako proiektuen kudeatzailerak hutsak direla, eta ez garapenerako lankidetzaren esparruan lehenetsia duten eragileak (horrek dituen ondorio guztiekin, Iparraldean nola Hegoaldean). Hala, Hegoaldean egindako lanaren eragina baizik ez da diagnostikatzen eta baloratzen, kontuan hartu gabe GKEok Iparraldean egiten duten garapenerako lankidetzak, intzidentzia, sentsibilizazio, interlokuzio eta gainerako lan guztien estrategiak, plangintzak eta baliabide horniketak;
- epe luzerako prozesuei ematen zaien laguntza eskasa eta urtebeteko proiektuei ematen zaien nagusitasuna;
- plangintza egitean ez dago koordinaziorik beste erakunde batzuekin edo erakunde beraren beste departamentu batzuekin politiken koherentzia bermatzeko.

Nolanahi ere, eta Euskadiko GKEen Koordinakundeak ohartzen dituen gabezia horiek gorabehera, airtortzen da garrantzitsua dela plangintza horiek izatea, eta baita ere ahaleginak egiten ari direla politika koherente bat finkatzeko. Horiei guztiei esker, erakundeek egiten duten lankidetzak politikak kalitatea eta argitasuna irabazi du eta aurrerakuntza handia suposatzen duela zalantzarik gabe.

Bestalde, badira hiriburu ez diren EAEko hiriak. Horien artean batek ere ez du prestatu plangintza estrategikoa bat bere lankidetzak politika aurrera eramateko, nahiz eta salbuespenak izan, esaterako Getxoko Udala, bere Legealdiko Planean Lankidetzak Arloko helburu estrategikoak jasotzen dituena. Esan gabe doa, udalerririk guztiek ez daukate ahalmenik Plan Zuzendari bat onartzeko. Halere, udal batek lankidetzak ekintza bat abiatzen duenean dokumentu bat eduki beharko luke —laburra izanik ere— helburuak eta bitartekoak zehazteko. Udaletan, beraz, plangintza lana jorratzeke dagoen kontua da oraindik.


2.5.3. Lankidetzaren jomuga: lehentasun geografikoak, sektore lehentasunak eta biztanle onuradunak

Plangintza estrategikoarekin lagundu nahi diren elementuak islatuta egoten dira proiektuetarako diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarrietan. Oinarri horietan finkatuta egoten dira lehentasun sektorial eta geografikoak, tresnak, eta abar. Plan Zuzendaririk ez daukaten udalek oinarriak baliatzen dituzte beren lehentasunak adierazteko. Arazoa da herrietako oinarri gehienek (hiru hiriburuetakoez salbu) oso gutxi lehenesten edo zedarritzen dutela jarduera-esparrua, beren baitan hartzen dituztelako gune geografikoz, sektorialeaz eta batzuetan biztanleaz ere osatutako zerrenda luzeak, zeinetan ia edozer sartzen den.

Laguntza horren benetako jomugaren argazki gutxi-asko argi bat egin nahi izan dugu. Zoritzarrez, ez dago datu hori sistematizatzeko metodo homogeneorik eta, hortaz, sistema propio bat sortzea erabaki dugu ikuspegi orokor hori lortu ahal izateko. Zentzu horretan, lankidetzaren sistematizazio eta sailkapen egokirik ez izateagatik galtzen den informazioa iruditzen zaigu gauza deigarriena. Datu horiek sistematizatzeko Euskadiko GKEen Koordinakundeak eskatu duen informazioa ez zaio helarazi, batzuetan borondaterik egon ez delako eta beste batzuetan —kezkagarriagoa oraindik— galdetegiak erantzun gabe geratu dira udalak ez zituelako horretarako behar ziren datuak.

Ondoko grafikoetan agertzen diren ia datuen erdia oso zailak dira sailkatzeko edo erabat sailkaezinak dira; ez dago, beraz, sistema homogeneo bat funtsen esleipena ganoraz jakiteko.

EAEko lankidetzaren jomuga geografikoa



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Memorietatik eta 2010eko lankidetzarako diru-laguntzen ebazpenetatik ateratako datuen arabera, Erdialdeko Amerika, Hego Amerika eta Mexiko dira laguntzen lehentasuneko eremuak eta horixe islatzen dute ebazpenek ere. Ez dugu ahaztu behar Euskal Fondoak lehentasuna ematen diela bost eremu geografikori⁶² lankidetzaren jomuga modura eta proiektu horietako batzuk EAEko erakunde

62 El Salvador, Guatemala, Nikaragua, Kuba eta Mendebaldeko Sahara.

aurrekontuekin finantzatzeko direla. Era berean, aipatzekoa da Saharako biztanleei ematen zaien babesa, tokiko lankidetzak arreta berezia eskaini diolako. Erakunde batzuetan ahalegin argiak egiten dira funtsak bidaltzeko Sahara azpiko Afrikara⁶³. 2010ean euskal lankidetzaren %20 gune geografiko horretara bideratu zen, eta azken urteotan portzentaje hori handituz joan da.


Ez dira nahastu behar halere lehentasun geografikoak eta herrialde-zerrenda itxiak, eta Euskadiko GKEen Koordinakundeak ez du egiten hauen alde.

Askotan, lehentasun geografikoak jartzean, Nazio Batuen Garapenerako Programak egindako Giza Garapenaren Indizearen (GGI) sailkapenari jarraitzen zaio. Ohartarazi nahi dugu halere arriskutsua dela erabakiak hartzean irizpide bakar bati jarraitzea, bilatzen ez diren ondorioak lortu baitaitezke. Konparazio batera, baldin GGIa aukeratzen badugu irizpidetzat, posible da pobrezia poltsak dituzten errenta ertain/altuko herrialdeak zerrendatik kanpo geratzea. Horregatik hain zuzen, Euskadiko GKEen Koordinakundetik eskatzen dugu lehentasunak jartzea GGI txikiagoa duten guneak sostengatzea erabakitzen bada. Halaber, aintzat hartu beharko lirateke GGI altuagoa eduki arren eskubide urraketa jasaten duten indigenak edo pertsona kolektiboak. Era berean, garrantzitsua da EAEko GKEek lan tradizioa duten eremuetan lanean jarraitzea.

Gainera, kontuan hartu beharko dira plangintza instrumentuetan ezarritako lehentasunak, bai garapenerako lankidetzakoak bai eta udalerriaren garapenerako hezkuntzakoak. Kasu horietan, lehentasuna eman beharko zaie lankidetzak kontseiluetako edo antzeko organo pluralerako markoan eragile desberdinekin garatu eta adostutako tresnei. Plangintza erreminta horiek egiteko komenigarria litza-teke lankidetzako eta garapenerako hezkuntzako eragileen parte-hartzea ere.

Halere, datu horiek aztertuta ateratzen dugun ondorio nagusia da EAEko lankidetzak oso barreiatuta dagoela geografikoki. Kontuan izanik urte horretan lankidetzak proiektuetara eta ekintza humanitarioetara bideratutako proiektuen zenbateko osoa 59 milioi euro baino apurtxo bat gutxiago izan zela, ez da zaila ikusten zeinen atomizatua dagoen lankidetzak.

Sektoreak




Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

63 Halakoetan normalean oinarrietan %25 bat bereizten da Sahara azpiko Afrikarako proiektuetarako.

Oinarri batzuek lehentasunezko sektoreen eskala eskaintzen dute, non oro har osasun proiektuak izaten baitira nagusi eta atzetik izaten baitituzte hezkuntza eta ekoizpen proiektuak.

2010ean funtsen %25 oinarritzko gizarte zerbitzuetara —osasunera eta hezkuntzara— bideratu ziren. Hurrena, hauek izan ziren funtsen ehuneko handiena jaso zuten sektoreak: emakumeen jabeakuntza, ekoizpen proiektuak, tokiko garapena eta gizarte zibilaren indartzea⁶⁴. Horri dagokionez, nazioarteko gomendioek, eta zehazkiago esanda 20/20 Ekimenak⁶⁵ esaten dute lankidetzaren lehentasun sektoria-lak oinarritzko gizarte zerbitzuetara bideratu behar direla, gutxienez sektoreka banatu daitekeen lankidetzaren %20. Herri administrazio deszentralizatuek informazio pribilegiatua dute zerbitzu horien kudeaketari buruz, beren herritarrekin aplikatzen dutelako, eta Ipar eta Hegoko GKEek segurtatu egin behar dute proiektu horiek ez direla izango Estatuek dauzkaten obligazioen ordezkatzailerik hutsak, ezpada eskubideak eta zerbitzu publikoak defendatzeko asmo argi batekin egingo direla.

Biztanle onuradunak



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

Ikusten denez, laguntzaren onura jasotzen duen populazioari dagokionez erakunde guztiek ez diote lehentasuna ematen alderdi horri. Aipagarriak dira landa populazioa eta emakumeak.

64 2010ean bereziki esanguratsua da (sektoreka banatu daitekeen laguntzaren barruan) beste sektore batzuetara doazen ekarpenak, esaterako, toki garapenera eta gizarte zibila indartzera doazenak (%20).

Sektore honetan udalak gero eta espezializazio esparru handiago bat aurkitzen ari dira beren esperientziaren ondorioz, eta aipagarria da erakundeak eta antolakundeak bideratzen ari diren laguntza emakumeen berdintasunera, deszentralizazio prozesuetara, gizarte zibila indartzera eta giza eskubideetara.

65 20/20 ekimena: Kopenhageko 1995eko Giza Garapenaren Mundu Gailurrean hartutako konpromisoa, helburutzat duena nazioarteko lankidetzeta eta Estatuaren aurrekontuak norabidez aldatzea garabidean dauden herrialdeetako oinarritzko gizarte inbertsiorantz, akordio bat sinatuz herrialde dohaintza emaila eta hartzaileen artean; akordio horren bitartez lankidetzaren %20 eta herrialde hartzailearen gastu publikoaren %20 gizarte zerbitzu unibertsalera bideratu behar dira.

Lehentasun horizontalak

Aipatutakoez gain, tokiko erakundeen nazioarteko lankidetzak politiko publikoek bermatu egin behar dute ekimen guztiek barne hartzen dutela pobrezia aurreratzeko zeharkako borroka ardatz modura eta genero ikuspegia⁶⁶ ere bai komunitateen garapenerako funtsezko alderdi bezala. Halaber, laguntzaren alderdi horizontal diren aldetik, aintzat hartu behar dituzte giza eskubideen babesa, tokiko nortasun kulturalerako errespetua, ingurumen iraunkortasuna sustatzea, bake ekimenen babesa, gatazken konponbide baketsuak bilatzea eta gizarte zibila sendotzea.

EAEko erakundeek bere oinarrietan biltzen dituzte horrelako baldintzak, derrigorrezkoa delarik batzuk betetzea. Horien artean aipatzekoak dira garrantzi gehien duenetik gutxienez: proiektuak genero ikuspegia edukitzea, diruz lagundutako proiektuan herriko kooperante bat egotea eta proiektuak giza eskubideen ikuspegia izatea. Era berean, egitekoak diren ekintzen artean baloratu egingo da tokiko komunitatearen parte-hartzea eta indartzea.

Iraunkortasun ekologikoaren alde egin den apustuak gero eta garrantzi gehiago hartu du azken urteotan⁶⁷. Lankidetzaren esparruan eta bere eragileen artean sakonkiago hausnartzen ari dira orain mundu mailako arazo ekologikoak, arazo horiek Hegoaldeko herrialdeetan dituzten eraginak, aldaketa klimatikoaren ondorioak, arazo horien arrazoiak eta kontsumoak jokatzeko duen papera. Hausnarketa horren bidetik garatu egin dira iraunkortasun hori zeharkakotzeko politikak eta prozesuak, horiek guztiek gaur egun gabezia asko dituztelako oraindik. Neurriak hartu behar dira gabezia horiek gainditzeko, esaterako ikuspegi hori proiektu guztietan txertatzea, elikadura subiranotasuna eta autosufizientzia energetikoa bultzatzea, tokiko kontsumo taldeei laguntza ematea edo Euskadiko GGKEei iraunkortasun ekologikoko barne politikak garatzen laguntzea.

Bestalde, proiektu bat baloratzerakoan, deialdi publikoak egiten dituzten erakunde gehienek iritziz, ezinbestekoa da GGKEa EAEen erregistratuta egotea (erakunde batzuk Euskal Herria hartzen duten kon-tuan; hots EAE, Nafarroa eta Iparraldea). Gehienek halaber herrialdean ordezkartza izatea eskatzen diote erakundeari. Batzuentzat, GGKE eskatzaileak herrikoa izan behar du eta hala ez balitz ere, oso ohikoa da herrikoei lehentasuna ematea. Azkenik, aipatzekoak da erakunde batzuen kasuan (baldintza edo lehentasun bezala), baloratu egiten dela GGKEak herrian sentsibilizazio ekintzak burutzea.

Laburtuz, EAEko dohaintza emaile nagusien plangintza estrategikoko esperientziak gora-behera, eus-kal lankidetzaren ezaugarri nagusia da oso barreiatua dagoela. Euskal erakundeen arteko lankidetzak eta bateragarritasun mekanismoak artikulatu behar dira barreiadura hori gutxitzeko. Bide horretatik dudarik gabe handitu egingo dira lankidetzak ekimenen eraginkortasuna eta onurak.

66 Aurrerago kapitulu oso bat dago aztertzeko zer bilakaera izan duen ekitateak EAEko lankidetzan.

67 Adibidez, Lankidetzarako Euskal Agentzia, Plan Zuzentzaile berriaren eztabaidan areago aurreratzen dena iraunkortasun ekologikoaren sektorialean eta transbertsean.

2.6. KALITATE HANDIAGOKO LANKIDETZA POLITIKOETARANTZ

Aurreko kapituluetan ikuspegi baikor batetik deskribatu dugu lankidetza deszentralizatua, gogora ekarriz daukan balio erantsia. Halere, egia baizik ez da lankidetza deszentralizatuari buruzko eztabaidan aipatu beharrekoak direla baita ere bere gabeziak: eraginkortasuna, esparru instituzionalaren atomizazioa, koordinaziorik eza eta ekintzen barreiadura.

Koordinazioa

Gaur egun garapen arloko nazioarteko agendak eskatzen du koherentzia, osagarritasun eta harmonizazio gehiago egon dadila aktore guztien artean, Estatuak nola nazioartekoetan, eta baita ere benetako batasuna herrialde bazkideetako garapen politikekin (ekintzen eragina hobetzeko), Parisko Adierazpenean jasota dagoen ildotik⁶⁸.

Sistema honek dakarren koordinaziorik ezak kalte handia egiten dio eraginkortasunari, bere ondorioa baitira atomizazioa, zatiketa eta administrazio eta transakzio gastuen igoera, ahaleginen bikoizketak eta gainjarpenak, eta sinergiak sortzeko zein ekintzen eragina handitzeko aukerak galtzea. Deskoordinazioak eragindako gabezia horiek kostu handia dakarte Parisko Adierazpenaren funtsezko bi printzipiori dagokionez: herrialde bazkideetako garapen politikekin lerrotzea eta dohaintza-emeleek beren sistemak eta prozedurak elkarrekin harmonizatzea. Bi puntu horietan arduratsu jokatu nahi bada dohaintza-emele guztiak behartuta daude behar diren ahaleginak egitera, baina lankidetza deszentralizatuko aktoreek oraindik ez dute osoki barneratu eta onartu lehentasun hori⁶⁹.

Horren ondorioz, Lankidetza eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) betidanik aholkatu du GLO zentralizatu dadila eragile deszentralizatu asko dituzten herrialdeetan, esaterako Espainiako Estatuan. Erakunde horren arabera, GGKEek, eskualdeek eta udal agintariek lankidetza politikan duten gehiegizko paperak kalte egiten dio lankidetza bilateralen zentraltasunari, politikak inkoherenteagoak egiten ditu, deskoordinazioa eta ekimenen gainjartzea areagotzen ditu eta transakzio tasen kostuak handitzen ditu, hala herrialde emaleentzat nola hartzaileentzat⁷⁰.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak ez du partekatzen Garapenerako Laguntza Batzordeak lankidetzari buruz daukan ikuspegi zentralista hori. Arestian aipatu dugu zeinen baliotsua den Euskadiko lankidetza politika publiko deszentralizatua, azken urteotan modu bateratuan eraiki dena adostasun sozial eta politikoan oinarrituta. Halere, ageri da lankidetza horretan nabarmenak direla beste erakunde zentralizatu batzuetako lankidetzaren koordinazio eta koherentzia gabezia berberak.

EAEko erakundeek lankidetza mekanismo eta tresna berberak (GGKEen proiektuak diruz laguntzeko deialdiak) erabiltzen dituzte elkarte guztientzat, eta hori ahuleziatzat har genezake, lankidetza zatikatzan baita eta ekimenaren eragina minimizatu ere bai. Aurrerago azaldu bezala, aldundiek 2003an

68 Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko 2005eko Parisko Adierazpena, Monterreyko Kontsentsutik abiatutako maila goreneko ekimen askoren ondorioa da. Garapenerako Laguntzaren eraginkortasuna bermatzeko asmoz, Adierazpenak eragile zenbait engaiatzen ditu elkarrekin lan egitera (LGEE-GLB, dohaintza-emeleak eta garabidean dauden herrialdeak) eta laguntza mota berriak finkatzen ditu. Bere bazkide guztiak hertsatzen ditu bost printzipioen inguruan lan egitera, horietako bat harmonizazioa: emaleen ekintzak koordinatzea zatiketa eta kostuak gutxitzeko eta garrantzitasuna bultzatzea.

69 Martínez, Ignacio eta Sanahuja, José Antonio, *La agenda internacional de eficacia de la ayuda y la cooperación descentralizada de España*, Madrid, Fundación Carolina, 2011.

70 Alberdi, Jokin, "La cooperación descentralizada y la nueva arquitectura de la ayuda: la cooperación vasca en el siglo XXI", in Larrañaga, M. eta Jubeto, Y. (editoreak) *La cooperación y el desarrollo humano local*, Bilbo: Hegoa/UPV-EHU, 2011.

hartu zuten bere aurrekontua bakarrik kudeatzeko eta lankidetzaren politika propioa garatzeko erabakia, GLSF sistematik kanpo. Udalerriek ere askotan deialdi propioak edukitzen dituzte.

Koordinazioa lortzeko hainbat administrazio maila inplikatu behar dira eta orientazio bertikala zein horizontala kontuan hartu. Beraz, maila desberdinetako koordinazio mekanismoak abiatzeko gomen-datzen diegu EAEko erakundeei:

- beste sail batzuekin koordinatzea, lankidetzaren politikak koherenteagoak izan daitezen gainerako erakundeen ekimenekin;
- EAEko tokiko erakundearen artean koordinatzea. Aipatu beharrekoa da lankidetzaren funtsak ego-kitu egin direla lankidetzaren deszentralizatuak berekin dakarren deskordinazio arriskuari aurre egiteko. Atal honetan azpimarratu nahi genuke Euskal Fondoak egiten duen lana, bera baita lankidetzaren deszentralizatuen jardun nahi duten tokiko erakundearen ekimenak koordinatzen di-tuena.
- EAEko herri administrazioetako koordinazioa, Lankidetzarako Euskal Legea onartu eta gero sor-tutako erakunde Batzordearen barruan.

Koherentzia

Pobrezia desagerrarazteko helburuak ez luke soilik administrazioetako lankidetzaren departamentuen erantzukizuna izan behar. Erakunde publiko bateko lankidetzaren politikaren helburuek eta emaitzek ezin dituzte erakunde bereko beste politika batzuk eragindako kalteak jasan.

Autonomi erkidegoek eta beste erakunde deszentralizatuak eskumen handiak dauzkate hainbat es-parrutan eta horien artean, herri kalteberen gainean eragina izan dezaketen politikak ere badaude. Beraz, gobernu deszentralizatuak, herrialde bazkideen garapenari laguntzeko hartu duten konpromi-so gero eta handiagoa bete dezaten, ezin dituzte soilik lankidetzaren programa eta proiektuak sustatu. Baita ere kontuan hartu behar dituzte beren gobernuaren beste politika batzuk, eta garapenerako politiken koherentzia maila altua lortzen saiatu behar dute. Gobernu deszentralizatuak harreman sare konplexua osatzen dute beste batzuekin (estatukoak, nazioartekoak...) eta politika horien koherentzia sustatzeko kontuan hartu behar diren beste eragile batzuekin.

Tokiko gobernuak alde batera utzi behar dute erantzukizunak delegatzeko duten joera eta lidergoa hartu behar dute lankidetzaren deszentralizatuen; era berean, GGKEek proiektuak gauzatzeko agentzia hutsak izateari utzi eta paper politikoago eta aktiboagoa jokatu behar dute tokiko afera publikoetan. Horregatik, beharrezkoa da konpromiso hori erakunde publiko osoak bere gain hartzea, departamendu desberdinak bere baitan hartzen dituen plan global baten barruan, eta horrela, lurralde konprometi-tuak lortu, helburuarekiko koherenteak diren politika publikoak gara ditzaten.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak definizio bat ematen dio garapenerako politiken koherentziari: lankidetzaren eragin positiboa hobetzea helburutzat duten ekintzak dira, gainerakoak giza garapen berdin eta iraunkorra lortzeko eta pobreziaaren aurkako borrokan jarduteko helburuekin bat datoze-laz ziurtatzen dutenak. Faltan bota dugu politiken koherentzia bultzatzeko apustu indartsuagoa. Zein da erakunde publiko batek lankidetzaren politikak garatzeko arrazoia? Botere, aberastasun eta aukeren banaketa bidegabekia aldatu behar dela pentsatzen badu, publikoki adierazi beharko luke eta erakunde guztiak horrekiko koherente izan beharko luke.

Horri dagokionez, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak proposamen bat aurkeztu die euskal admi-nistrazioei aztertu dadin nola eta zenbateraino betetzen den koherentzia printzipioa garapenerako po-litikan. Proposamen horren oinarria da Koordinakundeak berak egin duen gogoeta bat argitzeko zer den garapenerako politiken koherentzia⁷¹. Lankidetzarako Euskal Kontseiluan adostutakoari jarraituz,

71 Ikus VI. Eranskina.

azterketa hori 2012an hasiko da, eta horrela bete egingo da Kontseiluaren eginkizunetako bat, hots, gai horri buruzko txosten bat egitea urtean behin.

Bateratzea

Lankidetzaren deszentralizatuak badu beste arazo handi bat: deialdiak, oinarriak eta formularioak asko dira eta sarritan gero eta konplexuagoak. Arautegi dispersioaren ondorioz, lan burokratikoak ugaritu egiten da eta urrundu ere bai lankidetzaren erantzuna eman beharreko arazo errealetatik, lankidetzaren politikari inolako baliorik erantsi gabe. Datu hori arazo erantsiztat daukagu, izan ere kasu gehienetan oinarriak dira euskarri juridiko nagusia. Oinarri horiek diru laguntzetarako deialdietan daudenez, zuzentzarau politikoak ezegonkorak dira.

Beraz, diru-laguntzen deialdietatik kanpo argitaratu beharko lirateke oinarriak eta agintaldi bakoitzarekin bat datorren iraupena eduki beharko lukete gutxienez. Bereizirik egon beharko lukete eta existitzen diren tresna bakoitzera egokituta (lankidetzaren, sentsibilizazioa, garapenerako hezkuntza, ekintza humanitarioa...). Deialdi guztiek eduki beharko lituzkete argitaratze data eta diru-laguntza egonkorrek eskatzeko epeak. Deialdien publikitatea eta epeak lehia librearen ezaugarrietara eta gardentasunera egokitu behar dira, bidea errazteko lehian parte hartu nahi duten erakunde guztiei. Oinarrietan definitu beharko lirateke proiektuen balorazioa egiteko irizpideak, proiektuaren objektibotasuna eta gardentasuna bermatze aldera.

Gauza bera gertatzen da prozedura administratiboen zurruntasunarekin. Askotan, ezinezkoa da baldintza horiek betetzea, garapenerako lankidetzaren ezaugarri bereziak direla eta, tokiko gainerako politika publikoen oso bestelakoak baitira.

EAEko administrazioek ahalegina egin beharko lukete diru-laguntzen deialdietako formularioak zein oinarriak bateratzeko eta prozedura administratibo malguagoak inplementatzeko.

Errealitate honen aurrean, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak dokumentu bat garatu du administrazioek gida modura erabil dezaten garapenerako laguntza gauzatzean, hots, GGKEei diru-laguntzak emateko deialdi zehatzak egitean diru hori gero nazioarteko lankidetzaren, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio alorretan erabil dadin. Gida hau dokumentu malgua da, kasu bakoitzean eman daitezkeen zailtasunetara egokitu behar duelako: garapenerako lankidetzaren heterogeneotasuna, erakunde anitzen berezitasunak⁷².

72 Ikus VII. Eranskina.

2.7. GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA

Tokiko politika arlo estrategikoa da esku-hartze publikoari eta parte-hartze sozialari dagokienean. Espazio egoki-egokia da hiritarrak gai publikoetan inplikaturik dituzten parte-hartze bide berriak esploratzeko eta, gainera, pribilegiozko kokalekua eskaintzen du tokiko ekimenetatik sortutako garapen politikek hiritarren eskaerei erantzuna eman diezaieten.

Toki eta eskualdeetako administrazioek garatutako lankidetzaren berezitasunek balio nabarmena eranstean diote laguntzari berari:

- herritarrekiko hurbiltasuna;
- GGKEek politika eta baliabideen diseinu eta kudeaketan eginiko ekarpena;
- interes politiko, ekonomiko eta komertzialak ez dira hain nabarmenak;
- aginpideen eta politiken deszentralizazio prozesuetako eta herritarrengandik hurbil dauden arazoen eguneroko kudeaketako esperientzia.

Gizartearen parte-hartzea garrantzitsua da oso, horrela lortuko baita lankidetzaren deszentralizazio eragileak lankidetzaren garapenerako hezkuntza politika koherente eta solidarioak definitzeko eta kudeatzeko prozesuetan inplikatzeko. Halaber, gizarte zibilaren inplikazioari esker, GGKEek baliabideak burutzeaz harago doan papera hartu behar dute bere gain. Horregatik, parte-hartze espazioak sortu behar dira GGKEen eta erakunde publikoen artean; elkartzunezko kultura bat sortuko da eta hori garatuko dira plangintza zein jarraipena egiteko tresnak. Gainera, administrazioek konpromisoa hartu beharko dute informazioarekin, sentsibilizazioarekin eta gardentasunarekin.

Lankidetzaren kontseiluak elkarriketarako espazioak dira eta bertan parte hartzen dute GGKEek eta beste taldeek lankidetzaren eragileak. Gure iritziz, erakunde zehatz batzuen kasuan, kontseiluak foro bikaina izan daitezke elkarrekin sarearen eskaerak bideratzeko, lankidetzaren politiken jarraipena egiteko eta hiritarren sentsibilizazioa sustatzeko. Komeni da kontseiluetan ordezkaritza sozial zabala izatea eta ordezkaritza hori ez mugatzea garapenerako GGKEetara edo beste eragile espezializatuetara, beste mugimendu sozial batzuk ere presentzia izan dezaten.

EAEn baditugu Lankidetzaren Euskal Kontseilua eta hiru hiriburuetako udal kontseiluak; udal mailan ere badira beste organo parte-hartzaile batzuk, kontseilu formatuak ez dutenak, eta Aldundiek ez daukate horrelako organorik.

Euskal Lankidetzaren Kontseilua

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua eratu zuen, lankidetzaren eragileen ordezkaritza-organoa izan zedin. Garapenerako euskal lankidetzaren publikoaren inguruko proposamenak, irizpenak eta jarraipena egiteko ahalmena izango zuen. Lehen, garapenerako euskal lankidetzaren organo aholku-emaile bat izan zuen, baina Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea, baina ez zen oso eraginkorra, non bilduta baitzeuden herri-administrazioetako ordezkariek eta arlo horretan diharduten gizarte-elkarteetakoak.

Lankidetzaren Euskal Kontseilua 2008an hasi zen lanean. Kontseilua mistoa da, hau da, eta erakundeak eta gizartearen ordezkariek kopurua paritarioa izan behar da. Herri-administrazioei dagokienez,

kontseiluak Eusko Jaurlaritzako eta hiru foru-aldundietako ordezkariak izaten ditu kideztat, bai eta udal lankidetzaren errealitate zabala eta ñabarra ordezkatzeko dutenak ere, EUEDEL eta Euskal Fondearen bitartez. Gizarte-al-derdiari dagokionez, Euskadiko GGKEen Euskadiko Koordinakunde barruan hautatutako ordezkari bat dago, eta beste bat hautatzen da koordinakunde horretako kide ez diren gizarte-erakundearen artean. Kontseiluak osoko bilkuretan eta berak eratu nahi dituen batzordeen bitartez jardungo du. Honako bi batzorde hauek izan beharko direla: Batzorde Iraunkorra eta Larrialdietan Laguntza Humanitarioa emateko batzordea⁷³.

Legeak berak eskumen-sorta bat eman arren, eta horri esker, funtsezko erakunde bihurtu da herrialde pobretuekiko elkartasunerako euskal politikaren aholkularitza eta jarraipenean, lanak izan ditu bai martxan jartzeko eta bai bere agenda betetzeko. Arazo horiek apurka-apurka konponduz joan dira eta 2011ren azken hilabeteetan Lankidetzako Euskal Fondearen dinamika adosten hasi zen bere erregela-menduaren edukiarekin. Oraindik badira martxan jarri beharreko zeregin batzuk, esaterako –garrantzi-tsuenatxosten bat prestatzea urtero, ikusteko ea euskal erakunde publikoek koherentzia printzipioa zaintzen duten garapen arloko politikan. Txosten hori egiteko Euskadiko GGKEen Koordinakundeak proposamen bat egin dio Kontseiluari eta ustez 2012. urtean hasiko da aplikatzen.

Lankidetzako Udal Kontseiluak

1999an sortutako Gasteizko Lankidetzako Kontseilua da EAEko udal esparruko organo parte-hartzaile zaharrena. Bilbok 2004an sortu zuen berea eta Donostiak 2008an.

Bilbo eta Donostiako Udal Kontseiluak Batzorde Exekutibo edo Iraunkor baten bidez egiten dute lan. Aldiz, Gasteizko Kontseiluak ez dauka batzorde iraunkorrik. Hirurek sor ditzakete lan batzordeak, hots, Kontseiluaren eskumeneko gaiak aztertze eta lan batzorde bereziak. Batzorde iraunkorrak osoko batzarrek baino lanerako gune eraginkorragoak dira eta aukera ematen dute adostasunak lortzeko, negoziatzeko, lan-agendak finkatzeko (aztergaiak sartzeko eguneko gai-zerrendan), planifikatzeko, batzarren maiztasuna betearazteko, dokumentazioaren banaketa segurtatzeko, eta abar.

Beren araudiaren arabera, organo sektorial parte-hartzaileak dira, garapenerako lankidetzako arloan eskumenak dituzten udaleko organoentzako kontsulta eta aholku organoak.

Kontseiluetan parte hartzen dute, kontseiluburuaz gain, elkarteak eta udalbatzako alderdi politikoak, azken hauek ahotsarekin baina bozka eskubiderik gabe⁷⁴. Batzarretara azaldu daitezke, halaber, garapenerako lankidetzarekin zerikusi zuzena duten beste erakunde batzuen ordezkariak, jende adituak eta lankidetzarako garapenaren munduan ospea irabazia duten pertsonak.

Bestalde, udal mailan badira munduan beste esperientzia parte-hartzaile batzuk Lankidetzako Kontseiluaren formatua ez dutenak. Halakoak dira, adibidez, Getxon, Eibarren eta Hernanin daudenak. Eibarko Lankidetzako Mahaia 1998ko urrian sortu zen, Eibarko Udaleko gizarte zerbitzuetako sailak bultzatua herriko GGKE zenbaitekin batera, eta sentsibilizazio kanpaina bat egiten du urtean behin. Hernaniko plataforma parte-hartzaileak, berriz, hamar urtetik gora daramatza lanean. Lankidetzako gaietan interesatuta dauden hernaniarrek osatutako kolektiboa da eta arlo horretako gaiak jorratzen dituzte. Beren zeregin nagusia udalari aholku ematea da, eta Udalak antolatzen dituen lankidetzako kanpainetan parte hartzen du. Getxoko Udalak, 2004. urtetik, Garapenerako Lankidetzako Lan Talde bat osatuta dauka. Lan Taldea kontsulta izaerako organo bat da. Bertan, Lankidetzarako Garapenarekin lotutako sektore sozial desberdinak sentsibilizatzea eta inplikatzeko nahi da, eta baita ere Herri Administrazioak (bere maila desberdinetan) eta ekimen solidarioek eta/edo hiritarren ekimenek, oro har, arlo honetan burutzen diren jarduerak koordinatzea⁷⁵.

73 Batzorde biak eratu dira baina Batzorde Iraunkorra baino ez dago eraginkor.

74 Talde politikoaren parte-hartzeari dagokionez, zinez bitxia da zeinen ezberdinak diren Kontseiluko batzarretan agertzen dituzten iritzi eta jarrerak eta gobernu taldeko parte direnean gauzatzen dituztenak.

75 Getxoko Udalak, Garapenerako Lankidetzako Zerbitzuaren 2011ko txostena.

Parte-hartzearen erronka

Lankidetzaren kontseilu batek tresna eraginkorra izan behar du, eta hori lortzeko pauso batzuk eman behar dira asistentzia hutsetik parte-hartze aktibora igarotzeko. Parte-hartzea egiazkoa eta eraginkorra denean errazago izaten da kontseiluarentzat lankidetzaren arloko politika gauzatzeko diseinatu den estrategia bereganatzea, eta bereganatze horri esker posible egiten da lankidetzaren arloko herriko eragileekin arteko koordinazio eta artikulazio formulak hobetzea beren ekintzak gauzatzerakoan.

Udal batek lankidetzaren aldeko konpromiso publikoa hartzen duenean, politika hori bere gobernu-esparru guztietara zabaltzea behar da (zeharkakotasuna). Lankidetzaren kontseiluak gune egokiena izan daitezke zeharkakotasun horri jarraipena egiteko.

Zereginari begiratuta, kontseiluak potentzialitate handia dute, informazio organo hutsak baino askoz gehiago izan baitaitezke⁷⁶. Hori erronka handia da kontseiluen atzean dauden erakunde publikoentzat eta euren parte hartzen duten entitateentzat. Askotan kontseiluak tresna informatibo hutsak izaten dira, parte-hartze gutxi eta proposamenak egiteko nola txostenak prestatzeko ahalmen gutxiago dutenak⁷⁷. Kontseiluak edukiz betetzea da une honetan daukagun erronka. Lan zaila da, zalantzarik gabe, baina aprobeztatu egin behar ditugu lankidetzako euskal kontseilu sektorialeak hartua duten norabidean lan egiteko aukera ematen diguten gune parte-hartzaileak. Bestalde, Prozedura Administrazioaren Legeak dio lankidetzaren kontseiluak kontsulta organoak direla, aginduzko txostenak egin ditzaketenak baina ez txosten lotesleak, eta horrek askotan atzeratu egin ditzake erakunde proposakorrak izateak.

76 Finkatu egin ditzakete plan zuzendariak gidatuko dituzten lehentasunak eta irizpideak eta udal ekintzen urteroko ebaluazioak egin ditzakete, besteak beste.

77 Badira bi kontseilu berebiziko lan ona egin dutenak: Gasteizko Kontseilua eta Euskal Kontseilua. Bietan lankidetzaren politikaren ebaluazioa eta balantzea egin da eta modu parte-hartzailean prestatu dira kasuan kasuko plan zuzendariak.

2.8. GENERO EKITATEAREN ALDEKO KONPROMISOAREN BILAKAERA EUSKAL LANKIDETZAN

Euskal lankidetzaren bilakaera aztertzerakoan ez dugu aipatu gabe utzi nahi izan eragile publiko nagusiek eta Garapenerako GGEek genero ekitatearen alde egin duten apustua. Elkar elikatu dute bide horretan eta euren elkarlanari esker euskal lankidetzak Estatuko erreferente bat bihurtu da genero ikuspegia garapenerako lankidetzan txertatzeari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzak Zuzendaritza 1996an hasi zen ahalegin batzuk egiten genero zeharkakotasunaren arloan. Bere lankidetzak politikaren printzipioen artean hauxe jarri zuen: *“Genero ikuspegia aintzat hartu eta bultzatu, ekintzak formulatu, gauzatu eta ebaluatzean”*. 2002. urtean erabaki zen diru-laguntzarik ez ematea genero ikuspegiak ez zeukaten proiektu eta hitzarmenei. Garai hartako Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzak Zuzendaritzak bultzatutako I. Plan Zuzendaria onartu zenean (2005-2008) egin zen saio argi eta sendoa leku sektorialetan genero ikuspegia txertatzeko, eta genero ekitateko leku transbertsal bat finkatu zen modu espezifikoan. Horrez gain, Plan Zuzendari horretan zehazten zenez, lankidetzarako aurrekontutik gutxienez %10 erabili beharko zen *“laguntza emateko emakume hutsez osatutako erakundeei, edo emakumeen jabeakuntza bultzatzera nahiz genero ekitate maila hobetzera espresuki bideratutako proiektuei”*.

Zuzendaritzaren II. Plan Zuzendariarekin (2009-2011) urrats kualitatibo handiak eman ziren, elkarrekin konbinatu baitziren garapenerako lankidetzak proiektu eta programa guztietan genero ikuspegia txertatzeko beharra, batetik, eta emakumeen jabeakuntza bultzatzeko eskakizuna, bestetik. II. Plan horretan aldatu gabe mantendu zen aurreko Planak ezarritako %10eko baliabide esleipena, eta funtsezko helburu hauek ere finkatu ziren: mugimendu feminista bisibilizatzea, emakumeen interes estrategikoak –adibidez, sexu eta ugalketa eskubideak– defendatzea, eta emakumeen aurkako indarkeria borrokatzea. Plan Zuzendari horrek izan zuen beste ekarpenik ere: tresna espezifiko bat sortu zuen euskal GGKEetan genero ekitatearen ikuspegia barneratzea ahalbidetuko zuen egitura-aldaketak finantzatzeko, eta Zuzendaritzak berak konpromisoa hartu zuen bere prozesu propioa prestatzeko.

Baita ere aipatu nahi genuke hemen EAEko hiru foru aldundiek elkarren artean abiatutako Plan Zuzendari bateratua (2009-2011), garapenerako lankidetzako euskal erakunde publikoek genero ekitatearen alde hartutako konpromisoaren adierazle gisa. Plan horretatik azpimarratu nahi genuke, batetik, genero ekitatea dela Planaren hiru ardatzetariko bat, eta, bestetik, bi tresna berri sortu dituela: bata, tokian tokiko aholkularitza teknikoak kontratatuz lankidetzak proiektuetan genero ikuspegia txertatzeko prozesua aitzinarazteko; eta, bestea, Hegoaldeko GGKEetan –euskal GGKEen tokiko bazkideetan, alegia– genero ekitatearen ikuspegia barneratzea ahalbidetuko duten egitura aldaketak finantzatzeko.

Euskal hiriburuei dagokionez, azpimarratu nahi genuke bai Bilboko eta bai Donostiako udalek garapenerako lankidetzak eta hezkuntza proiektuetarako egiten dituzten deialdietan ezinbesteko baldintza izaten dela proiektuek genero ikuspegia barneratua izatea. Gasteizko Udalari dagokionez, aitortu beharra dago aitzindari izan dela lankidetzak ekimenetan genero ikuspegia sartzen, 1993an egin zuen deialdian jarri baitzuen baldintza hori.

Gainerako udalerrietan genero ikuspegia ez da nahitaezko betekizuna. Goitik jota, aipu labur bat agertuko da deialdietako arauetan, esanez *“proiektuak genero ikuspegia txertatua izan beharko du”*, nahiz eta ezin jakin benetan txertatua duen ala ez.

GGEek eta erakunde publikoek elkarrekin lanean jarraitu behar dute genero ekitatea beti aurrera eramateko.

2.9. LANKIDETZA SAILEN GIZA BALIABIDEAK

Gainerako politika publikoekin gertatzen den bezala, kalitatezko lankidetzako politika garatzeko ezinbestekoa da lankidetzako deszentralizatua kudeatzeaz arduratuko direnek trebakuntza egokia edukitzea, bai garapenerako hezkuntzari dagokionean eta baita garapen proiektuen kudeaketan ere. Era berean, kudeaketa eraginkorra bermatzeko adinakoa izan behar du langile kopuruak.

Funtsak handituz eta lankidetzako politiken konplexutasuna eta espezializazioa areagotuz joan diren arren, ez da ikusi aldi berean erakundeek beren burua giza baliabide espezializatuz hornitu dutenik. Gasteizko Udala izan zen lankidetzako zerbitzu bat sortu zuen aurreneko udala, 1992an sortu baitzuen bere teknikariek. 1994an Donostiako Udalean formalki eratu zen Lankidetzako eta Tolerantziako Negoziatua, geroago Lankidetzako Negoziatua deituko dena. 2003ra arte itxaron behar izan zen Bilboko Udalak bere lankidetzako arlo propioa sortzeko: Lankidetzako eta Emakumearen Arloa⁷⁸.

Bizkaiko eta Arabako Aldundietan aurrerakuntza horiek 2009tik aurrera hasi ziren gertatzen, hau da, Plan Zuzentzaile bateratua onartu zen urtetik aurrera, une horretatik aurrera garapenerako lankidetzaren espezializatutako teknikariak hartu baitzituzten lankidetzako politika kudeatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du izan garapenerako lankidetzako arlo propioa, esparru horretako lana Kirol eta Kanpo Ekintza Sailaren barruan sartzen baitzen. 2011ko udal eta foru hauteskundeetan ostean gertatutako gobernu alaketarekin aurrerakuntzak gerta daitezke arlo horretan, oraingo gobernu taldeak asmoa baitu lankidetzako arloan espezializatutako teknikariak hartzeko.

EAEko dohaintza-emaile handiena den aldetik aipamen berezia merezi du Eusko Jaurlaritzak. Lankidetzako Zuzendaritza beka batekin aritu zen lanean, aholkulari postuetarako zuzenki izendatutako langileekin alegia, eta proiektuen baremazioaz arduratzen ziren. Azken aldia, Lankidetzarako Euskal Agentzia sortu eta gero, kudeaketa lana kanpo aholkulariek egin dute, bai eta garapenerako lankidetzaren espezializatutako gabeko Eusko Jaurlaritzaren administrazio langileek ere. Agentziaren organigraman garapenerako lankidetzaren espezializatutako bederatzi pertsona agertzen dira, baina langile horien hautatze prozesuak bi urteko atzerapena darama. Ondorioz, Agentziaren kudeaketaren zati handi bat (plangintzak prestatu, ebaluazioak egin eta proiektuak prestatu) aholkularitza enpresei eman zaie. Euskadiko GKEen Koordinakundearen ustez egoera hori oso kezagarria da eta alaitan arinen konpondu beharko litzateke⁷⁹.

Hiriburu ez diren herrietako udalen egoera larriagoa da oraindik⁸⁰. Kasu gehienetan lankidetzako ekimenak beste hainbatekin partekatzen dira: gizarte gaiak, berdintasuna, parte-hartzea, immigrazioa, etab. Horiek denek oro har ez dute izaten lankidetzaren kudeaketara bideratutako prestakuntzarik. Esan liteke "saski-naski bat" dela, non pertsona berberak kudeatu behar izaten baititu elkarren artean ia zerikusirik ez daukaten hainbat aurrekontu partida.

Azken finean, EAEko lankidetzaren arduratzen den langile kopurua eskasa da oraindik, eta garapenerako lankidetzari buruzko prestakuntza eskuratzeko zailtasunak ditu. Hala ere, eguneroko jardunean konplexutasun tekniko handiko lanak egiten ditu, nazioarteko lankidetzaren inguruko ezagutza zabalagoa eskatzen dutenak. Horrek, jakina, kalitatezko lankidetzako politikak garatu ahal izatea eragozten du.

Erakundeek ahalegina egin behar dute lankidetzako deszentralizatutako politikak eraginkorrak izan

78 Gaur egun Berdintasun, Lankidetzako eta Hiritartasun Arloa deitzen zaio.

79 Azterketa hau egiten ari ginen unean hasi berri ziren Agentziako langileak hautatzeko lehenbiziko azterketak. Hori gorabehera, 2012an beste aholkularitza batek barematuko ditu GKEek aurkeztzen dituzten proiektuak.

80 Kasu honetan Getxoko Udalaren salbuespena azpimarratu behar da, Lankidetzako zerbitzua eta honen kudeaketaz arduratzen duen teknikaria dauka eta. Irunek eta Hernanik ere langile espezifikoak dituzte lankidetzako politika kudeatzeko.

daitezen. Horretarako, besteak beste, ezinbestekoa da arlo horretan trebaturiko teknikariak kontratatzea. Ikerketa honetan egiten ari garen proposamenak garatzeko, beharrezkoak dira teknikari gaituak.

Lankidetzak politikak kudeatuko dituzten langileak kontratatuz gero, hori GLO aurrekontuetan islatu behar da, erakundeak lankidetzara eta garapenerako hezkuntzara egiten duen ekarpenaren zati baita.

2.10 GARDENTASUN ETA KONTU EMATEA

Azterketa hau egiteko izan dugun zailtasun handienetako bat datuak lortzea izan da, eta behin datuak lortu ondoren kontrasterako parametro objektibo batzuk finkatzea, oso ezberdinak direlako erakunde publikoek datu horiek sistematizatzeko darabiltzaten irizpideak (sistematizatzen dituztenean).

Erakunde deszentralizatueta gutxitan ematen zaie herritarrei ezereen konturik, izan ere kasu gehienetan ezinezkoa izaten baita zehatz jakitea zein den erakunde publiko batek lankidetzara bideratzen duen ehuneko zehatza edo nola erabili diren diru-laguntzerako deialdi publikoetara atera ez diren laguntzak.

Badakigu zeinen zaila den datu zehatzak lortzea lankidetzarako aurrekontua partida bakar batean zentralizatuta ez dagoenean, eta are kudeaketa gune ezberdinetan dagoenean ere. Baina ez dugu ahaztu behar datu horiek publikoak direla, herritarrek erraz kontsultatu ahal izan beharko lituzketenak. Erakunde askok ez dute puntuazio-baremoen kontu publikorik ematen, eta emanak dituzten diru-laguntza guztien azken ebazpenak ere ez dituzte ezagutarazten. Iluntasun hori areago larritzen da diru-laguntzetarako deialditik kanpo GKE batekin zuzenean eta bilateralki sinatutako hitzarmenen kasuan. Gainera, egoera horrek arriskua ekartzen du lankidetzarako partidetan sartzeko, inolako kontrolik gabe, lankidetzarekin batera zerikusirik ez duten beste ekintza batzuetako gastuak. Kontuan izanik, gainera, GKEok behartuta gaudela erakundeei gure lanaren kontuak ematera, eta nola konpromiso hori gizartearen aurrean ere hartuta daukagun -gure portaera kodean jasota dagoen bezala-, gauza bera itxaron beharko litzateke erakunde publikoetatik. Informazio hori, beraz, modu arin eta errazean eman beharko litzateke.


Euskal lankidetzaren publikoaren kalitate eta eraginkortasunaren gaineko eztabaida arrazoitu eta hausnartuan aurrera egiteko ezinbesteko baldintza da gardentasuna eta kontu ematea, ez bakarrik lanak ongi fiskalizaturik eta herritarrek ongi zainduta egiten direla bermatzeko, baina baita ere baldintza hobeak sortzeko garapenerako nazioarteko lankidetzaren politikari buruzko eztabaida publiko baterako. Parte-hartze ariketa horretarako datuak behar dira, baina datu eguneratuak eta homogeenak, konparagarriak izan daitezten bai erakunde publiko ezberdinen artean eta bai erakunde barruan, eta lagundu diezaguten euskal esparruko lankidetzaren eta garapen politika publikoei buruz eztabaidatzen. Datuak behar dira euskal lankidetzaren publikoaren benetako egoera ezagutzeko eta baita ere lagundu diezaguten kalitateari eta eraginkortasunari buruzko eztabaida bideratzen geure errealitateetik abiatuta, geure lankidetzaren ezaugarri eta ahalmenetara egokiturik. Kontu ematearen beharra eztabaida eta debate publikoari laguntzeko tresna bat bezala ulerturik eskatzen dugu gutxienean adostasun bat lortzea gardentasunari eta kontu emateari buruz, eskakizun hori berdina izan dadin garapenerako nazioarteko lankidetzaren lanean inplikaturik erakunde publiko guztientzat.

Horretarako, proposatzen dugu datuak publikoak izatea, web bidez irisgarriak, eta funtsen erabilera zehatza jakin nahi duten guztiek erraz erabiltzeko moduko formatu batean emanak.

Euskal lankidetzaren gisa aukera dugu berrikuntzak sartzeko gardentasun mekanismoetan eta gure erdidegoko dohaintza-emailen nagusien arteko koordinazioa handitzeko. Horregatik, ezin dugu ahaztu kontuak emateko erantzukizun partekatua ez dela mugatu behar arlo ekonomikora, baizik eta tresnak prestatu behar direla (informazio sistemak eta txosten publikoak, ebaluazioak, lorpenen neurketak, eta abar) ikusteko, prozesu parte-hartzaile eta aholku-emailen bidez, nola betetzen diren estrategiak, helburuak eta emaitzak. Kontua ez da lan gehiago gehitzea lehengoari, baizik eta hobeto baliatzea lehendik daukaguna, jada asmatuta dagoena eta gutxi-asko ondo funtzionatzen duena.

Informazioa herritarrei helarazi

Aztertu ditugun erakundeen %64k dio herritarren jakinean jartzen dutela lankidetzara bideratzen dituzten funtsekin egiten duten lana. Komunikazio horretarako gehien erabiltzen duten tresna tokiko komunikabideak dira, eta ondoren GKEen erakusketak eta azokak. Aztertutako erakunde publikoen artean bakarrik %10ak esan digu datu horiek memorietan argitaratzen dituztela. Deigarria da zeinen txikia den portzentaje hori eta, baita ere, Euskadiko erakunde nagusietariko batzuk ez egotea sartuta talde horretan⁸¹.



Iturria: Geuk prestatua erakunde publikoek emandako datuekin.

81 2010ean, EAEko zazpi erakunde nagusien artetik bakarrik Bilboko Udalak eta Gasteizko Udalak argitaratu zuten beren lankidetzara jardueren memoria bat. Lankidetzarako Euskal Agentziak bere Plan Zuzendariaren ebaluazioa egin zuenean argitaratu zuen memoria hori. Hiru Foru Aldundietatik batek ere ez du jasotzen memoria batean lankidetzara arloko bere jarduna, eta Donostiako Udalak ere ez.

3.

ONDORIOAK ETA
GOMENDIOAK

ZERGATIK LANKIDETZA DESZENTRALIZATUA

Erakunde deszentralizatuak oso egitura egokia dira lankidetzako politikak gauzatzeko, garapenaren ikuspegi deszentralizatuaren hainbat aktore hartzen direlako kontuan eta garrantzi berezia ematen zaielako lpar eta Hegoaldeko gizarte zibilei nola tokiko gobernuei. Horrez gain, deszentralizazioak balio erantsi bat dauka: lagundu egin dezake toki esparruko garapen planak ados jartzen tokiko populazioak prozesu parte-hartzaileen bidez identifikatzen dituen lehentasunekin, lagundu egin dezake baita ere tokiko gobernuek hiritarrei zerbitzuak emateko duten ahalmen instituzionala indartzen, gizarteak sentsibilizatzen, kontzientzia kritikoa lantzen, e.a. Funtsean, politika publiko bat da, eta helburutzat dauka pobrezia murriztea, desberdintasunen aurka borrokatzea eta giza garapen iraunkorra bultzatzea. Politika horren sustraian dagoen ideia da gobernu horiek funtsezko erantzukizuna dutela Hegoaldeko herri eta hirietan giza eskubideak eta garapena bermatzeko lanetan.

Beraz, lankidetzaren deszentralizatuaren legimitate iturria bere izaera berezia da, bere beharrezkotasuna, besteak ez bezalakoa izatea, eta ezaugarri hauek ditu:

- Gizarte zibilaren protagonismoa indartzen du, hiritarren lankidetzaren tresna bihurtutako GGKEen eta irabaz asmorik gabeko erakundeen bitartez;
- hegoaldeko toki administrazioen gaitasunak indartzen ditu;
- hegoaldeko gizarte ekimenak indartzen ditu, proposamenak sortzerakoan oso kontuan hartzen baitira prozesu parte-hartzaileak, gizarte zibila indartzen dutenak;
- euskal hiritarrok geure gizartearekin bezala gizarte pobretuekin ere daukagun engaia-mendu politiko eta soziala sendotzen du, horrela gure herriko gizarte zibila oinarritik eta oso modu kapilarrean indartuz;
- apustu egiten du garapenerako hezkuntzaren alde, bide horretatik lparaldean burutu beharreko gizarte aldaketa sustatzeko eta kanpo nola barneko desberdintasunak tartea murrizteko;
- aintzat hartzen ditu lokarri afektiboak eta herrialdeetako errealitatea beste herrialde batzuetako jendeekin partekatutako historiaren bitartez, estuki lotuz lankidetzaren eta elkartasuna;
- desberdintasunen arrazoi estrukturaletara zuzenean bideratutako ekintzak indartzen ditu eta mantendu egiten ditu genero ikuspegia txertatuz lortu diren aurrerapenak, pertsona guztien taldeko nahiz banakako giza eskubide guztien inplementazioa eta iraunkortasun ekologikoa;
- "antilankidetzaren" aurkako ekintzak bultzatzen ditu, hau da, eginahalean saihesten dira Hegoaldean eragin okerra izan dezaketen lparaldean sortutako ekintza guztiak (edozein izanik ere ekintza horiek gauzatzeko modua eta euren lan-esparrua, jatorria eta helburua)..

GARAPEN INSTITUZIONALA

Instituzioen ikuspegitik EAEko administrazio deszentralizatuek eredu propio baten alde egin dute apustu. Lan honetan aztertu dugun epealdian gertakari hauek ohartu ditugu:

- Lankidetzarako Euskal Agentzia sortu da;
- lankidetzak gora egin du Foru Aldundien politika publiko bezala. Horretarako, Aldundiek plan zuzentzaile bateratu bat onartu dute eta beren departamentuak giza-baliabidez hornitu dituzte;
- Euskal Fondoak organo politiko anitza bezala mantendu da, ez da jarri inongo alderdi politiko-ren menpe eta bere zeregin koordinatzaileari eutsi dio;
- finkatu egin dira lankidetzako politikak EAEko hiru hiriburuetan: marko instituzional bat sortu da eta lankidetzarako politika bat moldatu;
- gainerako erakundeetan ez dugu ikusi aldaketa esanguratsurik. Lankidetzako ekintzak lausotuta geratzen dira beste ekintza askoren artean (gizarte gaiak, immigrazioa, parte-hartzea, e.a.).

Halere, eta lankidetzako politikak finkatu egin badira ere, zurruntasun, burokrazia, deskoordinazio eta barreiadura sintomak ageri dituzte. Halaber, zailtasunak eta atzerapenak daude Lankidetzarako Euskal Agentzia martxan jartzeko.

GOMENDIOAK

- Euskadiko lankidetzako agente guztien arteko koordinazioa indartu, batez ere erakunde-artekoa (Erakunde-arteko Batzordea, lankidetzako agenteen errolda...), Lankidetzarako Euskal Legea bete dadin;
- Foru Aldundiek har dezatela berriro koordinazioaren eta plangintza bateratuaren bidea;
- udalek elkarrekin lan egin dezatela hobeto koordinatuta, Euskal Fondoak eskaintzen dizkien aukerak aprobetxatuz eta arautegietan nola tresnetan dagoen barreiadura saihestuz;
- lankidetzako udalaren organigraman kokatu. Udaletako beste edozein programaren antzera, beharrezkoa da lankidetzako udaleko batzarkide baten ardurapean jartzea. Kontua ez da udal organigrama konplikatzea, baizik erakundearen ordezkaritza identifikatzea profil zehatzeko norbaitengan, herritarrek erraz ezagutuko dutena.

LAGUNTZAREN BANAKETA: ZUZENeko ETA ZEHARKAKO LANKIDETZA

EAEko lankidetzaren gehiena zeharka kudeatzen dute GGKEek diru-laguntzetarako deialdien bidez. Hala dela aitortzen du Lankidetzarako Euskal Legeak esaten duenean GGKEak direla lankidetzako agente garrantzitsuenak. Halere, azken urteotan erakunde nagusiak zuzeneko lankidetzaren ekintzak bultzatu nahian ari dira, eta batzuetan arrakastaz ari ere, ondo aprobetxatzen jakin dituztelako zerbitzu publikoen kudeaketa arloan daukaten esperientzia eta deszentralizazio prozesuak. GGKEek egin duten lankidetzaren oso zorrotz kontrolatzen da hasieratik amaieraraino. Halere, batzuetan zuzeneko lankidetzak ezagun izaten du ez daukala ohitura askorik bere ekintzen kontuak behar bezala emateko.

GOMENDIOAK

- Kudeaketa-esparru espezifikoetan eta udal estrategietan irabazitako jakintza eta gaitasunak aprobetxatu, zuzeneko lankidetzaren ekintzak bideratzeko erakundeko beste departamentu batzuen laguntzarekin;
- errespetatu Lankidetzarako Euskal Legeak ezartzen duen muga eta inoiz ez erabili funtsen %10 baino gehiago zuzeneko lankidetzan;
- diskrezionalitate guztiak saihesteko, zuzeneko lankidetzaren ekintzak burutzerakoan erabili GGKEek darabiltzaten plangintza, kalitate eta gardentasun irizpide berdinak.

NOLA KALKULATU ZENBAT DIRU BIDERATZEN DEN LANKIDETZARA

Erakundeek oso modu ezberdinetan kalkulatu dute zenbat diru bideratzen duten garapenera, bakoitzak bere lehentasunen arabera egiten baitu kalkulu hori (gastuen aurrekontua, sarrera propioen aurrekontua, aurrekontuetako partida ezberdinen nahasketa, e.a.). Beraz, ezinezkoa da euren arteko konparaziorik egitea ematen dituzten datuetan oinarriturik. Ez dezagun, bestalde, ahaztu Barne Produktu Gordina dela garapenarekiko konpromisoa neurtzeko nazioarteko neurria.

GOMENDIOAK

- Administrazio maila ezberdinen arteko korrespontsabilitatea bilatu eta finkatu irizpide bat konpromisoa banatzeko, denen artean BPGren %0,7ra iristeko helburuarekin;
- sistema bateratu bat erabili lankidetzaren bideratuko den zenbatekoa kalkulatzeko. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak finkatutako aurrekontu totalak⁸² hartzen ditu erreferentziatzat denen artean BPGaren %0,7 horretara iristeko lehen urratsa bezala.

82 Finkatutako aurrekontu totala: Erakundearen aurrekontu totala, organismo autonomoak barne..

LANKIDETZAKO AURREKONTUAK

Ekonomia krisialdian sartu denetik, Estatuko Autonomi Erkidego guztietan lankidetzako aurrekontuak askoz bizkorrago murriztu dira Autonomi Erkidegoen aurrekontu osoak baino. Krisialdia aitzakiatzat hartzen ari dira astiro-astiro ahultzeko Autonomia Erkidegoak, udalak eta Aldundiak 90eko hamarkadatik hona egiten ari diren elkartasuneko politika publikoak.

Aztertuz gero nolako bilakaera izan duten datu horiek EAEn, eta kontuan harturik zeinen zaila den erakunde publikoen datuak eta aurrekontu bateratuen zenbatekoak lortzea, gure konparaketa egiteko erabaki dugu aurrekontu osoak hartzea oinarri, organo autonomoen aurrekontuak sartu gabe. Argitu behar dugu, halere, beti aipatuko ditugula aurrekontuan agertzen diren zenbakiak, ez urtaldi bakoitzean benetan exekutatu diren zenbatekoak.

Aztertu dugun hiru urteko epealdian EAEn lankidetzara bideratzen den diru kopurua egonkor mantendu da, aldaketa txiki batzuekin: 2010ean EAEko erakunde publikoek ia 83 milioi euro erabili zuten lankidetzan, hots, euren aurrekontu osoen %0,53, ozta-ozta urte hartako BPGren %0,13. Alde batera utzirik %0,7 sinbolikora iritsi den ala ez, kontua da euskal erakundeek ez dutela aprobetxatu ekonomiaren oparoaldia diru gehiago jartzeko lankidetzan.

Administrazio guztiek lankidetzara bideratu duten zenbakiei begiratuz gero, 2010ean Eusko Jaurlaritzak eman zuen euren laguntza osoaren erdia baino gehiago (%61).

Modua izan dugu euskal erakunde nagusietako datu eguneratuak lortzeko, eta eurek aztertuta ikusi dugu 2010etik aurrera zenbatekoa astiro murriztuz joan dela krisialdi ekonomikoaren ondorioz, halako gisaz non 2012ko lankidetzarako aurrekontuak orain dela sei urtekoen mailaraino jaitsi baitira. Halere, konparatzen badugu bilakaera hori eta Estatuko gainerako lurraldeetan gertatzen ari dena, euskal lankidetzara oraindik osasuntsu ageri da. Horri dagokionez, aitortu beharra dago Euskadiko ia erakunde guztiak eginahalean saiatzen ari direla elkartasunaren alde egin duten apustuari eusteko, krisia gorabehera, nahiz badiiren salbuespen negargarri batzuk, hala nola Gasteizko Udala, non lankidetzarako partida ia ezabatuta dagoen.

GOMENDIOAK

- Garapenerako laguntza ezin egon daiteke diru hondar batzuk eskura izatearen ala ez izatearen mende. Udalerrri batek maila guztietan dituen beharrianak neurtu eta konparatu ondoren hartutako erabaki politiko bat izan behar da garapenerako laguntza. Beraz, baldin erabaki politiko bat hartzen bada lankidetzara solidario, engaiatu eta sozialki legitimatuaren alde, erabaki horrek nahitaez egon behar du jasota, gutxi bada gutxi, udal aurrekontuan;
Genero ikuspegia baldintza baztertzaila da -	EZ	EZ	EZ

	2010. Urtea
PARTIDAREN BANAKETA	
Garapenerako proiektuak -	52.302,67€
Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa -	5.859,52€
Ekintza humanitarioa -	4.785,10€
Besteak (kuotak, protokoloak, gastu arrunta, bekak...) -	
EBAZPENAK (GEHIENGOENETIK GUTXIENERA) KONTUTAN HARTURIK	
Eremu geografikoak -	Saharaz Hegoaldeko Afrika, Afrikako Iparralde, India
Populazioa -	Desplazatuak, gazteria, landaguneetako p., haurtzarora, populazioa orokorrean
Sektoreak -	Hezkuntza, azpiegiturak
Zeharkako ildoak -	Ingurugiroa, giza eskubideak, generoa
Herritarrei jakinaraztea -	Postontzietan banatzea, hitzaldiak, erakusketak, tokiko hedabideei berri emanez, Lankidetzak Astea, txostena

ZUMARRAGAKO UDALA

BIZTANLE KOPURUA	10.037
HARREMANETARAKO PERTSONA	Luis Miguel Mateo
LANKIDETZA FUNTSAK KUDEATZEAZ ARDURATZEN DEN SAILA	Gizarte Zerbitzuak
TELEFONOA, E-POSTA	943 72 90 22 informazioa@zumarraga.net

	2008. Urtea	2009. Urtea	2010. Urtea
Udalaren aurrekontu orokorra -	12.429.730€	13.665.825€	14.032.575€
Udalaren aurrekontu oso bateratua (organismo autonomoak barne) -	17.251.019€	17.007.554€	17.348.097€
LANKIDETZARAKO AURREKONTUKO PARTIDAREN ZENBATEKOA (Ekintza humanitarioa, garapenerako lankidetzak, edo/eta garapenerako hezkuntza) -	75.479,76€	96.000€	98.228€
Aurrekontu orokorraren gaineko % -	%0,61	%0,70	%0,70
Aurrekontu oso bateratuaren gaineko % -	%0,44	%0,56	%0,57
LANKIDETZARAKO PARTIDA KUDEATZEKO MODUA			
Diru-laguntzen deialdi publikoa -	75.479,76€	96.000€ (GAO 09-05-06)	98.228€ (GAO 10-03-17)
Euskal Fondona -			
Eudel -			
Hitzarmenak eta dirulaguntza zuzena -			
PROIEKTUAK AUKERATZEKO LEHENTASUNAK			
Eremu geografikoak -		Ez dago lehentasun zehatzik	Ez dago lehentasun zehatzik
Populazioa -		Ez dago lehentasun zehatzik	Ez dago lehentasun zehatzik
Sektoreak -		Giza garapen sustapena, oinarrizko behar sozialak	Giza garapen sustapena, oinarrizko behar sozialak
Zeharkako ildoak -		Generoa	Generoa
Bestelakoak -			
Proiektu bat aurkezteko baldintzak -		Herriko GGKEek, irabazi-asmorik gabeko elkartea izatea, lankidetzako esperientzia	Herriko GGKEek, irabazi-asmorik gabeko elkartea izatea, lankidetzako esperientzia
Genero ikuspegia baldintza baztertzailerak da -		EZ	EZ

	2010. Urtea
PARTIDAREN BANAKETA	
Garapenerako proiektuak -	75.000€
Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa -	
Ekintza humanitarioa -	12.000€
Besteak (kuotak, protokoloak, gastu arrunta, bekak...) -	11.228€ (oporrrak bakean)
EBAZPENA (GEHIENGOENETIK GUTXIENERA) KONTUTAN HARTURIK	
Eremu geografikoak -	Erdialdeko Amerika, Iparraldeko Afrika, Hego Amerika, Saharaz Hegoaldeko Afrika, Asia
Populazioa -	
Sektoreak -	Osasuna, hezkuntza, azpiegiturak
Zeharkako ildoak -	
Herritarrei jakinaraztea -	Tokiko hedabideei berri emanaz

II.

Koordinakundeak
erakunde publikoei
bidalitako gutuna

Estimado/a,

Reciba un cordial saludo de la Coordinadora de ONGD de Euskadi, integrada por 82 ONGD, y que desde 1988 tiene el objetivo de favorecer la coordinación entre las ONGD, abrir espacios de reflexión y promover la sensibilización de la sociedad vasca acerca de la realidad de los países empobrecidos.

Entre las actividades planificadas para el 2011 está la elaboración de un Estudio sobre la Cooperación al Desarrollo en nuestra Comunidad Autónoma, desde el punto de vista de la financiación pública. Para ello, vamos a recoger los datos de los montos y destinos de las partidas de cooperación y sensibilización de Gobierno Vasco, Diputaciones y Ayuntamientos en los años 2008, 2009 y 2010.

Este Estudio que se publicará en 2012 supone un paso adelante hacia un mejor conocimiento de la realidad de la cooperación pública vasca, así como un ejercicio de transparencia que acercará a la ciudadanía las políticas de cooperación de sus administraciones públicas más cercanas.

Para realizarlo contamos además con el apoyo de la Agencia vasca de cooperación y de Euskal Fondoak.

A fin de recoger la información, os remitimos adjunto un cuestionario para la recogida de datos.

Con la colaboración de todas y todos confiamos en obtener una visión conjunta global de la cooperación pública impulsada desde nuestra comunidad autónoma.

Atentamente,

Ana María Arriola
Presidenta de la Coordinadora de
ONGD de Euskadi

Adiskide hori,

Jaso ezazu Euskadiko GGKEen Koordinakundea-ren agurrik beroena. Euskadiko GGKEen Koordinakundea 82 GGKEk osatzen dute eta 1988tik lanean dihardu GGKEen arteko koordinazioaren alde, gogoetarako guneak zabalduz eta herrialde txiroen errealitatearekiko sentsibilizazioa sustatuz euskal gertutearan.

2011. urterako planifikatu ditugun ekintzen artean Garapenerako Lankidetzari buruzko ikerketa bat dago, gure autonomi erkidegoan burutuko dena finantzazio publikoaren ikuspegitik. Horretarako, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiek eta Udalek Garapen eta Sentsibilizaziorako bideratu dituzten partiden zenbatekoei eta jomugei buruzko 2008, 2009 eta 2010. urteetako datuak bilduko ditugu.

2012an argitaratuko den azterlan hori pauso bat izango da EAEko lankidetzari buruzko errealitatea hobeto ezagutzeko eta, bestalde, gardentasun ariketa bat ere bai, baliagarri izango den herritarrak beren inguruko administrazio publikoetako lankidetzari politiketara gerturatuzko.

Lankidetzarako Euskal Agentziaren eta Euskal Fondoaren laguntza izango dugu lana burutzeko.

Datuak biltzeko, galdetegi labur bat bidaltzen dizuegu atxikita.

Espero dugu guztion laguntzari esker posible izango dela gure autonomi erkidegoak bultzatutako lankidetzari buruzkoaren ikuspegi bateratu eta globala eskuratzea.

Adeitasunez,

Ana María Arriola
Euskadiko GGKEen
Koordinakundeko presidentea



Garapenerako
Lankidetzaren Euskal
Agentziak erakunde
publikoei bidalitako
gutuna



**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**

**AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO**

Adiskideok

GGKEen Euskadiko Koordinakundearen erronketako bat da ikerketa bat egitea Euskadin egiten den Garapenerako Lankidetzaz aztertzeko. Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak oso positiboki baloratzen ditu horrelako ekimenak. Agentziaren apustuetakoa bat hain zuzen ebaluaketa da eta zenbait prozesu abiarazi ditugu garapenerako euskal politiketan ebaluaziorako kultura progresiboki sartzeko.

Horregatik, uste dugu beharrezkoak eta baliagarriak direla helburu horretara garamatzaten ahalegin guztiak. Gogoeta egiteko eta ikasteko espazioak irekitzen dizkigute eta, bide horretatik, gure esku-hartzeak hobetu ditzakegu kalitate handiagoko sistema bat eraikitzen.

Eskutitz honen bidez, eta ongi jakinik hainbat zailtasun daudela, Koordinakundeak hasi duen prozesu honetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Inplikazio aktiboarekin eta antolakunde, erakunde eta beste eragileen arteko aliantzarekin bakarrik lortuko dugu ondorioak ateratzea eta sektorearen errealitateari erantzun zuzenaren etorkizuneko iradokizunak jasotzea.

Gainera, aurrera egingo dugu garapenerako helburu komunak lortzeko bidean.

Eskerrik asko ahaleginagatik eta jaso ezazue agur bero bat

Marta Ares Godoy
Lankidetzarako Euskal Agentziako zuzendaria

IV.

Erakundeetako
lankidetza arduradunei
bidalitako galdetegia

EUSKADIKO LANKIDETZA PUBLIKOARI BURUZKO IKERKETA 2008-2009-2010

GALDETEGIA

1. DATU OROKORRAK:

1	Udalaren izena:			
2	Biztanle kopurua (azken erroldaren arabera):			
		2008	2009	2010
3	Aurrekontu orokorra:			
		2008	2009	2010
4	Aurrekontu orokor bateratua:			

2. LANKIDETZA FUNTSAK:

5	Garapenerako Lankidetzarako partidarik ba al dago? (garapenerako lankidetzak, garapenerako hezkuntza edota ekintza humanitarioak)	SI:		
		NO:		
		2008	2009	2010
6	Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zenbatekoa (€):			
7	Partida kudeatzeko arduraduna:			
	Pertsonaren izena:			
	Arduradun Saila:			
	Helbide elektronikoa:			
	Telefonoa:			
	Posta helbidea:			
		2008	2009	2010
8	Euskal Fondoako kide izanez gero, adierazi erakunde horretara bideratutako lankidetzak partidaren zenbatekoa:			
		2008	2009	2010
9	Eudeleko lankidetzak proiektuekin kolaboratuz gero, adierazi erakunde horretara bideratutako lankidetzak partidaren zenbatekoa:			

3. LANKIDETZA FUNTSEN KUDEAKETA:

- 10 Garapenerako Lankidetzarako diru-laguntza deialdia aldi-aldian argitaratzen al da?

BAI:

11.galderara jo

EZ:

15.galderara jo

- 11 Erantzuna baiezkoa bada: **Zenbatero** (X batez markatu):

Urtero:

Bi urtez behin:

Beste batzuk (zehaztu):

Argitalpen data 2008an (hila eta urtea):

Argitalpen data 2009ean (hila eta urtea):

Argitalpen data 2010an (hila eta urtea):

2008

2009

2010

Deialdiari zuzentzen zaion **zenbatekoa** adierazi (€):

----------------------	----------------------	----------------------

Deialdia aldi-aldian argitaratzen bada

- 12 Ba al da irizpideak ezarrita dituen oinarri finkorik lankidetzako deialdi horietarako?

BAI:

EZ:

- 12.1 Genero Ikuspegiaren barneratze baldintza baztertzailea da?

BAI:

EZ:

- 13 Zelako lehentasunak dauzka deialdiak?
(X batez markatu baliozko aukera guztiak)

2008

2009

2010

Erdialdeko Amerika eta Mexiko:

----------------------	----------------------	----------------------

Hego Amerika:

----------------------	----------------------	----------------------

Afrika iparralde:

----------------------	----------------------	----------------------

Saharaz Hegoaldeko Afrika:

----------------------	----------------------	----------------------

Asia:

----------------------	----------------------	----------------------

Beste batzuk (zehaztu):

----------------------	----------------------	----------------------

Populazioa:

	2008	2009	2010
Hautzaroa:			
Gazteria:			
Emakumeak:			
Populazio indigena:			
Landaguneetako populazioa:			
Hiriguneetako populazioa:			
Ezinduak:			
Desplazatuak:			
Beste batzuk (zehaztu):			

Proiektuetako sektoreak:

	2008	2009	2010
Azpiegiturak:			
Osasuna:			
Hezkuntza:			
Ekoizpen proiektuak:			
Emakumearen empoderamendua:			
Beste batzuk (zehaztu):			

Zeharkako Lerroak:

	2008	2009	2010
Generoa:			
Ingurugiroa:			
Giza Eskubideak:			
Beste Batzuk (zehaztu)			

Beste lehentasun batzuk:

	2008	2009	2010
Tokian-tokiko populazioarekin senidetzea:			
Udalerriko kooperanteak edota misiolariak izatea:			
Historikoki kooperatu izan da erkidego edota eskualde horrekin:			
Erakundeak genero politika izatea:			
Beste batzuk (zehaztu):			

- 14 Diru-laguntza eskatu ahal izateko betebeharreko baldintzak: (X batez markatu baliozko aukera guztiak)

GGKEaren etengabeko egoitza:	2008	2009	2010
udalerrikoa izatea:			
probintziakoa izatea:			
Euskadikoa izatea:			
hainbat urtetako gutxieneko esperientzia izatea:			
Herrian sentsibilizazio jarduerak egitea:			
Dirua irabazteko asmorik gabekoa:			
Beste batzuk (zehaztu):			

Aldian-aldian deialdia EZ bada argitaratzen:

- 15 Nola kudeatu dituzte lankidetzak funtsak? (€-tan)

	2008	2009	2010
Euskal Fondoaren bitartez:			
Eudelen bitartez:			
Zuzeneko lankidetzaz:			
Beste batzuk (zehaztu):			
	0.00 €	0.00 €	0.00 €

- 16 Erakundeak ba al du nolabaiteko lehentasunik? (X batez markatu baliozko aukera guztiak)

Eremu geografikoak:	2008	2009	2010
Erdialdeko Amerika eta Mexiko:			
Hego Amerika:			
Afrika iparraldea:			
Saharaz Hegoaldeko Afrika:			
Asia:			
Beste batzuk (zehaztu):			

Populazioa:

	2008	2009	2010
Hautzaroa:			
Gazteria:			
Emakumeak:			
Populazio indigena:			
Landaguneetako populazioa:			
Hiriguneetako populazioa:			
Ezinduak:			
Desplazatuak:			
Beste batzuk (zehaztu):			

Proiektuetako sektoreak:

	2008	2009	2010
Azpiegiturak:			
Osasuna:			
Hezkuntza:			
Ekoizpen proiektuak:			
Emakumearen empoderamendua:			
Beste batzuk (zehaztu):			

Zeharkako Lerroak:

	2008	2009	2010
Generoa:			
Ingurugiroa:			
Giza Eskubideak:			
Beste Batzuk (zehaztu)			

Beste lehentasun batzuk:

	2008	2009	2010
Tokian-tokiko populazioarekin senidetzea:			
Udalerriko kooperanteak edota misiolariak izatea:			
Historikoki kooperatu izan da erkidego edota eskualde horrekin:			
Erakundeak genero politika izatea:			
Beste batzuk (zehaztu):			

4. 2010eko EBAZPENA KONTUTAN HARTUTA:

17 2010eko Ebazpenean, nola banatu dira deialdiko diru-laguntzak?

Deialdien kopuruak (€-tan):

Ekintza humanitariorako eta larrialdietarako:
Garapenerako Lankidetzarako
Sentsibilizaziorako eta Garapenerako Hezkuntzarako
Guztira

2010

0.00 €

u geografikoak kontuan harturik :

(€-tan zehaztu zonalde geografiko bakoitzari zuzendutakoa):

Erdialdeko Amerika eta Mexiko:
Hego Amerika:
Afrika iparraldekoa:
Saharaz azpiko Afrika:
Asia:
Beste batzuk (zehaztu):

2010

0.00 €

Guztira (kopuru hau garapenerako lankidetzara bideratu-takoaren berdina izan behar du):

Populazioa kontutan harturik:

(€-tan zehaztu populazio mota bakoitzari zuzendutakoa):

Haurtzaroko:
Gazteria:
Emakumeak:
Populazio indigena:
Landaguneetako populazioa:
Hirietako populazioa:
Ezinduak:
Desplazatuak:
Beste batzuk (zehaztu):

2010

0.00 €

Guztira (kopuru hau garapenerako lankidetzara bideratu-takoaren berdina izan behar du):

Proiektuetako sektoreak kontuan harturik:

(€-tan zehaztu sektore ezberdinei zuzendutakoa):

Azpiegiturak:

Osasuna:

Hezkuntza:

Ekoizpen proiektuak:

Emakumearen Empoderamendua:

Beste batzuk (zehaztu):

Guztira (kopuru hau garapenerako lankidetzara bideratu-takoaren berdina izan behar du):

2010

0.00 €

Zeharkako Lerroak kontutan harturik:

(€-tan zehaztu sektore ezberdinei zuzendutakoa):

Generoa:

Ingurugiroa:

Giza Eskubideak:

Beste Batzuk (zehaztu)

Guztira (kopuru hau garapenerako lankidetzara bideratu-takoaren berdina izan behar du):

2010

0.00 €

Beste lehentasun batzuk kontutan harturik:

(€-tan zehaztu sektore ezberdinei zuzendutakoa):

Tokian-tokiko populazioarekin senidetzea:

Udalerriko kooperanteak edota misiolariak izatea:

Historikoki kooperatu izan da erkidego edota eskualde horrekin:

Erakundeak genero politika izatea:

Beste batzuk (zehaztu):

Guztira (kopuru hau garapenerako lankidetzara bideratu-takoaren berdina izan behar du):

2010

0.00 €

5. HERRITARREI JAKINARAZTEA:

18 2010ean egon ahal da erakundeak antolaturiko sentsibilizazio kanpainarik udalerrian?

BAI:

EZ:

19 Sentsibilizazio lanak egin dira beste GKE, emakume talde, koordinakunde edota mugimendu sozialekin?

BAI:

EZ:

20 Egin al da erakundeak diruz lagundutako proiektuak herritarrei ezagutarazteko ekintza zehatzik?

BAI:

EZ:

21 Erantzuna baiezkoa bada, zer ekintza mota?

Informazioa postontzietan banatzea:

Informazioa emateko hitzaldiak:

Erakusketak:

Gaiari buruzko artikulak udal aldizkarian:

GKEen azokak antolatzea:

Tokian tokiko komunikabideetan informatzea:

Memoria.

Beste batzuk (zehaztu):

6. OHARRAK, IRADOKIZUNAK ETA IRUZKINAK EGITEKO TARTEA:

Mila esker zure laguntzagatik!

V.

Erakundeetako
lankidetza arduradunei
bidalitako posta

Enviar

CC...

Asunto:

Kaixo,

Euskadiko GGKEen Koordinakundetik zure laguntza eskertzen dizugu 2008-2010 Euskal Lan-kidetza Publikoaren ikerketan parte hartzearen, gure galdetegia erantzuteak esfortzu bat suposatu dizula baitakigu.

Datu bilketa bukatu dugu eta zure udalerriko fitxako datuak bidaltzen dizkizugu, publikatuko diren modura.

Ondo ez dagoen daturik, edota ados ez zauden daturen bat aurkitu ezker, eskertuko genizuke Urriaren 14-a, ostirala, baino lehen telefonoz edota korreo eletronikoz jakinaraziko bazenigu. Data horretan bukatutzat emango baitugu udalerrietako fitxen diseinua.

Aldez aurretik eskerrak emanez agurtzen zaituztet.

Irune Martínez Beaskoetxea
Coordinadora de ONGD de Euskadi-Euskadiko GGKEen Koordinakundea
Tel/fax: 94 415 03 00
e-mail: ikerketa@ongdeuskadi.org
www.ongdeuskadi.org

VI.

Garapenerako politika
publikoen koherentzia

GARAPENERAKO POLITIKA PUBLIKOEN KOHERENTZIA

Garapenerako politiken koherentzia maila instituzional guztietan jasota dagoen gai bat da, baita Euro-par Batasunean ere, non gai hori lantzen duten hainbat dokumentu baitaude. Nazioarteko erakundeen arteko koherentzia politikoa ardatz nagusietako bat izan zen Lanaren Nazioarteko Erakundeak globalizazio justua lortzeko antolatu zuen foroan (Lisboa, 2007ko azaroa).

Erakunde hauek ordezkaturik daude Koherentzia Politikarako Ekimenean: Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Funtza, Munduko Merkataritza Erakundeak, UNICEF, Nazio Batuen Gizarte eta Ekonomi Gaietarako Saila, Garapenerako Nazio Batuen Programa, Nazio Batuen Industriaren Garapenerako Antolakundea, UNCTAD, FAO eta Nekazarien Garapenerako Nazioarteko Funtza.

Euskadin, Garapenerako Lankidetzarako otsailaren 22ko 1/2007 Legean jasotzen da politiken koherentzia (3.11 art.) eta bultzatze prozesu betean aurkitzen da. Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren funtzioei buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuan (2d art.) esaten den bezala, gorago aipatu erakundeen funtzioetako bat da politiken koherentzia printzipioa zenbateraino betetzen den azaltzen duen txostena idaztea.

Justifikazioa

Gure garapen ereduak eragina du beste herrialde batzuetako maila guztietan: pertsonalean, kolektiboan, instituzionalean, autonomikoan eta estatukoan. Asko dira hazkunde ekonomikoan eta metaketan oinarritutako eredu nagusiaren eragin negatiboak: bazterkeria eta planetako herrialde eta lurralde askoren kalteberatasuna, besteak beste. Eredu baztertua da eta bere ondorioek sortzen duten kostua (bazterkeria, pobrezia, desberdintasun, ingurumen-kalte eta indarkeriazko egoera gehiago) askoz ere handiagoa da hegoaldeko lurralde eta herrialdeetan.

Planetak bizi duen krisi global honen ondorioz, lankidetzaren eredu berri bat sortu behar da lehenbailehen, Ipar-Hego banaketa berrantolatu dezan eta egokitzapen ekologikoa eta soziala Iparraldeko lehentasunezko helburu bilaka dezan. Azken finean, eredu berriak behar ditugu, muga gabeko hazkunde ekonomikoaren imaginario ekonomikotik aterako direnak, eta pertsonen zaintza eta bizitza jarriko dutenak kezka eta analisi guztien erdian.

Anti-lankidetzaren kontzeptua garapenerako lankidetzatik sortua da eta honela definitzen dugu: Iparraldean sortu eta Hegoaldearentzat eragin negatiboa daukan ekintza oro (edozein dela ere bere kanala, esparrua edota jatorri eta jomuga). Anti-lankidetzaren zer den jakiteko, Hegoaldeko herrialdeek jasaten dituzten interferentzia negatiboak nolakoak eta zenbat diren galdetu behar diogu gure buruei. Anti-lankidetzaren abolituta, zuzenean iritsiko ginateke egungo sistema ekonomiko mundialaren erabateko berrantolaketa eta botere banaketa berdina. Interferentzia negatibo horiek konponduta, garapenerako politiken koherentzia lortuko genuke.

Hona hemen lankidetzaren beste helburu batzuetarako erabiltzen denean sortu daitezkeen interferentzia motak eta, beraz, edozein gobernuak jorratu beharko lituzkeenak. Gobernu batek ez badauzka behar adina eskumen autonomikoa izateagatik, salatzen, eragina izaten eta tokiko ekimenak garatzen ahalgintza beharko luke:

- Aliantza geostrategikoak osatzeko lankidetzak. Lankidetzak kasu batzuetan bi alderdiren artean (esaterako, Ipar Amerikako eta Britainia Handiko gobernuen arteko isilpeko akordioak edota merkataritza libreko itun bilateralak) edo beste batzuetan, alderdi anitzen artean ematen dira (OTAN, MERCOSUR, Liga arabiarra...).
- Atzerriko merkatu eta baliabideak eskuratzeko lankidetzak (petrolio, gasa, arrantza edo lan-esku merkea adibidez) edo nekazaritzako soberakinak kokatzeko egiten dena. Onuradunak matrizea jatorrizko herrialdean duten nazioz gairikoen enpresak dira, hirugarren herrialdeetan sartzeko estatuen zuzeneko edo zeharkako laguntza ekonomikoak edo bestelakoak dituztenak. Sarritan garapenerako laguntza bera izaten da Hegoaldeko ekonomietan sartzeko baldintza.
- Nazioarteko irudi ona lortzeko lankidetzak. Herrialde marka izenekoak gailentasun zibilizatzailerako, eskuzabaltasuna, adiskidetasuna eta heldutasuna islatzen ditu. Bere grabitate zentroa humanitariora den oro da. Oso argi dago lankidetzaren esparruan irudiarekiko kezka bat dagoela (logotipoen borroka), erakundeek nahiago baitituzte argazkiak ematen dituzten proiektuak (azpiegiturak) ikusezina direnak baino (hezkuntza edo osasuna).
- Gobernagarritasunagatik lankidetzak. Merkatuak herrialde periferikoetan eragindako kanpoko-tasun larrienak eustea eta arintzea. Bere helburua da gobernagarritasuna mantentzea eta leherketa sozialak prebenitzea (iraultzak, indarkeriazko egoerak) edo, besterik gabe, kapitalismoaren status quo oparoaren aurkako edozein ekintza saihestea.
- Kapitalismoagatik lankidetzak. Nazioarteko sistema kapitalista integratzea berau barneratzeko aurre-jarrera eskasa duten herrialdeetan edota herrialde ganberro bihurtzeko arriskuaduten herrietan (joera sozialistak barne).

Lankidetzak politiken koherentziaren definizioa

Hegoaldeko herrialdeetan eragina duten gobernu baten politikek, gobernu beraren garapenerako lankidetzak politiken helburu eta emaitzak kaltetu ez ditzaten sortzen den ekintza oro da honen definizioa.

Nolanahi ere, hori murriztailea da, zeren horren azpian ikus liteke helburu nagusia beste bat dela, hots, gainerako politikek garapenerako lankidetzakoei ahalik eta gutxien eragitea. Hegoaldeko ikuspegiak garrantzi gutxiago dauka gobernuetan eta, beraz, gure ustez hobe litzateke politika publikoen koherentzia beste modu batera lantzea, hemen garatzen ditugunak Hegoaldean duten eragina hobeto ulertzea helburutzat hartuta, inkoherentziak saihestuz eta sinergiak sortuz.

Horregatik, beste definizio bat eman diogu garapenerako politiken koherentziari: lankidetzaren eragin positiboa hobetzea helburutzat duten ekintzak dira, gainerakoak giza garapen berdina eta iraunkorra lortzeko eta pobreziaaren aurkako borrokan jarduteko helburuekin bat datozena ziurtatzen dutenak.

Garapenerako politika publikoen koherentzia motak

Garapenerako politiken koherentzia maila desberdinetan eman behar den prozesu bat da. Lehenik eta behin, lankidetzaren barnean eta gero administrazioaren politika guztietan:

- Barnean: garapenerako lankidetzak politikak bere baitan ere koherente izan behar duela esan nahi du eta, beraz, lankidetzaren helburuak, tresnak eta programak aztertzen ditu.
- Administrazioan oro har: departamendu bakoitzeko politika guztiek barneratu behar dute tokiko eta globalak diren esparruek elkarrekin duten menpekotasuna, garapenerako helburuekin bat etortzeko.

Garapenerako politika publikoen koherentziaren garrantzia

Garapenerako politiken koherentzia oso tresna garrantzitsua da eta eraginkortasunez erabiliz gero emaitza onuragarriak izan ditzake garapen iraunkorrean, giza eskubideen errespetuan eta pobrezia murrizteko langintzan.

Merkataritzan, politika industrialetan (enpresen nazioartekotzea), hezkuntzan, nekazaritzan eta im-migrazioan hartzen diren neurriek garapenerako politikek baino askoz ere baliabide ekonomiko gehia-go biltzen dituzte eta sarritan eragin negatibo indartsua izan ohi dute lankidetzak eta giza garapene-rako hezkuntzak dauzkan helburuetan (Hegoaldean zein Iparraldean).

Garapenerako lankidetzak politika publikoak onenak izanik ere, ez dute askotarako balioko adminis-trazio horiek interferentzia negatiboak edo anti-lankidetzak egiten badute. Hau da, garapenerako lan-kidetzaren helburuen aurkako politika hauek eskuratu daitezkeen lorpenak ezabatu edota murriztu dezakete. Arrazoi batzuk hauek dira:

- Akordio komertzialek, nekazaritza, migrazio, genero berdintasun eta ingurumen politikek edota klima aldagaitaren aurkako borrokak, besteak beste, inplikazio garrantzitsuak dauzkatelako ga-rapenari dagokionean.
- Giza eskubideen eta eskubide kolektiboen aldeko borrokaren zutarri dela aitortzen zaion arren, aurrerapen gutxi egin delako garapenerako politiken koherentzia sendotzeko bidean.
- Garapenerako politiken koherentzia sustatuz inkoherentziak saihestu, emaitzak dibertsifikatu eta biderkatu, efektu negatiboak murriztu eta sinergiak sortu daitezkeelako.

Politika publikoen koherentzia aplikatzeko zailtasunak

Hauek dira zailtasun batzuk:

- Administrazio publikoetan ez dira jabetzen beren politikek (edozein motatakoak direla ere) He-goaldeko herrialdeetan duten eraginaz.
- Lankidetzaren esparruan hainbat politika, estrategia eta plan sektorial sortzen dira, baina ez dute transbertsalitatea lortzen politika publiko guztietan.
- Ez da mekanismorik sortzen edo gutxiegi erabiltzen dira (Euskal Kontseilua, Erakunde arteko Batzordea, Departamendu arteko Batzordea) garapenerako politiken koherentzia garatzeko, ez delako behar adina instituzionalizatzen erabakiak hartzeko orduan.
- Tokiko ekintza politikoek globalki duten eraginaren inguruko ezagutza falta, hots, elkarrekiko menpekotasun faktorea ahaztea.
- Eta, batez ere, lehentasun politikoak, beharizanak eta interes lokal eta globalen arteko gatazka, era independente batean aztertzen direlako.

Zein esparrutan aplika daitezkeen politika publikoen koherentzia, adibide batzuk

Europako Batzordeak 12 lehentasun ezarri zituen 2005ean garapenerako politiken koherentzia lantze-ko: merkataritza, ingurumena, klima aldaketa, segurtasuna, nekazaritza, arrantzako akordioak, gizarte politikak eta enplegua, migrazioa, ikerketa/berrikuntza, informazio teknologiak, garraioa eta energia. Esparru horietan koherentzia lantzeaz gain, garapenean eragin handia duten alderdi berriak sartu zituzten, besteak beste, lehengaiak edota finantza politikak.

Adibide batzuk jarriko ditugu garapenerako politiken koherentziaren lehentasunezko jarduera esparruak zeintzuk diren esateko:

- Hezkuntza. Oinarrizkoa da hezkuntza politikak erabiltzea pobreziaren eta garapenerako lankidetzaren beste gai batzuen inguruko ezagutza bultzatzeko (kausak eta ondorioak) eta, bide horretatik, herritar kritikoak sortzeko.
- Osasuna. Giza eskubide bat da eta baita ere ondasun publiko bat, eta agintari publikoek kudeatu behar dute nazioan zein nazioartean.
- Industria eta merkataritza. Kontuan izan behar dugu gure politikek nekazaritza produktore industrialen ereduak sendotzen dutela eta horrek ez diela onik egiten produkzio erakunde txikien interesei.
- Kanpo zorra. Herrialde Pobretuekiko Elkartasun eta Justizia Gutuna (2007ko abenduaren 28an onartutako legea) eta ekimen hori bultzatu zuen eskaera soziala bete behar dira.
- Ingurumena, arrantza, nekazaritza. Harreman bat sortu behar da elikadura subiranotasunarekin (ezagutza tradizionalei balioa eman eta tokiko produkzioa bultzatu) eta klima aldaketaren aurkako borrokarekin bat datorren ingurunearekin.
- Garraioa eta energia. Azterna ekologikoa murriztu behar da (merkaturatze kanal laburrak) eta erauzketa enpresek Hegoaldean sortzen duten inpaktua ere bai.
- Globalizazioaren dimentsio soziala. Nazioartekotze prozesuetan enpresek beren produkzio inbertsioek ezarriko diren tokiko pertsonengan eta komunitateetan sortuko duten eraginari arreta jarriko diotela sustatu behar dugu. Kontuan izan behar guke ere gure merkataritza politikek nekazaritza ekoizle industrialen ereduak sendotzen dutela eta horrek ez diela onik egiten produkzio antolakunde txikien interesei.

Koherentzia sustatzeko mekanismoak

Helburu honetan aurrera egiteko gobernuak garapen politikarekin konprometitu behar du, hau da, konpromisoa hartu behar du garapen politika gainerakoen artean sartzeko (hezkuntzakoak, ekonomikoak, merkataritzakoak...), eta onartu behar du departamendu edo eremu zehatz batez haratago doan gaia dela. Hori lantzeko zenbait proposamen:

- Politika. Lehenik eta behin, onartu behar da garapenerako politika ez dela lankidetzaren barruko gai bat soilik; ekintza publikoa sustatu behar da tokiko politikek eta eragin globalek elkarrekin duten menpekotasunagatik. Gainera, garapenerako politikak bere ekintza plan propioa izan behar du, beste guztietan transbertsalizatzen.
- Erakundeak. Administrazio guztien eta bakoitzaren barnealdean koordinatzeko mekanismoak sortu behar dira, garapenerako lankidetzan jarduten duten gainerako eragileen parte-hartzearekin batera (gizarte zibila), beste esparru batzuetan lan egiten duten administrazio departamendu edo organismoen jokatibidea garapenerako helburuak betetzerantz orientatzeko.
- Gaitasunak sortzea. Administrazio publikoek ulertu behar dute tokiko eta esparru globala elkarren menpeko direla eta garapenerako politiken koherentzia bultzatu behar dela.
- Politika publikoek garapenerako politikan duten eragina neurtzeko mekanismoak sortu behar dira.

VII.

Diru-laguntza
publikoen oinarri
orokorren irizpideak
eta deialdiak

DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEN OINARRI OROKORREN IRIZPIDEAK ETA DEIALDIAK

Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Antolakundearen arabera, Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) baliabide publiko batzuk dira herrialde garatuek txirotutakoei bideratzen dituztenak eta dohaintza oso edo partzial bezala ematen direnak, helburutzat dutelarik herrialde horietako hiritarren garapen ekonomikoa eta bizi-kalitatea hobetzea.

GLO deszentralizatua edo lankidetza deszentralizatua autonomi erkidegoetako gobernuek, foru aldundiek eta udalek bideratzen duten GLOren zatia da.

Euskadiko lankidetza duela gutxiko kontua da, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Funtsek ez baitzuten Espainiako Estatuak garatutzat hartu 1981. urtera arte. Hortik aurrera, laguntza-hartzaile izatetik laguntza-emaile izatera pasa zen.

Hain zuzen ere, ordutik aurrera hasi ziren gobernuko zein gobernukoak ez ziren esparruetako lankidetzarako ekintzak. 1988an Lankidetzarako Espainiako Nazioarteko Agentzia sortu zen eta Euskadiko Lankidetza eta Garapenerako Laguntza Funtse sortzeko akordioa sinatu zen. Azken hau ordurako existitzen ziren hainbat GKEk eta Eusko Jaurlaritzak adostu zuten, eta horrela Euskaditik bidalitako laguntza ofizialak formalizatu ziren.

Harrezkero, lankidetza deszentralizatuak hazkunde absolutua eta erlatiboa izan zuen eta GLOren baitan gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen. Era berean, beharrezkotzat jo zen koordinazioa eta estrategia homogeenak bultzatzea, kalitate teknikoa hobetzea eta erakundeen politiketan gardentasuna handitzea.

Testuinguru honetan garatu zen gaur esku-artean dugun dokumentua. Izan ere, txosten hau instituzioentzako gida izateko asmoa du haien GLO nazioarteko lankidetzarako eta garapenerako hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako GGKEei ematen zaizkien diru-laguntzen deialdietan gauzatzen dutenean. Gida honen helburua da instituzio hauen eta GGKEen arteko harremanak erraztea. Eta amaierako xedea, beraz, kudeaketa administratiboan garapen prozesu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzea.

Gure iritziz, lankidetza eta garapenerako hezkuntza jarduerentzako tresnek gutxieneko irizpide batzuk jarraitu behar dituzte; garrantzitsua da kontuan hartzea alderdi asko ezin direla zabaldu administrazio publiko guztietara, dimentsioak eta giza zein aurrekontu baliabideak guztiz desberdinak baitira. Edonola ere, kontuan harturik kudeatutako tresnen bolumena eta konplexutasuna, ezinbestekotzat jotzen dugu nabarmentzea inportantea dela administrazioek behar bezala prestatutako behar adina baliabide izatea lan hauetarako. Halaber, gestioa ez litzateke inola ere egin behar horretarako bideratutako baliabiderik gabe. Tamaina txikiko erakundeen kasuan, kudeaketa hori elkarlanean egin liteke.

Azken finean, gida malgu bat da, hainbat faktorek eragindako zailtasunei aurre egin behar zaielako: garapenerako lankidetzaren heterogeneotasuna, erakunde desberdinen berezitasunak... Orientatzeko bide bat baino ez da, gutxieneko batzuk ezartzen dituen, eta gutxieneko horiek egokitu egin litezke kasu bakoitzean ematen diren inguruabarretara.

Publizitatea

Diru-laguntzen Lege Orokorren 17. artikuluan ezarritakoa baztertu gabe, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak proposatzen du independenteki argitara daitezela, batetik, oinarri orokorrak edo araudia eta, bestetik, deialdia.

Oinarriak edo araudiak dagokien aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira. Bertan ezarriko da dagokion administrazio publikoak garapenerako nazioarteko lankidetzari buruz daukan politikaren marko estrategikoa, eta beraz urte anitzekoa izango da. Garapenerako hezkuntza proiektuen oinarri edo araudiei dagokienean, esplizituki adieraziko da erakundeak esparru honetan daukan marko estrategikoa.

Oinarri edo araudietan, hala behar balitz behintzat, finkatu egingo dira lehentasun horizontalak, sektorialak eta geografikoak; finantzaketa tresna desberdinak, GGKE onuradunen betebeharrak eta proiektuen balorazio irizpideak, Diru-laguntzen Lege Orokorren ezarritakoa ahaztu gabe.

Deialdi bakoitzean, laguntzaren zenbateko osoa adierazi beharko da, eta baita ere GGKE bakar bati esleitu dakioken gehieneko kantitatea eta erakunde batek jasoko duen zatia beste batekin edo batzuekin partzuergoan aurkeztean bada. Administrazioak hainbat tresna dauzkanean GGKEak finantzatzeko, instrumentu guztiei aplikatuko zaie gehieneko portzentaje muga.

Deialdiak urtean behin egingo dira, argitaratze data finko bat izango dute eta gutxienez hilabeteko epea emango da GGKEek proiektuak aurkez ditzaten.

GGKEak diru-laguntzen deialdietara aurkezteko baldintzak

Diru-laguntzen Lege Orokorren 11, 12 eta 13. artikuluek ezartzen dutena baztertu gabe, deialdietan parte hartu nahi duten GGKEek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- Laguntza eta dirulaguntzak lortzeko lehiatzen diren GGKEek deialdia argitaratu baino lehenagoko gutxienez bi urteko antzinatasuna eta esperientzia izan beharko dute lurraldean.
- Nortasun juridikoa ziurtatu beharko da edozein erregistro publikoren bitartez, bertan egiaztatuko delarik nortasun juridikoa eta garapenerako lankidetzajarduerara.
- Partzuergoen kasuan, nahikoa da GGKE batek betetzen baditu araudiko oinarrian ezarritako baldintzak. Kasu honetan, hauek betetzen dituen erakundea izango da honen buru.
- GGKEak jarduerara eta presentzia eduki beharko ditu dirulaguntza ematen duen autonomi erdigokoko lurraldean.
- Erakunde bati laguntza berriak eskatzeko ez da derrigorrezkoa izango aurretik lortutako laguntzen justifikazioa aurkeztea, baldin eta deialdia amaitzen denean aurreikusitako exekuzio edo justifikazio epearen barruan badaude.

Garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeari jarraiki, Euskal Autonomi Erdigokoko administrazio orokorraren laguntzak jaso ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da Garapenerako lankidetzaren Agenteen Erregistroan izena ematea. Bertan izena emandako GGKEek ez dute aurrerago aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko diru-laguntzetako deialdietan lehiatzeko.

Diru-laguntzen Lege Orokorreko Araudiaren 24.g) artikuluari jarraiki, posible izango da zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izanari buruzko ziurtagiririk ez aurkeztea eta horren ordez erantzukizun aitorten bat entregatzea; honela, gero administrazio publikoak bere kabuz egiaztatutako ahal izango du.

Kontraparteak

Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29. artikulua ezarritakoaren arabera, ez da azpi-kontrataziotzat hartuko atzerriko kontraparteak diru-laguntza osoa edo zati bat exekutatzea.

Kontraparteak izango da ekintza garatuko den herrialdeko legediaren arabera sortutako edo aitortutako pertsona juridikoa, diru-laguntza jaso duen erakundearekin lankidetzak harremana daukana eta xede diren jardueren exekuzio zuzen osoa edo zati bat bere gain hartzen duena. Baldintza jakin batzuetan, kontrapartetzat har daitezke nortasun juridikorik gabeko pertsona taldeak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen definizioa

Deialdietan definitutako diru-lagundu daitezkeen kontzeptuak. Edonola ere, barne hartu beharko dituzte aurreikusitako jardueraren baitan sartzen diren guztiak. Argi eta homogeneoki adieraziko dira partida bakoitzari egotzi dakizkiokeen gastuak, hainbat administrazio publikok elkarrekin finantzaturako proiektuen justifikazioa errazteko.

Kostu zuzentzat hartzen da proiektuaren exekuzioarekin lotutako gastu oro. Zeharkako kostuak izango dira eskaera egin duen erakundeak proiektua exekutatzekeko behar duen egituraren mantenimenduari lotutakoak. Diru-laguntza osoaren %8 eta %12 bitartekoak izango dira, barne hartzen dituzten kontzeptuen arabera. Kostu zuzenak ez daude portzentaje zehatz batera mugatuta, aitzitik, proiektuko helburu eta estrategiekiko koherentzia mantendu beharko dute. Lankidetzak proiektuarekin lotutako sentsibilizazio eta hezkuntza jarduerak gauzatzen diren kasuetan, kostu zuzentzat hartuko dira.

Urteroko deialdiek proiektuaren kostu osoaren gaineko gehieneko finantzaketa portzentaje bat ezarri ahal izango diote lankidetzak deszentralizatutako erakundearen zatia. Nolanahi ere, baloratu egingo da GGKEak bere funtsekin, kontraparteekin edo hirugarrenen finantzaketarekin egindako ekarpena. Azkeneko hau ez da derrigorrezkoa izango eta erakundearen balorizazioak ekarpenentzat kontuan hartu beharko dira, bereziki garapenerako hezkuntzarako proiektuen kasuan.

Euskal antolakundeek, tokiko kontraparteak eta onuradunek egindako ekarpen balorizatuaren onarpena dagokien justifikazioarekin

Garapenerako lankidetzak aitortu egin behar du antolakundeak eurak, komunitateak eta laguntzak jasoko dituzten pertsonak direla protagonistak. Herri pobretuak direnez, egindako ekarpena sarritan ez da diruzkoa izaten, baina beti da ezinbestekoa laguntzaren eraginkortasunerako eta jakina, jarraipena izan dezan. Ahalegin hori oro har, laguntzari egindako ekarpen nagusia da eta honen arrakastaren giltza.

Koherentziari jarraituz, oinarrietan zehazki bilduko da ekarpen horiek egiteko aukera, eta baita ere baloratzeko zein justifikatzeko irizpideak, zeintzuek bat egin beharko baitute tokiko inguruabar eta testuinguruekin.

Deialdiaren balorazioa eta ebazpena

Deialdiak baremo tekniko bat barne hartuko du proiektuak baloratzeko. Horixe aplikatu beharko da ebaluaketa batzordea aukeratu eta osatzerakoan, eta ezingo dira kide izan GGKEak edota deialdiko baliabideak eskatu dituzten bestelako erakundeak.

Deialdiak epe bat ezarriko du ebazpena emateko. Gomendatzen da ez dadila 3 hilabete baino gehiagoz luzatu proiektuak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta inolaz ere ezingo du izan sei hilabete baino luzeagoa proiektuak aurkezteko epea amaitu ondoren, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 25. artikulua ezarritakoaren arabera.

Ebazpena argitaratu, bateratu (onartuak eta baztertuak), motibatu eta antolakunde eskatzaile bakoitzari jakinarazi beharko zaio. Hauek objektiboak izango dira eta balorazio teknikoan oinarrituko dira, zeinak kalitatezko osagaiak eta lehentasunekiko egokitzapena barne hartuko dituen.

Onartutako ebazpenetan eskatutakoaren %100 emango da, baldin eta ez bada balorazio teknikoaren ondorioz gastuaren ekintza edo kontzeptuko osagairen baten finantzaketa kanpoan uzten (kasu horretan zehazki jakinarazi beharko da, birformulazioa orientatzeko), edo baloraziorik baxuena jaso duen onartutako proiektuaren kasuan, baldin eta eskatutakoak aurrekontua gainditzen badu. Horrela, ekitzen bideragarritasun ekonomikoa bermatu nahi da eta era berean GGKEen eta lankidetzaren deszentralizatuko erakundearen ekintza administratiboak eta prozedurak biderkatzea saihestu.

Finantzaketa osoa jasotzen ez duten proposamenen kasuan, gutxienez 15 eguneko epea ezarriko da proiektu osoa birformula dezaten.

Hitzarmenak sinatzea

Lankidetzaren deszentralizatuko erakundeek hitzarmen bat sinatuz formalizatuko dute diru-laguntzaren ondorioz beronen onuradun den GGKEarekin ezarritako harremana. Honek proiektuaren oinarritzko datuak eta alde bakoitzaren betebeharrak barne hartuko ditu gutxienez. Baldintzen jarraipena txosten partzialen edo GGKEak finantzaketa ematen duen erakundeari eginiko jakinarazpen ofizialen bitartez egingo da.

Emandako laguntza ordaintzea eta jarduera hastea

Diru-laguntzak ematen dituen lankidetzaren deszentralizatuko erakundeak behar adinako aurrekontua izango du emaitza prozesutik eratorritako konpromisoei aurre egiteko. Deialdian zehaztu beharko da zein den erabili daitekeen gehieneko kreditua eta baita ere urtekoa edo urte anitzekoa ote den.

Horrela bada, urteko diru-laguntza izango da ematen den ekitaldiko aurrekontuari guztiz egozten zaiona, edozein dela ere proiektuaren edo jardueraren exekuzio epea. Aldiz, urte anitzekoak izango dira lankidetzaren deszentralizatuko erakunde emaileak bi ekitaldi edo gehiagotako aurrekontuei (jarraian) egozten dizkien diru-laguntzak.

Orokorrean, diru-laguntza ordaintzeko ez da beharrezkoa izango bermerik edo abalik, eta %100 aurretiaz ordainduko da urtekoen kasuan. Urte anitzekoaren kasuan, berriz, lehen urterokoaren %100 ordainduko da aldez aurretik.

Administrazio emaileak 15 egun dauzka gehieneko ordainketa egiteko, ebazpena dagokion aldizkari ofizialean argitaratu ondoren.

Urte anitzeko proiektuetan, aurrerago egin beharreko ordainketetan ez da derrigorrezkoa izango lehen abonua osoaren justifikazioa aurkeztea hurrengo ordainketa egiteko. Horrela, ez da aurrekontu fluxua etengo eta ez dio eragingo ekintzen exekuzioari edo tokiko eragileekin eta hornitzaileekin dauzkaten harremanei. Kasu hauetan, gehieneko ere dagokion txostena aurkeztu eta hilaibeteko epean egingo da.

Administrazioaren ordainketa atzeratuek sortutako interesak, lankidetzarekin eta garapeneko hezkuntzarekin lotutako ekintzetan erabiliko dira.

Jarduera hasi ahal izango da deialdiaren urtea hasi ondorengo edozein unetan eta diru-laguntzaren ordainketa egin eta bi hilabete geroago. Gerta liteke jarduera ebazpena eman baino lehen hastea, baina halakoetan administrazioak ez du inolako onarpen konpromisorik izango.

Diruz lagundutako proiektu edo jardueraren exekuzioak formulazioan adierazitako iraupena izango du, eta ez da derrigorrezkoa izango urte naturalera edo aurrekontu ekitaldietara egokitzea.

Aldaketak

Funtsezko aldatetaren bat egiteko (helburuekin, herritar onuradunekin, exekuzio eremuarekin edo kontrapartearekin lotutakoak) beharrezkoa izango da administrazio emailearen baimena. Luzapenak GGKEak jakinarazi beharko ditu eta aurretik baimenduta egon beharko dute.

Ez da baimenik beharko aurrekontu aldatetarako, baldin eta ez badute diru-laguntza osoaren %20 baino gehiago aldatzen eta ez badituzte aurreikusitako emaitza eta helburuak aldatzen. Halaber, ez da baimenik beharko aurrekontu aurrezkiengatik edo aldaketa tasan izandako irabaziengatik aipatu helburuak zabaltzeko.

Kasu guztietarako, aldatetak baimentzeko epea 15 egunekoa izango da gehienez.

Proiektuaren justifikazio teknikoa eta ekonomikoa

Diru-laguntza jasoko duen erakundearen obligazioetako bat izango da jarduera edo proiektua gauzatu izanaren eta dagozkion gastuak ordaindu izanaren justifikazioa egitea adierazitako garai eta forman. Diru-laguntzen Lege Orokorreko 30. artikuluan ezarritakoa baztertu gabe, oinarri arautzaileek aipatuko dituzte justifikazio horren forma eta bete beharreko baldintzak. Epea ezingo da inolaz ere hiru hilabete baino laburragoa izan proiektua amaitu den egunetik kontatzen hasita.

Oinarri arautzaileek justifikazio sistema malgua ezarriko dute, garapenerako nazioarteko lankidetzaren errealitateari egokitutakoa. 18 hilabete baino gehiago iraungo duten proiektu edo ekintzetan, tarteko jarraipen txosten bat aurkeztu beharko da. Aipatutakoa baino laburragoak diren proiektuetan nahikoa izango da amaierako dokumentua aurkeztea.

Nahikoa izango dira antolakundearen benetakotasun ziurtagiria daukaten fakturen kopiak. Orijinalak eskuragarri egongo dira tokiko kontrapartearen egoitzan.

Espediente administratiboa amaitzearen ziurtagiria

Gehienez ere amaierako txosten teknikoa entregatu eta 3 hilabeteko epean, administrazio publikoak espedientea amaitu izanaren ziurtagiria igorri beharko du.

